




2021-2022 IKASTURTEAREN ANTOLAKETA BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUETAN



**Hezkuntzako
sailburuordearen ebazpena**

**AURKIBIDEA****SARRERA**

1.- HEZKUNTZA ANTOLAKETA ETA PLANGINTZA.....	5
1.1.-Ikastetxearen Hezkuntza-proiektua.....	5
1.2.-Ikastetxearen hizkuntza proiektua (IHIP).....	5
1.3.-Ikastetxearen urteko plan (IUP).....	8
1.4.-Urteko memoria.....	17
1.5.-Iraunkortasun irizpideak.....	17
1.6.-Berdintasun irizpideak.....	18
1.7.- Bizikazi ekimena.....	19
1.8.- Hezkuntza-esparruan haur eta nerabeen babesgabetasuneko, tratatu txarretako eta sexu-jazarpen eta sexu-abusuko litezkeen egoerak prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko protokoloa, eta hezkuntza-esparruaren eta adingabearen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetzeta eta koordinazioa	21
1.9.- Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero-portaera ez-normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko	23
2.-IKASLEAK.....	23
2.1.- Ikasleen antolaketa	23
2.2.- Hezkuntza laguntzako premia espezifikoak (HLPE) dituzten ikasleak	24
2.3.- Ikastetxeek HLPE-ak (dislexia, hizkuntzaren garapen-nahasmendua, arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua, diskalkulia, gaitasun handiak) dituzten ikasleei buruzko informazioa biltzeko eta antolatzekeko prozedura	29
2.4.- Ebaluazio psikopedagogikoa eskatzea Berritzeguneko HPBko aholkularitzari	29
2.5.- Aparteko curriculum-neurriak eskatzea	30
2.6.- Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa taldeak	33
2.7.- Hezkuntzaren eta osasun mentalaren arteko lankidetzaren esparru orokorra.....	33
2.8.- Ikasleen eskola-egutegia eta ordutegia.....	33
2.9.- Ikasleak klasera bertaratzea.....	35
2.10.- Erlijioa.....	36
2.11.- Lanbide Heziketako proiektu-modulua goi-mailako heziketa-zikloak.....	37
2.12.- Ikasleen ebaluazioarekin lotutako alderdiak.....	38
2.13.- Diagnostiko-ebaluazioa.....	45
2.14.- Egokitzenak unibertsitate sartzeko ebaluazioan (USE)	45
3.-IRAKASLEAK ETA HEZKUNTZAKO PERTSONALA	45
3.1.- Irakaskuntza-jardueraren antolaketa	46
3.2.- Urteko lanaldia.....	48
3.3.- Asteko lanaldia.....	48
3.4 - Zuzendaritza-karguak eta beste batzuk	54
3.5.- Irakasleen bertaratzea. Lanaldia betetzen dela kontrolatzea	57
3.6.-Sailak.....	59
3.7.- Orientabide-saila.....	65
3.8.- Hezkuntza-Arreta	67
3.9.- Mailako eta tutoretzako taldeak	68
3.10 –Praktiketako unibertsitate-ikasleen tutoretza	70
3.11 –Langile espezifikoak.....	71
3.12 –Enplegurako prestakuntza.....	76



4.- IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAUK BATZUK.....	76
4.1.- Ikastetxeetako eraikinak eta instalazioak urteko planean aurreikusi gabeko jardueretarako erabiltzea	76
4.2.- Ikastetxeko ikasleen eskola-asegurua tramitatzea eta ordeintzea	77
4.3.- Datu pertsonaleen babesa	77
4.4.- Ikastetxeetako jabetza intelektual	78
4.5.- Ikastetxeetako osasunari eta segurtasunari buruzko araudia	78
4.6.- Laneko arriskuen prebentzioko zerbitzua	80



BIGARREN HEZKUNTZA

HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEAREN EBAZPENA 2021-2022

IKASTURTERAKO

SARRERA

2020-2021 ikasturtean osasun-larrialdiko egoeran egon gara, eta horrek behartu gaitu protokoloak ezarri eta jarraitzea, baita gure ikastetxeetan antolamendu- eta logistika-alaketak egitera ere. Hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzari eta parte-hartzeari esker, ikasturte modu presentzialean amaitu ahal izan dugu.

Erabat sinetsita gaude hezkuntza-sistemak beharrezko erresilientzia-gaitasuna erakutsi duela egoera aldakorretara egokitzeko, eta hori hezkuntza-sistema garatzeko eta indartzeko palanka bihurtu da. Izan ere, pandemia honek agerian utzi du, orobat, euskal hezkuntza-eredua hobetzen sakondu behar dela etorkizunari aurre egiteko.

Pandemiak oso presente jarraitzen duenez, 2021-2022 ikasturtean Osasun Sailarekin adostutako protokoloa aktibatzen jarraitu behar dugu, ikastetxeetara bidalitako azken [2021-22 Protokolo Orokorrean](#) ezarritako alaketak aplikatuta, eta ikasturtearen hasieran nahiz ikasturtean zehar gerta daitezkeen alaketei oso adi egonda. Hala ere, pentsatzen jarraitu behar dugu zer erronkari heldu behar diogun berrikuntzako eta etengabeko hobekuntzako jarduerari berriro ekiteko.

Gure hezkuntza-sistemari tenperatura hartzen jarraitu behar dugu, pandemia-testuinguru batean erantzun beharreko funtsezko gaiak identifikatzeko asmoz. Testuinguru horretan, oztopoak eta ziurgabetasunak gainditu ditugu, eta ikastetxeetan normaltasun baten barruan lan egiten jarraitu ahal izan dugu. Batez ere, antzemandako erronkak lantzen jarraitu nahi dugu, eta ikastetxeei eta hezkuntza-komunitate osoari zuzendutako aholkularitza eta laguntza hobetu.

Jakina, ebaluazio-tresnak fintzen eta ikaskuntza hobetzeko eta neurtzeko modu berriak bilatzen jarraitu behar da, hezkuntza-sistemaren etengabeko hobekuntzan eragin ahal izateko aukera berriak txertatuta, hezkuntza-prozesu horietan arreta handiagoa jarrita eta ikaskuntzarako arrakasta-palankak eta hobetzeko aukerak identifikatuta, betiere ikasleak eta haien hezkuntza-, gizarte- eta emozio-beharrak ardatz hartuta. Osasun mentalak eta ongizate emozionalak duten garrantzia ere agerian jarri da hilabete hauetan. Izan ere, denbora horretan “normaltasun berri” batera egokitu behar izan dugu.

Erronka horri hezkuntza-jardueren bidez erantzun behar zaio, egoeraren ondoriozko eragin negatiboa ahalik eta txikiena izan dadin, eta, era berean, egoera hori bihur dadin ikaskuntzarako, garapen pertsonalerako eta curriculum eta eskola-antolaketa kudeatzeko modu berriak diseinatzeko aukera. Halaber, berrikuntza-prozesuak aktibatu behar dira, eta, garrantzitsuenak, ilusioz eta motibazioz lan egiten jarraitu, gizarteari gure zerbitzurik onena eskaintzeko.



2021-2022 ikasturteari begira, ildo estrategiko hauek proposatzen ditugu:

- Ikastetxeen hezkuntza-lidergoa eta ahalduak sustatzea.
- Hezkuntza-komunitate osoan euskararen erabilera eta garapena sustatzeko estrategia berriak bultzatzea.
- Ikastetxeko plan digitala garatzea, ikastetxe bakoitzaren beharrei erreparatuta.
- Eskola inklusibo, askotariko eta ikasle guztien beharretara egokitutako baten alde bete-betean lan egitea.
- Curriculum eta ebaluazio-eredu berri bati buruz gogoeta egitea, irakatsi eta ikasteko prozesu esanguratsuak bultzatzeko.

1. HEZKUNTZA-ANTOLAKETA ETA -PLANGINTZA

Ebazpenaren lehen puntu honetan, hezkuntza-antolaketari eta -plangintzari buruzko alderdiak landuko dira, eta 2021-2022 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako institutu guztiek kontuan hartu beharreko lehentasunak edo gutxieneko alderdiak ezarriko dira.

1.1. IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA

Ikastetxearen hezkuntza-proiektua (IHP) proposamen integral eta globala da, loteslea, hezkuntza-komunitatearen eta haren ingurunearen ezaugarriak aztertu ondoren egina, eta haren balioak, printzipioak eta helburuak zehazten ditu, baita horiek lortzeko modua ere.

IHParen atalek jasoko dituzten alderdiak —betiere indarrean dagoen araudiarekin bat etorri behar dute— nahitaez aipatu behar dira ikastetxeak bere eskumenen esparruan hartu beharreko erabakietan. Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasleak, ikasleak, familiak eta pertsonal ez-irakaslea), Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 48.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, behartuta egongo dira artikuluko horren atalean adierazitakoa errespetatzera. Nolanahi ere, lege hori berrikusi eta eguneratu dadin sustatu ahal izango dute, proiektuan bertan ezarritako mekanismoen arabera.

Ikastetxe guztiek landuta edo eguneratuta izan behar dute IHPa. Lan hori erraztearren, Hezkuntza Sailak hezkuntza-komunitatearen esku jarri du Hezkuntza-proiektua egiteko gida.

1.2. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA (IHIP)

Covidak agerian utzi du ikasle guztiekin euskarazko hizkuntza-kompetentzia lantzen eta bultzatzen jarraitu behar dela, eta hori izango da 2021-2022 ikasturtean heldu beharreko lehentasunetako bat.

Hizkuntzen inguruko erabakiek ez diete soilik hizkuntza-gaietako irakasleei eragiten, hizkuntza komunikazio-tresna baita eta esparru eta ikasgai guzti-guztietatik garatu beharreko oinarriko kompetentzietako bati lotuta baitago.



Horregatik, hizkuntza-proiektuak jaso egin behar ditu esparru didaktiko-metodologikoan ikastetxeak hartutako erabakiak; bereziki, hizkuntzen tratamendu integralarekin, irakurtzeko konpetentziarekin eta ahozko adierazpenarekin zerikusia duten guztiak.

Aurrekoarekin bat etorritik, arlo eta esparru guztietako irakasleek beren urteko programazio didaktikoetan sartu egingo dituzte hitzeko komunikazioko, hitzik gabeko komunikazioko eta komunikazio digitaleko zeharkako oinarritzko konpetentziari dagozkion helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak, testuen idatzizko eta ahozko ulermena lehenetsita. Zeregin hori errazteko, ikastetxeek IRAKURGUNEA tresnan jasotako orientabideak dituzte. Tresna horretan, ikastetxerako Irakurketa Planaren oinarritzko eredu bat proposatzen da.

Ikastetxe guztiek landuta edo eguneratuta izan behar dute beren IHIPa. Lan hori erraztearren, Sailak Ikastetxearen hizkuntza-proiektua prestatzeko gida jarri du hezkuntza-komunitatearen eskura.

Euskara ardatz izango duen IHIPa egiteko garaian, Ulibarri programa oso erreferentzia garrantzitsua da, hizkuntza-normalizazioko proiektuen bidez ikasleen komunikazio-konpetentzia sustatzen baitu. Hortaz, 2021-2022 ikasturtean, hizkuntza-normalizazioko planak egiten dituzten ikastetxeek horiek eguneratzen eta ezartzen jarraitu behar dute, irteera-profilean aurreikusitako komunikazio-konpetentziak eskuratzera bideratutako metodologiak eta didaktikak lehenetsita. 2021-2022 ikasturtean, ULIBARRI programari atxikitako ikastetxe guztiek, lau bat urtean behin, euskararen erabileraren egoerari buruzko analisia (diagnostikoa) egin beharko dute ikastetxean bertan eta haren eragin-eremuan, baita euskararen erabilera normalizatzeko proiektu bat ere hurrengo lau urteetarako.

Ilido berean, ikastetxearen hizkuntza-proiektuan gogoeta bat jaso behar da ikastetxean euskarak hainbat esparru eta figuratan duen hizkuntza-erabilerari buruz, hala nola ikasleek ikasgelan bertan eta ikasgelatik kanpo irakasleekin erabiltzen duten euskarari buruz. Beharrezkoa da irakasleak sentsibilizatzea ikasleengan duten eraginaren gainean: euskararen ezagutzaren eta kalitatearen transmisioan, hizkuntzaren erabileran eta atxikimenduan, beraien hizkuntza-ohituretan. Irakasleen hizkuntza-ohiturez ari gara, bai ikasgelan eta ikasgelatik kanpo, bai lankideen artean. Kontuan izan behar dugu ikastetxeak direla ikasle gehienek hizkuntza-ekosistemarik handiena, bakarra ez denean. Beraz, ikastetxearen denborak eta espazioak zaindu behar ditugu, eta euskara hezkuntza-jarduera formalaren eta informalaren ardatz egituratzaile gisa kokatu.

EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK

Hizkuntza-zentroetan IRALE programaz gain, pandemiaren ondoren *Euskal Giotze Barnetegiak* euskarazko udalekuak berreskuratu ditugu. Inoiz baino garrantzitsuagoa da ikasleei euskaraz erabat murgiltzeko aukerak eskaintzea: euskaraz modu integralean eta ikasgelatik kanpo bizitzeko espazioak eta uneak. Ekimen honek urtez urte izan duen arrakasta kontuan izanda, plaza kopurua handitu dugu, Hezkuntza Sailaren eskaintzari 6. barnetegia¹ gehituta.

¹ Hauek dira barnetegien kokalekuak: Hondarribia, Elgoibar, Lemoiz, Barria, Zerain eta Muxika (Gorozika).



Horretarako, Osasun Sailarekin protokolo propio bat adostu dugu, Protokolo Orokorren eranskin gisa txertatua, [ikasleen](#) segurtasuna eta ongizatea babesteko.

HIZKUNTZA- ETA METODOLOGIA-ESTRATEGIAK

Azken urteotan, D eredu ezarri da eredu nagusi gisa. Ereduaren hazkundearen eta azken urteotako aldaketa sozialen ondorioz, gero eta askotarikoagoak dira euskarazko eredu horietan biltzen diren familia eta ikasleen tipologiak. Horregatik, une honetan sistemak hizkuntza-estrategiak eta praktika metodologikoak berraztertu behar ditu.

Hurrengo ikasturtean lehentasunezko lan-ildoetako bat izango da gure ikasleek euskaraz komunikatzeko duten konpetentzia hobetzea eta ikastetxeetan euskararen erabilera areagotzea. Horri dagokionez, metodologiako eta ikastetxeak aholkatzeko 4 ildo berri jarri ditugu abian: *Berbalapiko*, Lehen Hezkuntzako ikasleen euskarazko ahozko praktikorako errutinekin lan egiten duena; *ELKARHITZ*, Bigarren Hezkuntzan ikasleek euskaraz komunikatzeko duten konpetentzia hobetzeko ikasgelako praktikan eragina duena; *PIKTOIDAZKETA* hirueleduna, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei zuzendua, plataforma digital baten bidez haien irakurketa- eta idazketa-errendimendua hobetzeko (irakasle taldeak sortutako edukitik abiatuta sortzen baita ikaskuntza); *SAKONEAN*, *Berritzegune Nagusiak* bultzatutako programa, klaustroari baterako gogoeta egiteko eskatzen diona, euskararen transmisioan ikastetxearen eta irakasleen rola eraldatzeko.

Proiektu pilotu gisa ezarriko dira esperientziatik ikasteko, jardunbide egokien ebidentziak sortzeko eta eragin tasatuko lan-ildo bat sistematizatu ahal izateko. Horretarako, gure sistemako unibertsitate-taldeen lankidetza eta gainbegiratze-lana izango dugu.

ELEANIZTASUNERANTZ

2021-2022 ikasturtean, gure ikasleen euskarako komunikazio-praktika hobetzen jarri dugu arreta, baina, era berean, ikastetxeentzako aholkularitza-programa propioa diseinatu dugu atzerriko hizkuntzaren arloan, ikasleen hizkuntza-trebetasunak modu sistematikoan, koordinatuan eta planifikatuan garatzeko, hizkuntza guztietan ikasteko, esparru eleaniztunean. Horretarako, atzerriko hizkuntzen irakasleentzako prestakuntza integrala bultzatuko dugu, aholkularitza-eredu eguneratu zeharkakoago eta ikuspegi globaleko batekin.

Eleaniztasunerantz deialdian parte hartzen duten ikastetxeengan arreta berezia jartzea da helburu nagusietako bat.

Deialdiko A modalitatean parte hartzen duten ikastetxeei dagokienez, eskualdeetako berritzeguneek aurkeztzen diren proiektuen jarraipena egingo dute, eta ikastetxe horietatik jasotzen dituzten prestakuntza-beharrei erantzungo diete.

Deialdiko B modalitatean parte hartzen duten ikastetxeei dagokienez, atzerriko hizkuntzako aholkulari talde bat egongo da, Berritzegune Nagusiak koordinatuta. Talde hori arduratuko da deialdian parte hartzen duten ikastetxe guztien prestakuntza antolatzeaz eta dinamizatzeaz, eta aurkeztutako proiektuen jarraipena eta balorazioa egingo du. Era berean,



deialdian ez egon arren arlo edo ikasgai bat atzerriko hizkuntzan ematen ari diren ikastetxeei ere zabalduko zaie eskaintza.

Horrek esan nahi du talde dinamizatzailerak zentralizatutako prestakuntza-saio presentzial bat antolatuko duela ikastetxeentzat ikasturte hasieran. Saio horretan, hileroko prestakuntzarako oinarriak jarriko dira, hainbat formatu txandakatuta, eskolak atzerriko hizkuntzan ematen dituzten irakasleentzat. Gainera, interesa duten klaustroentzako prestakuntza-saioak aurreikusten dira, eta, prestakuntzaz gainera, ikastetxearen hizkuntza-proiektu eleaniztunen jarraipena egingo da. Jarraipen horrek azken ebaluaziora eramango du, deialdi honetan ezarrita dagoenez.

1.3.- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP)

Zuzendaritza-taldea arduratzen da ikastetxearen urteko planaren prestaketa koordinatzeaz. Plan hori onartzea Ordezkaritza Organo Gorenari dagokio, bazter utzi gabe Euskal Eskola Publikoaren Legeak klaustroari irakaskuntza-jardueren programarekiko esleitzen dizkion eskumenak.

Ikastetxeek 2021-2022 ikasturterako IUPa egingo dute ikasturtearen hasieran, ikastetxeko jarduerak planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko tresna gisa, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko dute **urriaren 29a** baino lehen, Irakaslegunearen bidez.

IUP labor eta zehatz egingo da, ikastetxearentzat berarentzat erabilgarria eta praktikoa izan dadin, Hezkuntza Sailaren webgunean aurki daitekeen gidaren gomendioei jarraituz.

Ikasturte hau planifikatzeko lehentasunezko esparruei dagokienez, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia**
- **Hezkuntza-lidergoa**
- **Konpetentzia digitala**
- **Bizikasi ekimenaren esparruan, arlo emozionalari heltzea**

Hezkuntza-jarduera osoa zein esparru inklusibotan garatzen den kontuan hartuta, ezinbestekoa da beste batzuetan baino xehetasun handiagoz jakitea ikasle bakoitzak konpetentziak zein neurritaraino lortzen dituen, baita konpetentzia horiek lortzeko zein **laguntza edo errefortzu behar** dituen ere.

Halaber, berrikusi beharko dira pandemia-garaian ikasleekin edo haien familiekin hainbat arazorengatik komunikazio egokirik lortu ez delako bereziki konplexuak izan diren egoerak. Beharrezkoa izango da datu horiek izatea eta **erantzuteko formula zehatzak aurreikustea, osasun-larrialdiko egoera posible bati begira**. Alde horretatik, **material digitalak prestatzea eta erabiltzea lehentasuna da, eta horren gainean hartu behar dira Urteko Planean jasoko diren erabakiak**.



Ikastetxe bakoitzak atal espezifiko bat izango du bere Urteko Planean, *ikastetxeek COVID-19aren aurrean jarduteko estrategiak* planifikatzeko, hezkuntza-jarduera garatzeko neurriak hartzea ekarriko duen berragerraldi bat gerta daitekeelakoan.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen arabera, urteko planak ondoren adierazten diren atalak jaso behar ditu, gutxienez. Hala ere, hura egiteko, Ikastetxearen urteko plana egiteko gida erabiltzea gomendatzen da.

a) Irakaskuntza-jardueren programa

Klaustroari edo, hala badagokio, horrek eskuordetu dezakeen batzorde bati dagokio programa hau prestatzea.

Irakaskuntza-jardueren programan jasotzen dira ikasturtean zehar ikastetxea eta eskola-jarduera antolatzeak hartzen diren erabakiak, barneko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak kontuan hartuta. Horretarako, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

1. Diagnostiko-ebaluazioaren edo kanpoko beste ebaluazio batzuen emaitzak eta barne-ebaluazioaren emaitzak aztertu ondoren hartutako hobekuntza-proposamenak. 2021-2022 ikasturterako hobekuntza-helburuak zehaztuko dira, eta irakurmena eta mintzamina lehenetsiko dira.
2. Honako hauetatik eratorritako helburuak eta ekintzak: IHPa, Bizikidetza Plana (ikastetxeak Bizikasi ekimena ezartzeko eta berdintasunean eta genero-indarkeriaren prebentzioan aurrera egiteko egingo dituen jarduerak barne), Hizkuntza Proiektua (Irakurketa Plana lehenetsita), Aniztasunaren Arretarako Plana eta Zuzendaritza Proiektua (balego).
3. Ikastetxeak parte hartzen duen Hezkuntza Sailaren esperientzia eta programen helburuak eta ekintzak jasoko dira, baita ikastetxeak ikasturtean zehar gauzatuko dituen beste proiektu batzuenak ere, bereziki Hezkuntza Sailak edo EAEko edo Estatuko edo Europar Batasuneko beste sail eta erakunde batzuek onartutakoak. Era berean, egindako proiektuaren ebaluazioa egiteko bidea emango duten prozedurak eta lorpen-mailaren adierazleak finkatuko dira. Ebaluazio horren emaitzak 2021-2022 ikasturteko memoriara eramango dira.
4. Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeen kasuan, enplegurako prestakuntza-jardueren programa ere jasoko da.

Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI) edo "COVID baliabideak" izenekoak aplikatzearen ondorioz baliabide gehigarriak lortu dituzten ikastetxeetako zuzendaritzek atal bat sartu beharko dute ikastetxearen urteko planean, baliabide horien helburua eta eginkizunak azaltzeko, kontuan hartuta proposatutako helburua dela eskola-emaitzak hobetzea. Ondorioz, baliabide gehigarri horiek, lehentasunez, zuzeneko irakaskuntzako jardueretara bideratu beharko dira, dela hezkuntza-banaketak edo -errefortzuak ezarrita, dela ikasgelan bigarren irakasle bat sartuta, dela arreta behar duten ikasleei arreta indibidualizatua emanda.

Irakaskuntza-jardueren programak lehentasun gisa jaso beharko ditu 2020-2021 ikasturtean konpetentzia bakoitzean erdietsitako lorpen-mailari buruzko analisiarekin lotutako



helburuak eta jarduerak, eta konpetentzia horien funtsezko elementuetan jarri beharko du arreta.

Era berean, ikasleak ebaluatzeko askotariko estrategiak aurreikusi beharko dira, ikasleen etengabeko ebaluazioan eta prestakuntzan sakondu ahal izateko. Irailean zehar, hasierako ebaluazioa egin beharko da. Horretarako, oinarri hartuko da ikasle bakoitzaren abiapuntuko egoera ikasturte berrirako eskatutako funtsezko alderdiekiko.

Lortutako informaziotik abiatuta, laguntza- eta erreformazko-jarduerak antolatu beharko dira mailaz igo arren ikasturte berrirako aurreikusitako programazioari dagokionez zailtasun espezifikokoak dituzten ikasleentzat.

Jarraibide eta orientabide metodologikoei dagokienez, ikasleak inplikatu behar dira informazioa bilatzeko, gogoeta egiteko, eta ezagutza aplikatu eta komunikatzeko prozesuetan. Ziurgabetasun-egoeretan eta aldaketa-prozesuetan ikastea oinarritzko konpetentziak garatzeko baldintza da, eta, kasu honetan, ikasten ikaste konpetentzia garatzeko aukera berezia. Ikasleen arteko interakzioa edo lana barne hartu eta haien autonomia sustatuko duten proposamenak bultzatuko dira. Era berean, erlazio-testuinguru malguak ezartzea eta sormenezko proposamenak egitea gomendatzen da, konpetentzia komunikatibo eta digitalen sarea hobetzeko. Ikasgelan baliabide teknologikoak erabiltzeak ikaskuntza hobetzea ekar dezake, bakoitzaren erritmora hobeto egokitzea ahalbidetzen baitu.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da **segidako mailetako irakasle-taldearen arteko koordinazioa** (batez ere, etapa edo ikastetxea aldatu bada), programazioen diseinua ikasleen beharrekin koherentea izan dadin.

Pandemia honek agerian utzi du gure ikasleen **esparru emozionalean** arreta berezia jarri behar dela, bereziki kontuan izanda tutoretza-laguntza, autonomia pertsonalerako konpetentzia garatzea eta ikasten ikastea, baita inklusibitatea eta aniztasunaren tratamendua ere.

b) Prestakuntza-plana

IUParen zati hau egitea zuzendaritza-taldeari edo batzorde pedagogikoari dagokio, eta Ordezkaritza Organo Gorenak onartu behar du.

Plan horrek barruko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak eta proposatutako hobekuntza-helburuak aztertu ondoren antzemandako beharrei erantzun die, eta egingo diren prestakuntza-ekintzak eta horien plangintza jasoko ditu, ERASMUS+ programako KA1 ekintzaren barruan Europar Batasunak finantzatutakoak barne (parte-hartzaileak, arduradunak, datak eta ordutegia).

Gainera, lehen ere aipatu da ikasturte berri honi begira ikastetxe guztietan ezinbestekoak diren eta, horrenbestez, irakasleen prestakuntza antolatzeko ere lehentasunezkoak diren esparru batzuk lehenetsiko direla:



○ Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA. IRALE

Berritasun gisa, 2021-2022 ikasturtean berriz ere hasten da IRALEko hizkuntza-zentroen jarduera, pandemiaren ondorioz eten egin baitzen. HE2, C1 edo horien baliokidea egiaztatuta duten eta euskararen ezagutza sakondu nahi duten irakasleei zuzendutako hizkuntza-prestakuntzari berrekin zaio, baita euskaraz irakasteko gaikuntzarekin lotutako beste alderdi batzuei ere.

IRALEko ikastetxeen prestakuntza-eskaintza aberastu egin da ikasleen ikaskuntza konprometitu eta arduratsua sustatzen duen proposamen batekin. Ikastaro honetan 4 prestakuntza mota emango dira, eta bakoitzean berritasunak izango dira, azaldutako ildotik: R300, R400, R600 eta R900². Parte-hartzaile bakoitzaren helburu indibidualak lortzeko arreta areagotu egiten da eta, bereziki, ezagutza ikastetxera transferitzea sustatzen da, ikastetxeko hizkuntza- eta hezkuntza-proiektuan eragina izango duten proiektuen bidez. Berrikuntza gisa, prestakuntza zehar, normalizazio-programako aholkulariek topaketak egingo dituzte ikasleekin eta dagokion ikastetxearekin, ikastaro horietan parte hartu ondoren ezarri nahi duten proiektuaren irismena aztertzeko. Halaber, ikastaroa amaitu eta gero, ondorengo inplementazio-prozesuan lagunduko da, programaren arrakasta bermatzeko jarraipen egokia eginda.

○ Hezkuntza-lidergoa

Proposatzen den ereduak ikastetxeen ahalduzko-esparru propioa izango du, eta ikastetxearen autonomia-proposamenetan ardaztuko da, funtsezko hiru helburu hauekin:

- Beren ikastetxeetan eraldaketa sustatzeko gai izango diren zuzendaritza-talde kohesionatuak eratzea.
- Ikasgelan lidergo didaktikoa baliatuko duten irakasleen prestakuntza eraginkorra lortzea.
- Ahalik eta gehien garatzea ikasle bakoitzaren eta ikasle guztien ahalmenak, konpetentzietan oinarrituta.

Zuzendaritzako prestakuntzari dagokionez, zuzendaritza-taldeko lidergoa arrakastarako faktore erabakigarria izango da. Zuzendaritzen ahalduzkoak lankidetzara sustatu nahi du eskola-komunitatearen barruan eta hortik haratago, eta, era berean, zuzenean eragingo du irakasle

² R300: Euskarazko komunikazio-kompetentzia indartzeko ikastaroa, irakasleei eta hezitzaileei zuzendua. / R400: Euskarazko material didaktikoak egiteko prestakuntza-ikastaroa. / R600: Curriculumaren euskal dimentsioa irakaskuntza-arloetan lantzeko ikastaroa. / R900: Euskarazko ahozko komunikazioa irakaskuntza-jardueran.



taldeen garapen eta hazkunde pertsonalean eta profesionalean. Helburua argia da: ikasle guztien arrakasta eta komunitate osoaren ikaskuntza-kultura bultzatzea.

Horretarako, 2021-2022 ikasturtean hasierako eta etengabeko prestakuntza eskainiko dugu. Hasierako prestakuntzari dagokionez, modulu espezializatuak eskainiko ditugu astebeteko murgiltze-formatuan, lauhileko bakoitzean. Etengabeko prestakuntza ikaskuntza-prozesu iraunkorrean oinarrituko da. Berritasuna da pilotaje bat egingo dela ezaugarri desberdinak dituzten hautatutako ikastetxeekin. Hala, azterlan sistematikoago bat egingo da, lidergorako gakoan inguruan lan egiteko. Hortik ateratako ondorioek ikaskuntza-transferentzia bat egiteko aukera emango digute, etorkizuneko proposamenak hobetzeko eta etengabeko hobekuntzak areagotzeko.

○ **Konpetentzia digitala**

Gaitasun digitalaren esparruan, digitalizazioaren hezkuntza-erronkei erantzuteko, Hezkuntza Sailak 2021-2022 ikasturte honetatik aurrera Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana hedatzea bultzatuko du. Unibertsitatez kanpoko hezkuntzarako Digitalizazio Plana kontrastatu egin da hainbat kolektiborekin egindako bilera presentzialen bidez eta ikastetxe publikoetako zuzendaritza guztiei bidalitako inkesta baten bidez, eta erantzun-maila handia izan du (170 erantzun, hau da, kontsultatutako ikastetxeen % 37). Ikasturte berrian aurkeztuko den planean, sozializazio-kanpaina baten bidez ekarpen nagusiak jaso dira. Izan ere, plan hau guztiona da, eta helburu du ikastetxe guztiei eta hezkuntza-komunitate osoari laguntzea beren agendan ikaskuntza-prozesuen digitalizazioa lehentasunez kokatzen.

Lehenik eta behin, lidergo digitalean jarri dugu arreta nagusia, ikastetxe bakoitzak digitalizazio-plana garatzeko tresnak ezagutu ditzan. Zuzendaritzentzako prestakuntzan, hezkuntza-lidergoaren esparruan, digitalizazioa landuko da ikaskuntza-prozesuak eraldatzeko palanka gisa. Ildo horretan, 2021-2022 ikasturte honetan sartuko diren zuzendaritza berriei [DigCompEdu](#) Europako esparruari buruzko lehen prestakuntza eskaini zaie. Hain zuzen, gure prestakuntza-eskaintzaren ardatz izango da esparru hori.

Helburua da ikaskuntza-esperientzia esanguratsuak sustatzea, ikasleak esperientzien hartzaile izateaz gain, euren ikaskuntza-prozesuaren sortzaile ere izan daitezen. Horretarako, irakasleak dira hezkuntza hobetzeko ardatz nagusia. Haien jardunak zuzenean eragiten dio ikasleen errendimenduari. Horregatik, funtsezkoa da metodologia berritzaile eta aktiboiei buruzko prestakuntza ematea. Irakasleen behar eta itxaropenen arabera prestakuntza-ibilbidea egiteko, zuzendaritzekin bezala, irakasleekin kontrasteak egin ditugu prestakuntza-beharrak identifikatzeko eta prestakuntza-kategoria eta -ibilbide bereziak ezartzeko. Horretarako, besteak beste, haien prestakuntza-beharrei buruzko inkesta bat egin dugu.

Irakasleen erantzunek babestu egin dute Hezkuntza Sailburuordetzak prestakuntza digitalaren definizio teknopedagogikoa egiteko hartutako lan-ildoak, Digi_Prest izenekoa. Prestakuntza horren muina 2021-2022 ikasturteko lehen hiruhilekoan zehar hedatuko da. Lehen prestakuntzek irakaskuntzako konpetentzia digital nagusiei erantzungo diete. Horien



artearen daude, besteak beste: oinarritzako prestakuntza bat, DigCompEdu Europako esparruaren arabera irakasleen konpetentzia digitalen inguruan sentsibilizatzeko; konpetentzien ebaluazioa; zibersegurtasuna eta ziberbizikidetzaren metodologia aktiboak; ikus-entzunezko baliabideak; eta ikaskuntzarako diseinu unibertsala. Hain zuzen ere, azken prestakuntza hori funtsezkoa da, digitalizazioak egin dezakeen ekarpenik handiena baita ikasleen askotariko beharrak detektatzeko eta horietara egokitzeko gaitasuna.

Ilde horretan, ezinbestekoa da materialak eta plataformak diseinatzea eta ekoiztea, eredu pedagogiko digital aurreratua bultzatzeko. Horregatik, ikasleentzako euskarazko eduki digitalak sortzea sustatuko da, konpetentzia-ikuspegi inklusibo eta irekiarekin, eta, aldi berean, [Amarauna](#) eta [Eima katalogoa](#) ingurune birtualak sustatuko dira (besteak beste), material digitalak eta jardunbide egokiak partekatze eta trukatzeko.

Hezkuntza Sailburuordetzatik ikastetxeko Estrategia Digitalaren garapena sustatu nahi dugu. Ikastetxe publikoen % 95ek dagoeneko egin dute heldutasun teknologikoaren ereduari buruzko ebaluazioa. Hala ere, egungo eredu berrikusi egingo da, Konpetentzia Digitala duten Hezkuntza Erakundeentzako Europako Esparrura ([DigComprOrg](#)) egokitzeko.

Ikasturtean zehar, horri buruzko prestakuntza eta ikastetxeko Digitalizazio Plana egiteko jarraibideak emango dira, digitalizazio-aholkularitzen bidez, hainbat formatutan, modu presentzialean eta online. Horrekin batera, zuzendaritzentzako eta irakasleentzako berariazko prestakuntza emango da berritzeguneetako aholkularien bidez. Era berean, lan hori erraztearren, Sailak 2021-2022 ikasturteko lehen hiruhilekoan Ikastetxea Digitalizatzeko Plana egiteko Gida jarriko du hezkuntza-komunitatearen eskura. Plan hori hurrengo bi ikasturteetan onartuta egotea da helburua.

Ikasturtearen hasieran, zonako berritzeguneek esku-hartze trinkoa egingo dute oinarritzako maila eta premia espezifikoak dituzten ikastetxeetan, eta zuzendaritza-taldearekin batera beharrezko prestakuntza antolatuko dute. Zeregin horretan aholkulari guztiak daude inplikaturik.

Neurri horiek hedatzeak planteatzen du hurrengo bi ikasturteetan horizontean (2022-2023 ikasturtearen amaierarako) ikastetxe guztiek Plan Digitala egiaztatu ahal izatea, batetik, eta, bestetik, irakasleen batez besteko trebakuntza digitala ziurtatu ahal izatea. Horretarako, 2021-2022 ikasturteko bigarren sei hilekoan irakasleei irakasteko konpetentzia digitala aitortzeko eredu bat zabalduko da.

Ikastetxeei zuzendutako estrategia horretan, oso kontuan hartuko da hezkuntza-komunitate osoa, familiak ere barne direla. 2021-2022 ikasturteko bigarren hiruhilekoan, zibersegurtasunaren eta ziberbizikidetzaren inguruko prestakuntza irekia eskainiko zaio hezkuntza-komunitate osoari, segurtasun digitalari buruzko prestakuntza- eta ezagutza-maila handitzeko. Era berean, berritzeguneek ikastetxeei laguntza eskaintzen jarraituko dute, familiei konpetentzia digitalean prestakuntza antolatzeko, zuzendaritzek hala erabakiz gero.



○ **Bizikasi ekimenaren esparruan, arlo emozionalari heltzea**

Arlo honen barruan, COVID-19 pandemiaren irteeran zailtasun sozioemozionalei aurre egiteko prestakuntza eskainiko da.

2021-2022 ikasturtean hainbat jardun egingo dira irakasleei eta hezkuntzako gainerako profesionalei ikasleentzako ekintzak zehazten laguntzeko, Covid-19 pandemiaren irteeran gizarte- eta osasun-testuinguru berriaren aurrean hurbileko eta kalitatezko laguntza emateko.

Ikastetxeetan dagoeneko ikusten hasiak dira eragin afektibo eta emozional batzuk ikasleengan, eta hezkuntza-erantzun programatua eta sendoa ematen jarraitzea eskatzen du horrek.

Ongizate pertsonala, elkartasuna, elkarrekiko zaintza eta osasun mentala sustatzeko, ikasturteari hasiera emango diogu online prestakuntza-jarduera honekin:

- Covid-19 pandemiatik irteteko konpetentzia sozioemozionalak garatzea.
- Hizlaria: Arantza Fernández Rivas, Bilboko Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko (BUO) Haur eta Gazteen Psikiatriako atalburua.
- Iraupena: 20 ordu. 2 orduko 10 saio, 15:30etik 17:30era. Datak. Iraila: 13, 15, 22, 27, 29. Urria: 4, 6, 13, 20, 25.

Jarduera hau honako hauei zuzenduta dago:

- BAT taldeak.
- Beste batzuk: irakasle tutore orokorreari eta pedagogia terapeutikoko irakasleei ere irekita dago.

Irailako lehen astean, ikastetxeetako zuzendaritzeari gutun bat bidaliko zaie, izena emateko prozedura azaltzeko.

Jarduera hori egin eta profesionalen pertzepzioa, bizipena eta ikuspuntua jaso ondoren, jarduera berriak antolatuko dira ikasturteko hurrengo bi hiruhilekoetarako.

b) Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programa

Jarduera osagarriak

Jarduera osagarriak antolatzeko, kontuan hartuko da ikastetxeetan Covid-19 kasuak agertzen direnean jarduteko protokolo orokorrean adierazitako guztia. Beraz, beharrezkoa da aurreikusitako jarduerak programatzea, baldin eta osasun-agintariak proposatutako neurriak bermatzen badira ikasturtean zehar aurki dezakegun edozein egoeratan, eta gomendatzen da arreta berezia jartzea hartuko diren erabakietan. Hain zuzen, erabakiak hartzean, familien parte-hartzea eta lankidetzak lortu behar da betiere.



Helburuak, inplikaturako ikasle eta irakasleak, eta egiteko eguna, ordua eta lekua zehaztuko dira. Erregistro horrek Ordezkaritza Organo Gorenaren eta Ikuskaritzaren eskura egon beharko du ikastetxean.

Ikastetxe batek jarduera osagarriak edo eskolaz kanpokoak planifikatzen dituenean, ikasle guztiak hartu behar ditu kontuan. Guztiek dute jarduera horietan parte hartzeko eskubidea. Beraz, aldez aurretik aurreikusi beharko da hori eta, ikastetxearen baliabide propioak kontuan hartuta (irakaskuntzako eta hezkuntzako bertako profesional guztiak), egokienak aukeratu beharko dira, inor ez dadin jarduera horietatik kanpo utzi.

Zuzendaritzak, edo hark eskuordetzen duen pertsonak, etengabe eguneratuko du ikasleek eskola-orduetan egiten dituzten irteeren erregistroa, ikastetxean edo ikastetxetik kanpo egiten diren eskolaz kanpoko jardueren erregistroaz gainera, eta helburuak, inplikaturako ikasleak eta irakasleak zehaztuko ditu, baita zein data, ordu eta lekutan egingo diren ere. Erregistro horrek Ordezkaritza Organo Gorenaren eta Ikuskaritzaren eskura egon beharko du ikastetxean.

Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak Urteko Plan honetan sartu beharko dira, eta, ez badaude, Ordezkaritza Organo Gorenak aldez aurretik onartu beharko ditu eta Plan honetan sartu beharko dira.

Jarduera osagarriak lotesleak dira ikasleentzat eta irakasleentzat, eta eskola-orduetan txertatzen dira, osorik edo zati batean.

Kontuan hartu beharko da ikastetxetik kanpo egiten diren jardueretan gurasoen edo tutoreen baimena beharko dela. Gainera, joan-etorriak jasagarritasun-irizpideen arabera programatu behar dira.

Helburuak, inplikaturako ikasle eta irakasleak, eta egiteko eguna, ordua eta lekua zehaztuko dira. Erregistro horrek Ordezkaritza Organo Gorenaren eta Ikuskaritzaren eskura egon beharko du ikastetxean.

Eskolaz kanpoko jarduerak hizkuntza sendotzeko iturri direnez, euskararen erabilera sustatu beharko dute, eta ikastetxearen hizkuntza-proiektuan sartu behar dira.

Jarduera osagarriak dira:

- Egonaldiak barnetegi-erregimenean.
- Ikastetxeko festa-jarduerak.
- Hezkuntza-kanpaina bereziak.
- Ikasgelatik kanpoko jarduerak: bisitak, landa-lanak...
- Irteerak, ikasturte amaierako bidaiak, trukeak...

Ikasle batek irteeran parte hartzen ez badu, ikastetxean behar bezala artatu beharko da eskola-egun osoan.



Ikastetxetik kanpo egiten den edozein jarduera osagarritan, ikasleek gutxienez bi profesional izan beharko dituzte alboan betiere, eta horietako bat, behinik behin, ikasleen taldeko irakasle bat izango da. Hala badagokio, hezkuntza-laguntzako espezialistak ere egongo dira. Bestalde, gutxienez irakasle laguntzaile bat izango da 20 ikasleko edo 10etik gorako frakzioko, eta lehen adierazitako gutxieneko kopurua errespetatuko da betiere. Ahal den neurrian, jarduera horretan parte hartzen du(t)en talde(eta)ko irakasle taldea egongo da.

Ikastetxetik kanpo gaua ematea barne hartzen duten irteera mota horietarako, Hezkuntza Sailak, Osasun Sailarekin batera, koronabirusaren aurrean jarduteko protokolo bat prestatu du, eta kontuan hartu beharko da. Protokolo hori hizkuntza finkatzeko programen aterpetxeetarako (Euskal Girotzen Barnetegia) eta Urdaibai zentroko ingurumen-hezkuntzarako egin da. Izan ere, horiek pandemiaren ondoren berriro ireki dituzte ateak.

Jarduera osagarriak ikastetxea dagoen herritik kanpo egiten badira eta irakasleek bertan eman behar badute gaua, zuzendaritzak, Klaustroak proposatuta eta Ordezkaritza Organo Gorenak onartu ondoren, horrek zehaztutako ordu-konpentsazioa egin ahal izango du. Ikastetxea arduratuko da, bere barne-antolaketaren bidez, ordu horiek ordezkatzear.

Eskolaz kanpoko jarduerak

Irakaskuntza-dedikaziotik kanpo egiten dira, eta borondatezkoak dira. Jarduera horien plangintzan helburuak, taldeak, arduradunak, eta egiteko unea eta lekua zehaztuko dira, *ikastetxeetan COVID-19 kasuak agertzen direnean jarduteko protokolo orokorrean* ezarritako irizpideei jarraituz. Alderdi edo ondorio ekonomikoak urteko kudeaketa-programan jaso beharko dira.

Irakurketa ludikoarekin, kohesio sozialarekin eta steam jarduerekin lotutako eskolaz kanpoko jarduerak antola daitezen bultzatzea gomendatzen da. Jarduera horien artean daude lantegi zientifikoak, eguneroko bizitzari aplikatutako matematika, robotika... Horietan guztietan eta, bereziki, STEAMaren esparruko jardueretan, generoaren alderdia kontuan hartuko da, neska eta mutilen artean bokazio zientifiko-teknikoak sustatzeko.

Era berean, aurretik adierazi bezala, eskolaz kanpoko jarduera horiek eragin handia dute euskarazko hizkuntza-komunikazioaren hobekuntzan, eta eragina dute, halaber, ikasleek hizkuntza horrekiko duten atxikimenduan eta motibazioan. Horregatik, lehentasunezkoa da jarduera horietan euskara erabil dadin sustatzea.

Era berean, balio hauek indartuko dira: errespetua, bizikidetza positiboa eta inklusioa, hau da, ikasle guztiek jarduera horietan parte hartzea eta sarbidea izatea.

d) Urteko kudeaketa-programa

Uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan xedatutakoaren arabera egin beharko da (EHAA, 1998-09-14koa eta 1998-09-23koa). Zuzendaritza-taldeari edo Batzorde Iraunkorrari dagokio urteko planaren zati hori prestatzea, Ordezkaritza Organo Gorenak onar dezan.

e) Ikastetxeek COVID-19aren aurrean jarduteko estrategiak



Urteko Planeko atal honek erantzun egiten dio **2021/22 ikasturtean ikastetxeetan Covid-19 kasuak agertuz gero jarduteko protokolo orokorrean** jasotako proposamenari: *Ikastetxe bakoitzak, protokolo orokor honetan ezarritako arauak eta osasun-agintaritzak unean-unean eman ditzakeen aholkuei jarraituz, horietara egokitu beharko du bere jardunean, eta horretarako, Ikastetxearen Urteko Planean, Kontingentzia Plana jasoko duen atal bat ezarriko du. Plan horretan zehaztu eta jasoko dira protokolo orokor honen ondoriozko esparruak, prebentzio- eta higie-neurriak, eta transmisio-egoera aldatuz gero egin beharreko jarduketak, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak emandako jarraibideen arabera (Laneko arriskuen prebentziorako neurriak COVID-19aren aurrean).*

1.4.- URTEKO MEMORIA

Zuzendaritza-taldea memoriaren prestaketa koordinatzeaz arduratzen da. IUParen betetze-mailari eta lortutako eskola-eraketari buruzko analisia oinarri hartuta, baita diagnostiko-ebaluazioaren edo kanpoko beste ebaluazio batzuen eraketari buruzko analisia ere, ikastetxe bakoitzak bere autoebaluazioa egingo du, ondorioak aterako ditu eta hurrengo ikasturterako jardura hobetzeko proposamenak egingo ditu. Lehentasunak ezarriko ditu, eta horiek, era berean, hurrengo IUPean lortu beharreko helburutzat hartuko dira. Memoriak ikastetxearen ikuspegi orokorra eta bateratua jaso beharko du.

Ordezkaritza Organo Gorenak onartu beharko du memoria. Ikastetxeek hurrengo irailaren 17a baino lehen jarriko dute Hezkuntza Ikuskaritzaren esku, Irakasgunearen bidez.

Modu labur eta zehatzean egingo da, ikastetxearentzat berarentzat praktikoa izan dadin, Hezkuntza Sailaren webgunean aurki daitekeen gidaren gomendioei jarraituz.

1.5.- IRAUNKORTASUN-IRIZPIDEAK

2020ko Europako Estrategiarekin eta 2020-2030eko Garapen Jasangarriko Euskal Ingurumen Estrategiarekin bat etorritik, ikastetxeek modu sistematikoan sartu behar dituzte jasangarritasun-irizpideak eta eskola-bizitzan baliabideen kontsumoa kontrolatzeko eta murrizteko neurriak.

Ilde horretan, beharrezkoa da ikastetxeek jasangarritasunerako konpromiso propioak zehaztea, bai euren Curriculum Proiektuari dagokionez, bai kudeaketa eta partaidetza komunitarioko jardunbideei dagokienez. Horrek berekin dakar, halaber, jasangarritasunaren aldeko helburuak eta jarduerak sartzeko hezkuntza-antolaketako dokumentuetan (IHP, ICP, AJA, IUP...).

Horretarako, Ingurumen Hezkuntzaren Ingurugela zerbitzuaren laguntza dute.



1.6.- BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorritik, ikastetxeek pertsonaren garapen integrarean oinarritutako hezkuntza-eredua landu behar dute, sexuaren araberrako estereotipoak eta rolak alde batera utzita, diskriminazio mota oro baztertuta eta generoak alboratu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatuta. Eredu horrek, orobat, genero-indarkeriaren prebentzioan ere oinarritu behar du, indarkeria hori ulertuta erroan sexismoa duen indarkeria mota oro.

Ildo horretatik, beharrezkoa da ikastetxeek berdintasunarekiko konpromisoak zehaztea hezkuntza-politikei, -kulturei eta -jardunbideei dagokienez. Horrek berekin dakar berdintasunaren aldeko eta genero-indarkeriaren prebentzioaren aldeko helburuak eta jarduerak sartzea hezkuntza-antolaketako dokumentuetan (IHP, ICP, AJA, Bizikidetzaren Plana...).

Ikastetxeek hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentzioko proiektuak egingo dituzte, eta arlo guztien curriculum-diseinuan eta -garapenean txertatuko dituzte aipatutako Legean jasotako hezkidetzako helburuak, baita plan honetan bildutakoak ere: [“EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzaren Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean \(2021-2023\)”](#).

Plan guztia hezkidetzaren zortzi zutabetan oinarritzen da, eta EAEko ikastetxe guztietako ikasgeletan benetako praktika elikatuko dute:

1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean.
2. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.
3. Emakumeen jakituriaren barneratzea eta haien ekarpen sozial eta historikoa.
4. Gatazken eraldaketa baketsua, hezkidetzako bizikidetzaren proiektuen bidez.
5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.
6. Espazioak ikastetxean eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduerak osagarriak.
7. Berdintasunean oinarritutako afektibo eta sexuala.
8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku-hartzea.

Ikastetxeek, 2021-2022 ikasturtean eta hurrengoetan, jardun hauek gauzatu beharko dituzte:

- Klaustroan hezkidetzaren arduradun bat izendatuta edukitzea, pertsona hori BAT taldean (Bizikidetzaren Plana) sartuko dela bermatuta
- Ordezkaritza Organo Gorenean hezkidetzaren arduradun bat izendatuta edukitzea.
- Ikastetxeetako bizikidetzaren behatokiari ikastetxeak egiten duen hezkidetzaren lanarekin lotutako eginkizunak gehitzea.
- Ikastetxearen Hezkidetzaren Plana lantzea edo berritzea, balego.
- Tutoretza- eta orientazio-planetan genero-ikuspegia txertatzea, hezkidetzaren euskarrietan oinarrituta.
- Eskolaz kanpoko jarduerak genero-ikuspegiarekin eskaini eta egin daitezkeen sustatzea.
- 2021-2022 ikasturterako hautatutako ikastetxeek hezkidetzaren zortzi euskarriekin eta horiek ikasgelan garatzearekin lotutako prestakuntza jasoko dute.



Hezkuntza Sailak bere aldetik ere 2021-22ko ikasturterako hainbat konpromiso ere hartu ditu:

- Hezkidetza II. Planaren ekimenen inguruko informazioa eta baliabideak, egin ahala, *Hezkidetzagunean* ikastetxeek eskura izatea, besteak beste irakasleekin zein ikasleekin, hezkidetza zutabeak lantzeko materialak, 2021ko bukaeran zutabe guztiak egonik.
- Ikastetxeek aukera izatea Emakundek eskaintzen dituen Nahiko eta Berdur barik ekimenenetan parte hartzeko eta horrela beren proiektuak aberastu.
- Hezkidetza eta Elkarbizitza mintegiak zonalde ezberdinetan antolatzea prestakuntza eta aholkularitza eskainiz.
- Hezkidetza zutabeak programazioetan sartzeko jarraibideak ikastetxeei helaraztea.
- Indarkeria matxistaren, sexu-indarkeria barne, biktima diren emakumei ikastetxean arreta emateko jarraibideak eskaintzea.
- Berritzegune Nagusiak hiruhilabeteen behin Berdintasunean oinarritutako heziketa afektiboa eta sexualaren inguruko prestakuntza eskaintzea.
- Sexu eta genero aniztasunaren inguruan prestakuntza eta aholkularitza ikastetxeei emateko Berdindu zerbitzuak eskaintzea.

1.7- BIZIKASI EKIMENA

2017-18 ikasturtean hasi zenetik, Bizikasi hainbat esparrutan ezarri da, eta arian-arian ikastetxeen zereginetan oinarritzen joan da, eskola-jazarpenari ikuspegi sistemiko eta integral batetik erantzuteko, betiere bizikidetza positiboa hobetzera eta ikasleengan gaitasun prosozialak gara daitezen bultzatzera bideratuta. Ekimena bideratuta dago jazarpen-kasu posibleak goiz detektatuz prebenitzera eta, beharrezkoa izanez gero, harreman kaltetuak lehengoratzera.

Hezkuntza Sailak, berritzeguneen bidez, ikastetxeei aholkularitza eta behar dituzten material didaktikoak emango dizkie ekimen hau garatzeko. Ekimen hau, hain zuzen, lehentasunezko lan-helburutzat hartzen da Ikastetxeko Bizikidetza Planaren barruan. Hezkuntza Ikuskaritzak gainbegiratu du prozesu osoa, eta esku hartzeko protokoloari buruzko aholkuak eta orientabideak emango dizkie ikastetxeei.

2021-22 ikasturtean, honako jardun hauei emango zaie lehentasuna:

- BAT taldea indartzea, erreferentziazko egitura baita ikastetxean gertatzen diren eskola-jazarpeneko kasuak ebazteko prozesua koordinatzeko eta ekimena garatzean egiten diren esku-hartzeetarako. Hori lortzeko, bi ardatz hauetan jardungo da:

1. BAT taldearen funtzionamendu-egiturak finkatzea:

- BAT taldeak koordinatzaile bat izendatuko du —taldearen konfigurazioa Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko urriaren 11ko Ebazpenean jasota dago—. Taldearen lanari jarraipena



emateko, ikastetxeko zuzendaritzak behin betiko plaza duen edo ikastetxean egonkortasuna duen irakasle bat aukeratuko du.

- Ikastetxeko ordutegian asteko denbora bat finkatuko da taldekideak koordinatzeko.

2. BAT taldearen lanean sakontzea, Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko urriaren 11ko Ebazpenean zehazten diren eginkizunetatik abiatuta:

- Etengabeko prestakuntza-prozesuaren barruan, Bizikasi ekimenetik eskaintzen diren prestakuntza-proposamenetan parte hartzea.
 - Hezkuntzako pertsonal ez-irakasleari eta familiei zuzendutako prestakuntza bere gain hartzea.
- 2021-22 IUPea sartzeari Bizikasi ekimena garatzearekin lotutako helburuak eta jarduerak, Bizikidetza Planean programatuak.
 - Tutoretza Planean garatzea eskola-jazarpena prebenitzeko eta bizikidetza positiboa eraikitzeko sortutako curriculum-materialak, LHko 3., 4., 5. eta 6. maila dagozkienak. Horiek [Bizikasi](#)ren webgunean daude eskuragarri.

Litekeen jazarpen-kasu baten aurrean jarduteko prozedura

Ustezko jazarpen-kasu batengatik esku hartzeko eskaera baten aurrean, kontuan hartuko dira Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko urriaren 11ko Ebazpenean ezarritako jarraibideak, EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan berdinaren arteko tratua txarren aurrean jarduteko protokoloaren aplikazioa arautzeko, Bizikasi ekimena ezarri ondoren finkatutako aldaketekiko koherentziak.

Pandemiaren ondorioz bizi izan den egoerak lehen planoan jarri du eskola-jazarpenaren modalitate hori, jazarpenarekin lotutako jokabideak gauzatzeko teknologia berriak erabiltzen dituen. Ondorioz, ikastetxeetan egiten diren behaketak areagotu egin behar dira, batez ere gure ikasleekiko harremanak modu presentzialean ematen ez diren aldietan. Era berean, funtsezkoa da irakasleen —batez ere, tutoreak eta BAT taldeko kideak— eta familien lankidetzaren egoera horien aurrean orientatzeko, laguntzeko eta esku hartzeko.

Fenomeno horren aurrean arreta emateko eta hezkuntza-arloan jarduteko, honako hauek ditugu:

- Ziberbullyingaren aurrean eskolan jarduteko protokoloa. Horrek ez baitu ordezkatzen eskola-jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa, Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko urriaren 11ko Ebazpenean erregulatua, baizik eta osatu egiten du.
- Detekzioarako materialak eta jarduteko gidak, Bizikasiren orrian.
- Kasuak ebazteko prozesua kudeatzen lagunduko duten orientabide espezifikoak (ebazpen hau argitaratzeko egunean lantzen ari dira).



1.8.- HEZKUNTZA-ESPARRUAN HAUR ETA NERABEEN BABESGABETASUNEKO, TRATU TXARRETAKO ETA SEXU-JAZARPEN ETA SEXU-ABUSUKO LITEZKEEN EGOERAK PREBENITZEKO ETA HORIEN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA, ETA HEZKUNTZA-ESPARRUAREN ETA ADINGABEAREN BABESEAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIOA

Ikasturtearen hasieran, eskola-komunitate osoak horren berri duela bermatzeko behar diren neurriak ezarriko dira. Gainera, ikastetxeek ikasleen legezko arduradunei ikasturtearen hasieran bidaltzen dieten informazioan testu hau ere jarriko dute:

Babesgabetasun-zantzuak jakinarazteko betebeharra

“Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren arabera (indarkeriaren aurrean haur eta nerabeei babes integrala emateko legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek beren eginkizunak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinarazi beharko die gizarte-zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari”.

Era berean, pertsonal ez-irakasleak (jantokiko zaintzaileak, laguntzaileak, eskolaz kanpoko jardueren monitoreak, etab.) kasuen kudeaketan esku har dezan sustatu behar da.

Ikastetxeetan mota horretako edozein egoera gertatzen bada, Hezkuntza Ikuskaritzari jakinarazi beharko zaio.

Ikasturtean zehar, Hezkuntza Ikuskaritzak eskola-zuzendaritzari zuzendutako bilkura bat antolatuko du, protokoloa aztertzeko eta irakasleek arlo horretan duten inplikazioa zehazteko.

Ilido horretan, kontuan hartu beharko dira, halaber, bai EUSKADIN HAURREN ETA NERABEEN SEXU-ABUSU ETA SEXU-ESPLOTAZIO KASUETAN JARDUTEKO JARRAIBIDEAK, maiatzaren 18ko Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorren ondoriozkoak, bai berriki argitaratutako 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, indarkeriaren aurrean haur eta nerabeei babes integrala ematekoa.

18. artikulua. Ikastetxeen eta egoitza-establezimenduen informazio-betebeharrak.

1. **Ikasturte bakoitzaren hasieran**, ikastetxe guztiek, baita adingabeak bizi ohi diren establezimendu guztiek ere, sartzen diren unean **informazio guztia emango diete haur eta nerabeei**. Informazio hori betiere erakusteko moduan egongo da formatu eskuragarrietan, eta administrazio publikoek **indarkeria-egoerak jakinarazteko erregulatutako** eta ikastetxean edo establezimenduan aplikatutako **prozedurei** buruzkoa izango da, baita arlo horretako arduradunei buruzkoa ere. Halaber, hasiera-hasieratik emango dute **komunikabide elektronikoen inguruko informazioa** —hala nola haur eta nerabeei laguntzeko telefono-lineak—.

2. Ikastetxe eta establezimendu horiek **etengabe eguneratuta edukiko dute** informazio hori, erraz ikusteko moduko leku irisgarri batean, eta behar diren neurriak hartuko dituzte haur eta nerabeek edonoz kontsultatu ahal izango dutela ziurtatzeko. Gainera, komunikazio-prozedura horietara eta dauden laguntza-lerroetara sarbidea ahalbidetu eta erraztuko dute.



Gainera, honako hau hartuko da kontuan:

Hezkuntza-etapa guztietan, ikastetxearen titulartasuna edozein dela ere, **haur eta nerabeek, zeharka, beren parte-hartzea, gainerakoekiko errespetua, beren duintasunarekikoa eta beren eskubideekikoa** barne hartuko dituen hezkuntza jasoko dute, **batez ere bereziki zaurgarriak** diren adingabeena kasuan —desgaitasunen bat izateagatik edota neurogarapeneko, genero-berdintasuneko edota familia-aniztasuneko nahasmenduren bat izateagatik—. Gainera, hezkuntza horren barruan sartuko da bizi-estilo osasungarriak aukeratzeko trebetasunak eskuratzea —elikadura-eta nutrizio-heziketa barne—, eta beren heldutasunera eta, hala badagokio, desgaitasunera egokitutako hezkuntza afektibo-sexuala, indarkeria eta diskriminazio mota guztiak prebenitzen eta saihesten ikastera bideratua, horiek ezagutzen eta horien aurrean erreakzionatzen laguntzeko asmoz.

Ikastetxe guztiek **bizikidetza-plan bat egingo dute**, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 124. artikularekin bat etorriz. Plan horren jardueren artean **egongo dira trebetasunak eskuratzea, hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzea eta prestatzea, tratu ona sustatzea eta gatazkak modu baketsuan konpontzea**, ikastetxeko langileek, ikasleek eta hezkuntza-komunitateak gatazkak modu baketsuan konpontzearekin lotuta.

Orobat, plan horretan jasoko dira tutore-eginkizunak betetzen dituzten irakasleen, irakasle taldeen eta ikasleen artean **adostutako jokabide-kodeak**, eskola-jazarpeneko egoerei edo ikastetxeko bizikidetzari eragiten dion beste edozein egoerari aurre egiteko, kontuan hartu gabe egoera horiek ikastetxean bertan gertatzen diren edo informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez gertatzen diren edo jarraitzen duten. Irakasleen Klaustroak eta Eskola Kontseiluak beren eskumenen artean izango dute edozein motatako indarkeriaren aurrean adingabeen eskubideak aitortzea eta babestea sustatuko duten hezkuntza-neurriak har daitezen eta horien jarraipena egin dadin bultzatzea.

Ikastetxeetako **zuzendaritza** edo **titulartasuna** duten pertsonen **ardura** izango da **hezkuntza-komunitateak** dauden **jarduera-protokoloen berri izateaz**, baita protokolo horietan aurreikusitako jardunak **gauzatzeaz** eta horien **jarraipena** egiteaz ere. Prestatutako protokoloak eta esku hartzen duten profesionalen **prestakuntza espezializatua hedatzeko** jardunak egingo dira, horrelako egoerak hautemateko prestakuntza egokia izan dezaten.

Adingabeen ikasketak egiten ari diren **ikastetxe guztiek**, haien titulartasuna edozein dela ere, **ikasleen ongizaterako eta babeserako koordinatzaile** bat izan beharko dute. Koordinatzaile horrek ikastetxearen zuzendaritza edo titulartasuna duen pertsonak gainbegiratuta jardungo du. Haren eginkizunetan sartuko da prestakuntza-planak sustatzea: gizarte-zerbitzuen esku-hartzea behar duten kasuak koordinatzea; **erreferente nagusia** izatea ikastetxean bertan edo horren ingurunean gerta daitezkeen indarkeria-kasuekin lotutako **komunikazioetarako**; haur eta nerabeentzako ahalik eta **ongizaterik** handiena eta **tratu onaren kultura** ziurtatuko duten neurriak **sustatzea**; **gatazkak modu baketsuan konpontzeko metodo alternatiboak sustatzea**; edozein motatako indarkeriaren aurreko prebentzioaren eta babesaren arloan EAEn dauden **protokoloen berri ematea**; **desgaitasuna** duten edo **kalteberatasun** edo **dibertsitate** bereziko beste edozein inguruabarretan dauden ikasleekiko **errespetua sustatzea**; ikastetxeko **zuzendaritzarekin bizikidetza-plana koordinatzea**; pertsonen **segurtasuna arriskuan** jartzea edo adingabeen **datu pertsonalak legez kontra tratatzea** dakarten



*egoeretan, **dagozkien zerbitzuei berehala jakinarazi** beharra sustatzea; ikastetxean elikadura osasungarria eta nutritiboa eraman dadin **sustatzea**, haurrek eta nerabeek, bereziki ahulenek, **dieta orekatua** egin ahal izateko.*

Lehentasunez, ikastetxeko **berdintasuneko arduradunak** edo **hezkidetzako arduradunak** beteko ditu figura horren eginkizunak.

Ongizateko eta babeseko koordinatzaileak datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoa errespetatuz jardungo du betiere.

1.9. IKASTETXEEI ZUZENDUTAKO PROTOKOLOA, IKASLE TRANSEI EDO GENERO-PORTAERA EZ-NORMATIBOA DUTENEI ETA HAIEN FAMILIEI LAGUNTZEKO

Hezkuntza-komunitateak zainduko du ikastetxeak errespetuzko guneak izan daitezen, genero-identitateagatiko edo sexu-orientazioagatiko presio, eraso edo diskriminazio orotatik libre.

Protokolo hori erabili beharko da jaiotakoan egotzitako sexuarekin bat ez datorren nortasun sexuala duten adingabeei eta haien familiei, eta sexuaren arabera sozialki espero diren genero-jarduerekin bat ez datozen ikasleei laguntzeko prozesuan ikastetxeak orientatzeko.

2. IKASLEAK

2.1. IKASLEEN ANTOLAKETA

Eskola inklusiboaren printzipio eta helburuei erantzun behar die, ikuspegi etikotik eta hezkidetzatik. Horrek eskatzen du ikasle guztiek ahalik eta gehien garatzea beren gaitasunak eta ahalmenak, beren proiektu pertsonala, soziala eta profesionala eraikitzeko gai izan daitezen. Horretarako, zuzendaritza-taldeak ikasle guztien sarbidea eta iraunkortasuna bermatu behar ditu, batez ere, hezkuntza- eta gizarte-bazterkeriaren aurrean kalteberenak direnena, eta aukera-berdintasuneko kalitatezko hezkuntza-sistema eskaini behar du, bizikidetzatza positiboa bultzatuta.

Asmoa da ikasleek ikastetxeko kide izatearen sentimendua izatea, talde-lana eta proiektuak egin daitezen sustatzea eta ikasgelan eta ikastetxean protagonismoa haiei egokitzea.

Hezkuntza-inklusioko hezkuntzarako eskubidearen eskakizun bat da, eta, hori lortzeko, zuzendaritza-taldeak, orientatzailearekin batera, antolamendu-alderdi hauek aurreikusi beharko ditu:

- Ohiko irakasle guztiak erantzunkide dira hezkuntza-erantzunean, eta ikasgelaren programazioa egokitu beharko dute hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei esparru guztietan behar dituzten laguntzak emateko.
- Baliabide eta laguntza osagarriak modu koordinatuan eta lankidetzan antolatzea, ohiko testuinguruaren barruan, ikasle guztien onurarako izateko moduan.
- Ikasleek hala behar dutenean, gela egonkorak sortu ahal izango dira, baldin eta eskolatzeko-proposamen hori duten hiru ikasle badaude gutxienez.
- Ikastetxeetako zuzendaritzek bermatu beharko dute **modu koordinatuan parte hartzen** dutela profesional espezifikoek (entzumeneko eta hizkuntzako



irakasleak, Itsuen Baliabidetegiko profesionalak, entzumen-desgaitasuna duten ikasleen koordinatzaileak, Berritzeguneko aholkulariak...) eta inplikaturako profesionalak (irakasle aholkulariak, orientatzailea, tutorea, hezkuntza-laguntzako espezialista...) ikasleen balorazioan, jarraipenean eta ebaluazio psikopedagogikoan.

- Garapenean aldaketak dituen edo bere adinerako esperotakoaren nabarmen gainetik dagoen garapenaren adierazleak erakusten dituen ikasleak planteatzen dituen beharren detekzioa eta jarraipena azpimarratzea. Ildo horretatik, plan hau dago: Adimen-gaitasun Handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko Plana (2019-2023).
- Ikasle guztien —batez ere, arrisku-taldeetakoak ikasleen— ikaskuntzarako eta partaidetzarako oztopoak hautematea beren hezkuntza-ibilbidearen edozein unetan, eta ikaskuntzaren irisgarritasun unibertsaleko planteamenduetan aurrera egitea eta, hala badagokio, beharrezko egokitzapenak egitea.
- Ikasleen aniztasunari erantzuten dioten ikaskuntza-metodologia eta -estrategia inklusiboak erabiltzea, ikasteko espazioak partekatuta, hori eragozten duten oztopoak kenduta eta hainbat taldetako eta testuinguru espezifikoetako (adibidez, ikasgela egonkorrak) eta arruntetako ikasleen arteko interakzioa ahalbidetuta.
- IKTak erabil daitezen sustatzea, ikasteko eta ikasgelan parte hartzeko oztopoak dituzten ikasleen bikaintasuna eta irisgarritasuna bultzatuta.
- Ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen kasuan, materialak (braillea, audioa, etab.) egokitzea beharrezkoa badute, ikastetxeek egokitu behar diren materialak garaiz eman beharko dizkiete Itsuen Baliabidetegiko profesionalak. Testuen kasuan, horien zerrenda maiatzean eman behar da, Hezkuntza Administrazioak eta ONCEk sinatutako hitzarmenak ezartzen duenez.

Alderdi horiek guztiek eragina izango dute, hezkuntza-plangintzan ez ezik, ikasleen antolaketan, komunitateko kideen arteko hezkuntza-erantzukizunen banaketan eta planifikaturako ekintzen garapenean ere.

2.2. HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO PREMIA ESPEZIFIKOAK (HLPE) DITUZTEN IKASLEAK

Ohikoaz gainera, hezkuntza-arreta gehigarria behar duten ikasleak dira, egoera hauetan daudelako:

- Desgaitasun baten edo jokabide-nahaste larrien ondoriozko hezkuntza-premia bereziak.
- Ikasteko zailtasun espezifikoak.
- Adimen-gaitasun handiak.
- Hezkuntza-sisteman berandu sartzea.
- Baldintza pertsonalak edo eskola-historiakoak (gaixotasuna...).
- Gizarte-desberdintasuneko egoerak.
- Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduak.

Ikastetxeek Aniztasunaren Arretarako Planean eta Urteko Planean jasoko dituzte ikasle horiei zuzendutako antolaketa- eta plangintza-neurriak, baliabideak eta jarduerak.



HLPE ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko, bete egingo dira Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak emandako jarraibideak, HLPE ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko baliabide pertsonal espezifikoak esleitzeko prozedurari dagokionez.

2.2.1. Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak

Egoera hauetan dauden ikasleak hartzen ditu:

- Adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasuna, desgaitasun fisikoa eta autismoaren espektroko nahasmendua.
- Desgaitasun anizkoitza.
- Gor-itsutasuna.
- Jokabide-nahasmendu larriak.

Irakasle taldeak kontuan hartu beharko ditu ikasle horiek behar dituzten laguntzen motak eta intentsitatea (errefortzuak, sarbide-neurriak, esleitutako giza baliabideak, egokitzenak...), ahalik eta eskolatze normalizatu eta autonomoena izan dezaten.

Ikastetxeetako zuzendaritzek bermatu beharko dute ikasleekin esku hartzen duten profesionalen partaidetza eta inplikazio integratua (profesional horien artean daude irakasleak, irakasle orientatzaileak, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak, logopedak, terapeuta okupazionalak, fisioterapeutak, Itsuen Baliabidetegiko profesionalak, hezkuntza-laguntzako espezialistak...), bai plangintzan (plana, ordutegia...), bai koordinazioan (bilerak), bai plangintzaren jarraipenean eta ebaluazioan, oinarritzat hartuta berritzeguneetako HPBko aholkulariekin batera egindako balorazio psikopedagogikoa.

Ikastetxeak dituen ohiko baliabideez gainera, ikasturtearen hasieran sailak baliabide pertsonal eta material apartekoak esleituiko ditu ikasle horiei behar bezala erantzuteko (ebaluazio psikopedagogikoa egiteko eskaera, W67 aplikazioaren bidez).

Ikastetxeak W67 aplikazioan eguneratuko du familiek edo legezko tutoreek emandako ikasleen desgaitasun-ziurtagiria.

Laguntzetan izandako intentsitate-aldaketek edo ikasturtean zehar ikasle berriak sartzek ez dute ekarriko alde zuzenik planifikatutako eta ikasturte hasieran esleitutako baliabideak berrikustea, ezarritako prozeduraren arabera justifikatutako salbuespenak salbuespen. Ikastetxeak ikasle berria artatzeko beharrezkoak diren doikuntzak eta ordutegi-aldaketak egin beharko ditu. Era berean, irakasleek beren ikasgelaren programazioa ikasle berriek dituzten laguntza-premietara egokituko dute. Balorazio berriak eta dagoeneko egindakoen gainean gauzatutako aldaketak kontuan hartuko dira hurrengo ikasturtean dagokion esleipena zehazteko.

Salbuespen gisa, ikastetxeak hezkuntza-laguntzako espezialisten (HLE) esleipena berrikusteko eskatu ahal izango du, ikasturtean zehar intentsitate handiko laguntza behar duten ikasleak sartzeko direnean. Ikasle berriak sartzeko arrazoi justifikatua egon beharko da: bizilekuko udalerriz aldatzea edo euskal hezkuntza-sisteman sartzea. Ikastetxeak eskabidean justifikatu beharko du esleitutako baliabideak berrantolatu dituela eta, hala ere, ezinezkoa duela ikasleari ordutegiren batean arreta ematea.



Baliabide publikoak efizientziaz erabiltzeko eta eraginkortasunez kudeatzeko, ikastetxearen betebeharra da dagokion lurralde-ordezkaritzako Hezkuntza Berriztatze Zerbitzuari HPBak dituen edozein ikasleren baja edo lekualdaketa jakinaraztea.

Jokabide-nahasmendu larriak dituzten ikasleak dituzten ikastetxeek jardun-protokoloa ezarri beharko dute, krisi-egoerei modu eraginkorrean erantzuteko, egoera horiek geldiaraztea beharrezkotzat jotzen denean eta, larritasunagatik, behin-behinean beste espazio edo programa batzuk erabiltzea eskatzen duten portaeren aurrean. Horretarako, berritzeguneengandik behar duten aholkularitza izango dute. HPBak dituzten ikasleen autonomia eta irisgarritasuna garatzeko laguntzaren beharra zehazteko protokoloak ezartzen duenez, ohiko irakasleek artatu behar dituzte lehenik eta behin jokabide-nahasmenduak, eta laguntzako irakasleek (PT) bigarrenik. Hezkuntza-laguntzako espezialistak (HLE), ikastetxeko beste edozein profesionalak bezala, autorregulazioa sustatzeko zereginetan lagundu ahal izango du, betiere dagokion ikaslearentzako planak hala aurreikusten badu.

Egoera horren konplexutasunak hezkuntza-erantzuna gainditzen duenez, beharrezkoa izango da familia-, osasun- eta gizarte-esparruetan esku hartzea, berritzeguneetako HPBko aholkulariek koordinatuta.

2.2.2. Ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak

Ikasle horiek arreta espezifikoa behar dute, zailtasunak dituztelako mezuak ulertzeko eta sortzeko, irakurtzeko eta idazteko, kalkulu aritmetikoak egiteko, arreta emateko eta/edo mantentzeko edo inpulsibiltatea kontrolatzeko. Beste batzuek ikaskuntza-erritmo motelagoa dute edo hizkuntza-arazo espezifikoak dituzte.

Hori dela eta, ikasleren batek baloratu gabeko ikaskuntza-zailtasunak izan ditzakeelako zantzuak edo ebidentziak dituen irakasleak lehenbailehen eman beharko dio horren berri ikastetxeko orientatzaileari, Berritzeguneko dagokion aholkularitzarekin lankidetzan ikasle horren beharretara egokitutako jardun-plan pertsonalizatua abian jartzeko.

Ikasgelan hartzen diren hezkuntza-erantzuna eta neurri espezifikoak zailtasun horietara egokitu behar dira, eta ikasle horiekin lan egiten duten irakasle guztiek aplikatu behar dituzte. Gainera, inklusioari laguntzeko profesionalen arreta eta/edo laguntza jaso ahal izango dute, berritzeguneetako HPBko aholkulariekin lankidetzan egindako balorazio psikopedagogikoa kontuan hartuta. Laguntza-material gisa, honako orientabide hauek landu dira:

- Irakurketa irakasteari buruzko orientabideak.
- Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua duten ikasleei arreta emateko gida eta ohiko tresnak.
- Inklusibitateari eta ikasteko zailtasunei buruzko orientabideak eta materialak.
- Irakurketa-plana.
- Ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusihoa.

2.2.3 Adimen-gaitasun handiko ikasleak

Ikasle horiek erantzun egokia jaso behar dute, beren ahalmena ahalik eta gehien bermatzeko. Horretarako, haien ezaugarriak, beharrak eta interesak sakon ezagutu behar dira,



eta testuinguruarekiko elkarreraginean topatzen dituzten oztopoak hauteman, hezkuntza-erantzuna doitu ahal izateko.

Gaitasun handiko ikasleekin esku hartzeko plana ("[Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana, 2019-2022](#)") ISEI-IVEIk egindako ekintzen diagnostikotik eta analisitik abiatzen da. Horretan, hezkuntza-sistemako profesionalen prestakuntzaren beharra adierazten da.

Ikasle horiekiko esku-hartzea berariaz aurreikusten da eskola inklusiboaren esparrutik.

Planak bost helburu ditu eta, hurrengo ikasturteari begira, honako hauek nabarmentzen dira: pilotaje baten bidez, ikastetxeetan gaitasun handiko ikasleak hautemateko, identifikatzeko eta haiei erantzuteko protokolo bat baliozkotzeko ekintza amaitzea; irakasleak prestatzea; eta esku-hartzea sistematizatzeko protokoloa abian jartzea, pilotaje baten bidez.

Pilotaje hori egiten ez den ikastetxeetako irakasleek, ikasleren batek gaitasun handiak izan ditzakeenaren aztarnak edo ebidentziak badituzte, lehenbailehen horren berri eman beharko diote ikastetxeko orientatzaileari, prestakuntzaren eta esku-hartzearen arloko beharrak aurreikusteko, plan berrian adierazitako helburuei erreparatuta.

Adimen-gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-orientabideak dokumentuan, irakasleentzat oso baliagarria den informazioa aurki daiteke. Halaber, interesgarriak eta erabilgarriak izan daitezke curriculumak aberasteko orientabide eta material jakin batzuk³.

2.2.4. Ikasleak ohiko onarpen-prozesutik kanpo eskolatzea

Urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan (2018ko urtarrilaren 12ko EHAA) ezarritakoari jarraituz eskolatuko dira eskolatzeko ohiko epetik kanpo plaza bat eskatzen duten ikasleak.

EAera iritsi berri diren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikaspostu bat behar duten pertsonen kasuan, ikastetxeak, aplikazio informatikoaren bidez, eskaera bat kudeatuko dio Eskolatze Batzordeari, ohiko menuaren bidez: Matrikula / Eskolatze Batzordea. Ikastetxeek edozein familiaren eskabidea tramitatu beharko dute, familiak eskatutako ikastetxea edozein dela ere.

Berandu hasten diren ikasleek hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak badituzte, 2.2 puntuan xedatutakoaren arabera jardungo da. Hizkuntza indartzeko programa amaitu duten ikasle guztiek jarraipen-programa indibidualizatua izan beharko dute ondorengo hiru ikasturteetan.

2.2.5. Baldintza pertsonal bereziak edo eskola-historiakoak dituzten ikasleak

a) Ospitale- edo etxe-arretako edo arreta terapeutiko-hezigarriko premiak dituzten ikasleak

Abenduaren 20ko 266/2006 Dekretuaren bidez, ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarriko lurralde-zentroak sortu ziren. Zentro horien helburua da osasun-erakunde batean ospitaleratuta egoteagatik, etxeko ospitalizazioagatik edo

³ Eusko Jaurlaritza. Berritzegune Nagusia. [Curriculumak aberastea](#).



hezkuntza-programa terapeutiko baten barruan egoteagatik medikuaren aginduz ikastetxera joan ezin diren ikasleei hezkuntza-laguntza ematea.

- Ospitale-esparruko laguntza EAEko ospitale jakin batzuetan dauden hezkuntza-laguntzako ikasgeletan eskainiko da. Ikasle batek ospitaleko tratamendua behar badu, arreta pedagogikoa ospitaleko ikasgelako irakasleak emango du. Irakasle hori ikastetxeko tutorearekin koordinatuko da.

- Etxearen esparruko laguntza irakasleek emango dute, medikuaren aginduz ikastetxeetara joan ezin diren ikasleen etxeetan. Etxean arreta pedagogikoa jasotzen duen ikasle bat ospitalizatu beharko balitz, etxeko arreta pedagogikoko irakasleek jarraituko dute hari ospitalean arreta ematen.

Ikastetxeetako zuzendariak, egoera horretan dagoen ikaslearen eskola-ikaskuntza eta sozializazioa ahalbidetzeko, 1998ko uztailaren 30eko Aginduaren 35. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko diote. Agindu horren bidez, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak eta ikasle horiek behar bezala eskolatzeko baliabide-hornidura ezartzen dira (1998-08-31ko EHAA).

- Terapeutiko- eta hezkuntza-esparruan, hezkuntza-laguntza Osakidetzako Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zerbitzuarekin lankidetzan emango da, ezarritako lankidetzahitzarmenaren arabera. Arazo psikopatologiko larriak dituen ikasle batek tratamendu intentsiboa behar badu, OETHren programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko proposatu ahal izango dute, berritzeguneetako HPBko aholkularien eta Osakidetzako Haur eta Gazteen Psikiatriako Unitateko aholkularien oniritziarekin.

Gainera, programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko, ikasleak honako hauek beharko ditu:

- o Amaren/aitaren edo legezko ordezkariaren berariazko baimena.

- o Balorazio Batzordearen erabakia.

Zentro terapeutikoan aldi jakin baterako onartuko da, 3 eta 6 hilabete bitarteko batez besteko egonaldiak. Talde terapeutikoak egokitzen jotzen badu, epe hori berriro ahal izango da gehienez ere 12 hilabetera arte. Edonola ere, helburua da haurra edo nerabea bere eskola-ingurunera itzultzea.

b) Gaixotasun minoritarioak, elikadura-alergia anizkoitzak eta beste gaixotasun batzuk dituzten ikasleak

Ikasle horientzat jarraitu beharreko protokoloa “Osasun-arreta berezia eskola-orduetan”⁴ zirkularrean jasota dago.

⁴ Eusko Jaurlaritza (2006). [Eskola-ordutegiko osasun-arreta bereziari buruzko zirkularra](#).



2.3- IKASTETXEEK HLPE-AK (DISLEXIA, HIZKUNTZAREN GARAPEN-NAHASMENDUA, ARRETA-DEFIZITAREN ETA HIPERAKTIBITATEAREN NAHASMENDUA, DISKALKULIA, GAITASUN HANDIAK) DITUZTEN IKASLEEI BURUZKO INFORMAZIOA BILTZEKO ETA ANTOLATZEKO PROZEDURA

Hezkuntzako sailburuordearen 2020ko uztailaren 10eko Ebazpenaren arabera, 2020ko irailaren 1etik aurrera, ikastetxeek erregistro berria beteko dute HLPEak dituzten ikasleei buruzko informazioa W67 aplikazioan biltzeko eta antolatzeko.

Ikastetxeek erregistro hori beteko dute ebazpenaren jarraibideak beteta eta ezarritako prozedurei jarraituz.

Jardun-plan pertsonalizatuan jasoko dira ikaslearen hezkuntza-premiak, indarguneak, ahulguneak eta ikaskuntzarako oztupoak, baita hezkuntza-erantzuna antolatzeko ikaskuntza-prozesuan duen parte-hartzea ere.

2.4.- EBALUAZIO PSIKOPEDAGOGIKOA ESKATZEA BERRITZEGUNEKO HPB-KO AHOALKULARITZARI

Ebaluazio psikopedagogikoaren helburua izango da ikaslearen hezkuntza-premiak, indarguneak eta ahulguneak antzematea eta ikaskuntza-prozesuan dituen zailtasun guztiak identifikatzea.

Gogorarazi behar da, hala ere, ebaluazio psikopedagogikoa egiteko eskaerak aparteko prozesu bat hasten duela hezkuntzan esku hartzeko, eta soilik egin behar dela ikastetxeak aniztasunari erantzuteko abian jarritako ohiko neurri guztiak nahikoak ez direnean, irakasle tutoreek eta, hala badagokio, profesional espezifikoek, irakasle orientatzaileekin batera, egokitzen jo dituzten neurriak, hain zuzen.

Horrek esan nahi du ikastetxeak, Berritzeguneko aholkulariekin lankidetzan, zailtasunak ulertzeko lehen hurbilketa bat egin behar duela, egoki iritzitako informazioa eta balorazio pedagogikoak jasota, eta, hala badagokio, antzemandako arazoen aurrean esku hartzeko lehen neurriak ezarri behar dituela.

Zentroak eskaera hori zehaztuko du “Ebaluazio psikopedagogikoa egiteko eskaera”n ezarritako protokoloarekin, eta W67 aplikazio informatikoaren bidez egingo da.

Nolanahi ere, ikasle bakoitzaren erreferente nagusia bere tutorea da. Horrek irakasle taldeko gainerako kideekin koordinatuta beteko ditu bere eginkizunak, baita, hala badagokio, bere ikasle-taldearekin esku har dezaketen gainerako profesionalekin koordinatuta eta, bereziki, orientatzailearekin lankidetzan ere.



2.5. APARTEKO CURRICULUM-NEURRIAK ESKATZEA

Curriculumaren egokitzapenak eta aparteko neurri guztiak HPBetako aplikazioaren bidez (W67) tramitatuko dira. Ikasgela egonkorreko Curriculum Proiektua aurreko ikasturteetako prozedurari jarraituz tramitatuko da.

Curriculumaren egokitzapenak ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuaren bidez (1998-07-13ko EHAA) eta dekretu hori garatzen duten aginduen bidez (1998-08-31ko EHAA) erregulatzen dira. Era berean, kontuan hartu behar dira indarrean dauden Hezkuntzako sailburuordearen, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren eta ikuskari nagusiaren jarraibideak⁵.

Batxilergoan eta Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan indargabetuta geratu da norbanako curriculum-egokitzapen garrantzitsuak egiteko aukera. Aukera hori ezarrita zegoen curriculumera sartzeko egokitzapenak eta norbanako curriculum-egokitzapen garrantzitsuak egiteko baimena erregulatzen duen 1998ko uztailaren 24ko Aginduan (abuztuaren 31ko EHAA). LOEren ondoren, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, Batxilergoko jakintzagairen batean edo lanbide-moduluren batean curriculumera sartzeko egokitzapenetara murriztu dira curriculum-egokitzapenak, Batxilergoaren edo Lanbide Heziketako dagokion heziketa-zikloaren helburuei eutsiz betiere. Nolanahi ere, Batxilergorako salbuespen partzialak egiteko aukera onartzen da, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren onepenenarekin.

Curriculumera sartzeko egokitzapenak

Curriculumera sartzeko egokitzapenak erregistratuta geratu beharko dute ikasleen espedientean, eta hartutako neurriak bete beharrekoak izango dira.

Curriculumerako irisgarritasuna bermatuko duten ikasleen plangintzan, koordinazioan eta jarraipenean, ikastetxeetako zuzendaritzek irakasleen eta irakasle ez diren langileen arteko lan koordinatua bermatu behar dute (irakasle ez diren langileen artean daude Itsuen Baliabidetegietako profesionalak, entzumen-desgaitasuna duten ikasleen koordinatzaileak, Entzumeneko eta Hizkuntzako profesionalak, zeinu-mintzairako interpreteak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, terapeuta okupazionalak, fisioterapeutak, gor-itsutasuneko bitartekariak).

Gortasuna duten ikasleentzat, ahozko hizkuntzetan curriculumera sartzeko egokitzapenak egiteko, Hezkuntza Sailak dokumentu hau du: "Gortasuna duten ikasleak hizkuntzen curriculumera sartzea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza". Dokumentu hori erreferentzia gisa baliagarria izan dezakete irakasleek.

Ikusmen-desgaitasuna duten eta materialak (braillea, audioa, etab.) egokitu behar dituzten ikasleen kasuan, ikastetxeek egokitu beharreko materialak behar adinako aurrerapenaz, ahalik eta kalitate handienarekin eta, hala badagokio, formatu digitalean eman behar dizkiete Itsuen Baliabidetegiko profesionalari. Testuliburuaren kasuan, horien zerrenda maiatzean eman behar da, Hezkuntza Administrazioak eta ONCEk sinatutako hitzarmenak ezartzen duenez. Ikasle horien ebaluazioari dagokionez, ikastetxeek neurriak hartuko dituzte

⁵ <https://www.euskadi.eus/informazioa/haur-eta-lehen-hezkuntzako-ikastetxeen-berriazko-gaiak/web01-a2ikadok/eu/>



ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzeko (denbora luzatzea, formatu irisgarriko probak, baliabide teknikoak, etab.).

Materialen irisgarritasunerako eta/edo egokitzapenerako baliabideen eskuragarritasuna kanpoko zerbitzuen mende dagoenean (Berritzegunea, Itsuen Baliabidetegia), ikastetxeak behar besteko aurrerapenaz egingo du eskaera.

a) Curriculum-egokitzapen indibidual garrantzitsuak eta Gela Egonkorren Curriculum Proiektua (GECP) aurkezteko epeak

- Ikastetxeko zuzendaritzak dagozkion proposamenak **urriaren 22a** baino lehen igorriko ditu.
- Berritzeguneko HPBko aholkularitzak **azaroaren 12a** baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak **azaroaren 30a** baino lehen bidaliko du bere oniritzia.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak **abenduaren 10a** baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei curriculum-egokitzapena eta/edo Gela Egonkorren Curriculum Proiektua onartuta dagoen ala ez, ikastetxeak, **abenduaren 17a** baino lehen, idatziz jakinaraz diezaien ikaslearen legezko arduradunei, ebazpenaren kopia erantsita.

b) Bigarren Hezkuntzan adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleentzako curriculum-egokitzapenak aurkezteko epeak

- Ikastetxeko zuzendaritzak proposamena urriaren 22a baino lehen tramitatuko du.
- Berritzeguneko HPBko aholkularitzak azaroaren 12a baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak azaroaren 30a baino lehen bidaliko du bere oniritzia.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak abenduaren 10a baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei neurria onartuta dagoen ala ez, ikastetxeak, abenduaren 17a baino lehen, idatziz jakinaraz diezaien ikaslearen legezko arduradunei, ebazpenaren kopia erantsita.

c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan eskolatzea aurreratzeko edo eskolatze-aldia malgutzeko eskaera aurkezteko epeak

- Ikastetxeko zuzendaritzak, etapa hasi aurretik, eskolatze-aldia aurreratzeko edo malgutzeko proposamena izapidetuko du **maiatzaren 27a** baino lehen.
- Berritzeguneko HPBko aholkularitzak **ekainaren 3a** baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak **ekainaren 10a** baino lehen bidaliko du bere oniritzia.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak **ekainaren 17a** baino lehen tramitatuko du dokumentazioa.



- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak **ekainaren 24a** baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei proposamena onartutzat jotzen den ala ez, ikastetxeak ikaslearen legeko arduradunei horren berri eman diezaien, ebazpenaren kopia erantsita, **ekainaren 26a** baino lehen.
- Malgutzeari dagokionez, Batxilergoa osatzen duten bi ikasturteak eskolatze-erregimenean egiteko, ikasturte horietako curriculuma osatzen duten ikasgaiak multzotan zatitu ahal izango dira. Halakoetan, etapan egoteko urte kopurua bi urte luzatu ahal izango da. Malgutze hori derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo etapan edo hura osatzen duten bi ikasturteetako edozeinen hasieran eskatu ahal izango da.

d) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek curriculumera sartzeko baliabide materialak eskatzeko epeak

Ikastetxeek Berritzegunearen bidez eskatuko dituzte baliabide materialak. Horretarako, HPBko aholkularitzak, terapeuta okupazionalarekin batera eta inplikaturako gainerako profesionalekin lankidetzan, dagokion ebaluazio psikopedagogikoa egingo du. Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunari jakinaraziko zaio, eta horrek lurralde osoko premien baterako eskaera igorriko dio Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Hezkuntza Berezikoko arduradunari. Berritzeguneak premiak baloratuko ditu eta baliabideen proposamena Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunari tramitatuko dio apirilaren 10 baino lehen.

Maileguan hartutako materiala mantentzea ikastetxearen ardura izango da, eta hura baldintza egokietan itzuli beharko da (horretarako, konpromiso hori zehaztuko duen dokumentua beteko da). Ikastetxeak ordaindu beharko ditu 150 eurotik beherako kostua duten curriculumera sartzeko beharrezko materialak.

e) Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako eskolatze-aldia malgutzeko eskaera aurkezteko epeak

Desgaitasunarekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek prestakuntza-ziklo bateko moduluak banatu ahal izango dituzte, horiek egiteko eta horien ebaluaziora eta kalifikaziora aurkezteko, eta ziklo horretako eskolatze arruntean aurreikusitakoaren denbora bikoitza izango dute.

- Ikastetxeko zuzendaritzak, ikasturtea hasi aurretik, eskolatzea malgutzeko proposamena tramitatuko dio Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunari, maiatzaren 29a baino lehen.
- Berritzeguneko HPBko aholkularitzak txostena emango du ekainaren 5a baino lehen.
- Hezkuntza Ikuskaritzak ekainaren 15 baino lehen bidaliko du oniritzia.
- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunak ekainaren 22a baino lehen tramitatuko du dokumentazioa.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ikastetxeei jakinaraziko die proposamena onartutzat jotzen den ala ez, ikastetxeak ikaslearen legeko arduradunei horren berri eman diezaien, ebazpenaren kopia erantsita, ekainaren 30a baino lehen.



2.6. CURRÍCULUM-ANIZTASUNAREN BIDEZ IKASKUNTZA ETA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO PROGRAMA TALDEAK

Indarrean dagoen araudiaren arabera antolatuko dira:

- Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta EAEn ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 40. artikulua (2016ko urtarrilaren 15eko EHAA).
- Hezkuntzako sailburuordearen jarraibideak, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei dei egitekoak 2021-2022 ikasturterako Curriculum Aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa taldeetarako baimena eskatzeko.

Curriculum Aniztasuneko plazetako irakasleen lan-karga 15 ordukoa izango da 10 ikasle baino gutxiagoko taldeetako irakasleentzat, eta 12 ordukoa gainerako taldeetako irakasleentzat. Gainera, Curriculum Aniztasuneko plazetako irakasle guztiek astean 2 ordu emango dituzte beren taldeko ikasleen banakako tutoretza-lanetan.

Eskola-orduetatik 9, gutxienez, Curriculum Aniztasuneko taldekoak izango dira, dagokien esparruan, eta gainerako orduak beren espezialitateko irakasgai propioak edo antzekoak ematen jardungo dute, edo, hala badagokio, hezkuntza-errefortzuko lanetan, irakaskuntza-dedikazioko orduak bete arte.

10 ikasle edo gehiagoko taldeetako irakasleen irakaskuntza-dedikazioaren murrizketa konpentsatzeko, hezkuntza-arretako orduen kopurua antzeko heinean gehituko da edo zuzendariak beste jardura batzuk esleituko dizkie, ikastetxean irakasle guztiek bete behar dituzten ohiko orduak lortzeko. Jardura horiek, ahal dela, aniztasunaren tratamenduan laguntzeko jarduerak izango dira.

2.7. HEZKUNTZAREN ETA OSASUN MENTALAREN ARTEKO LANKIDETZAREN ESPARRU OROKORRA

2018ko maiatzean jarri zen abian Hezkuntzaren eta Osasun Mentalaren arteko lankidetzaren esparru orokorra. Esparru horretan, zerbitzu horiekin koordinatzeari dagokionez lortutako adostasunak adierazten dira. Halaber, jaso egiten dira deribazio-ibilbideak, informazioa trukatzeko prozedurak, txosten-ereduak eta bi sistemetako profesionalen arteko harremanen inguruko zenbait gomendio, jardunbide profesional egokia erraztu dezaketenak.

Bai ikastetxeek bai laguntza-zerbitzuek erraztu egin behar dute lankidetzaren esparru hori garatzeak berekin ekar dezan esparru horretan arreta hobea ematea ikasleei eta haien familiei.

2.8. IKASLEEN ESKOLA-EGUTEGIA ETA -ORDUTEGIA

Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari dagokio ikasleen ohiko eskola-egutegia eta -ordutegia finkatzea, hezkuntza-etapa bakoitzeko arauak, ikastetxea zabalik egongo den denbora eta ikasleen ohiko eskola-ordutegitik kanpo egingo diren jarduerak errespetatuz.

Nolanahi ere, egutegi eta ordutegi arrunta Hezkuntzako sailburuordearen ebazpenaren arabera ezarri beharko dira. Ebazpen horren bidez, 2021-2022 ikasturterako eskola-egutegia egiteko arau osagarriak ematen dira.



Onartutako egutegia eta ordutegia ezingo dira aldatu ikasturtean zehar, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak behar bezala baimendutako salbuespenezko arrazoiengatik izan ezik.

Hurrengo ikasturteetarako ikastetxeko ordutegia aldatzeko, Hezkuntzako lurralde-ordezkararen berariazko baimena beharko da, prozedura honen arabera:

- Ikastetxeko zuzendaritzak egingo du proposamena, eta eskola-egutegiari buruzko araudian ezarritako baldintza guztiak bete beharko ditu.

- Proposamena irakasleekin, DBHko 3. mailatik aurrerako ikasleekin eta ikastetxeko gurasoekin kontsultatu beharko da, eta sektore horietako bakoitzean onartu beharko da, emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuaz eta sektore bakoitzeko erroldaren % 50eko gutxieneko partaidetzaz.

- Proposamena ikastetxeko OOGaren gehiengo osoz onartu beharko da.

Aurreko baldintzak bete ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan tramitatuko du aldaketa-eskaera, aribideko urteko otsaila baino lehen.

Lurralde Ordezkaritzak, egokitzen jotzen dituen txostenak bildu ondoren, aldaketa hori baimendu edo ukatuko du ikastetxeak matrikulen aurreinskripzioak egin aurretik, ikastetxeak hurrengo ikasturterako ordutegi-aldaketaren berri eman diezaien eskola-komunitateko kide guztiei (gurasoak, ikasleak eta irakasleak).

Hurrengo ikasturteetarako ikastetxeko ordutegia aldatzeko eskaeraren jatorria bada ikastetxeak egindako proposamen bat asteen arratsalde bat edukitzeko irakasleen prestakuntza-jarduerak egin ahal izateko, ez da beharrezkoa izango eskaera hori otsaila baino lehen tramitatzea. Aldaketa eskatzen den ikasturteko eskola-egutegia nola egin erregulatzen duen Hezkuntzako sailburuordearen ebazpenean adierazitako epeetan egin beharko da eskaera, ebazpen horretan ezarritako baldintzen arabera.

2.8.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak

236/2015 Dekretuak, abenduaren 22koak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta EAEn ezartzen duenak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako gutxieneko eta erreferentziazko ordutegiak ezartzen ditu.

Ordutegia nahitaez bete behar da ikasgai bakoitzeko minimoen banaketan eta etaparen gutxieneko ordutegiaren guztizko zenbaketan.

2.8.2.- Batxilergoko eta Lanbide Heziketako heziketa-zikloetako ikasleak

Eguneko erregimeneko Batxilergoko ikasleen asteko ordutegia ikastetxeak berak ezarriko du, indarrean dagoen araudian ezarritako gutxienekoak errespetatuz.

Batzilergoko ikastetxeek, nolanahi ere, irailaren 6ko 127/2016 Dekretuaren I. eranskinean modalitate bakoitzerako ezarritako gutxieneko ordutegiak errespetatuz egingo dituzte ordutegiak (dekretu horren bidez, Batxilergoko curriculumaz ezartzen da).

LOGSEk ezarritako heziketa-zikloetako ikasleen asteko ordutegia egokitu egingo da Lanbide Heziketako Zuzendaritzak prestakuntza-zikloak ezartzen dituzten ikastetxeei emandako 1998ko ekainaren 24ko jarraibideetan xedatutakora. LOEk ezarritako heziketa-zikloetako ikasleen asteko ordutegia egokitu egingo da heziketa-ziklo horiek nola ezarri erregulatzen duen araudian xedatutakora.



46/2016 DEKRETUA, martxoaren 15ekoa, Lanbide Heziketako hainbat tituluri dagokien curriculuma ezartzeko eta aurreko beste batzuekin lotutako titulu berriak hirugarren urte batean lortzeko ikastaro osagarriak sortzeko zenbait dekretu aldatzen dituen.

104/2016 DEKRETUA, uztailaren 7koa, Oinarrizko Lanbide Heziketako hogeitun tituluren curriculuma ezartzen duena.

2.8.3. Araudi horrekiko salbuespenak

Salbuespen gisa, Hezkuntzako dagokion lurralde-ordezkariek baimena eman ahal izango du araudi horretan aldaketak egiteko, baldin eta aldaketa horiek behar-beharrezkoak badira ikastetxean ematen diren maila guztietako ikasleen eskola-garraioko zerbitzuak koordinatzeko edo garraio- eta/edo jantoki-zerbitzu berberak partekatzen dituzten ikastetxeetakoak koordinatzeko.

2.9. IKASLEAK KLASERA BERTARATZEA

Ikasle ofizial guztien eskubidea eta betebeharra da eskolara bertaratzea, bai eguneko ikasketetan, bai gauekoetan. Inola ere ezin da borondatezko bertaratzea ezarri ikaslea matrikulatuta dagoen ikasgaietan.

- Edozein arrazoi dela eta, egun jakin batzuetan ikasle gutxi joateak ez du ditu ikastetxea eta irakasleak salbuesten eskolak normaltasunez ematek.

- Hutsegiteak gurasoek edo legezko tutoreek justifikatu beharko dituzte dagokion tutorearen aurrean, eta ikasketaburutzak onartu ditu. 18 urtetik gorako ikasleek hutsegiteen beren egiaztagiria aurkeztea erabakitzen badute, edozein lan-harremanetan eska daitezkeen egiaztagirien antzekoak aurkeztu beharko dituzte.

- DBHko ikasleei dagokienez, justifikatu gabeko hutsegiteak absentismo-jokabidetzat hartuko dira. Halakoetan, Hezkuntza Ikuskaritzak ikasturtearen hasieran horretarako jakinaraziko duen prozedurari jarraituko diote ikastetxeek. Nolanahi ere, ikastetxeek hutsegiteen berri emango diote zonako Ikuskaritzari, hil bakoitzaren 5a baino lehen, "Oharra eta hutsegiteak" aplikazioan sortutako txostenaren bidez.

- Lehen adierazitako puntuak kontuan hartuta, OOGak ikastetxeko AJAn finkatu beharko du ikasleen hutsegiteen erregulazioa eta horiek sorraraz ditzaketen neurri zuzentzaileak, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik (2008ko abenduaren 16ko EHAA).

Aipatutako 201/2008 Dekretuan ezarritako artikuluen arabera bidezkoak diren neurri zuzentzaileak aplikatzea bazter utzi gabe, ohiko eta ezohiko deialdietako azken proben bidez ebaluatu beharko dira ikasleak, baldin eta, hutsegite kopuru handia izateagatik, ezinezkoa bada ikastetxeak onartutako etengabeko ebaluaziorako metodoak eta irizpideak aplikatzea.

Ikastetxeek ezarriko dituzte proba horien ezaugarriak, eragiten dien irakasgaiaren edo moduluaren izaeraren arabera, indarrean dagoen araudian xedatutakoa beteta betiere.



2.10. ERLIJIOA

2.10.1 Erlijioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

Ikasle guztiek egingo dute Erlijioa, gurasoek edo legezko tutoreek edo, hala badagokio, ikasleak aukeratuz gero. Horiek, ikasturtea hasi aurretik, irakaskuntza horiek jaso nahi dituzten ala ez adieraziko dute. Erabaki horri automatikoki eutsi zaio ikasturte batetik bestera, salbu eta familiak edo adin nagusiko ikasleek berariaz bestelakorik adierazten badute. Ikastetxeak mekanismo egokiak ezarriko ditu informazio eguneratua izateko eta apirilean informazio hori hezkuntza-administrazioari jakinarazteko, hurrengo ikasturterako plangintza egokia egin dezan.

Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean izenpetutako Irakaskuntzari eta Kultura Gaiei buruzko Akordioan ezarritakoari lotuko zaio erlijio katolikoaren irakaskuntza.

Horretarako, erlijio katolikoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sartuko da ikasgai gisa, eta ikastetxeentzat nahitaez eskaintza izango da, eta borondatezkoa ikasleentzat.

Beste erlijio batzuen irakaskuntza egokitu egingo da Espainiako Estatuak Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Komunitate Juduen Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamikoarekin egindako lankidetzak-akordioetan eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio-konfesio batzuekin izenpetzen diren akordioetan xedatutakora.

Dagozkion agintari erlijiosoen esku dago curriculumak zehaztea, testuliburuak eta material didaktikoen erabilerari buruzko erabakiak hartzea eta, hala badagokio, horiek gainbegiratzea eta onartzea, sinatutako akordioetan ezarritakoaren arabera. Erlijio Katolikoaren irakaskuntzak LOMLOEren ondoriozko araudian zehaztutakoaren arabera ebaluatuko dira. Aipatutako gainerako erlijioen irakaskuntzaren ebaluazioa akordio horietan ezarritakora egokituko da.

2.10.2. Erlijioa Batxilergoan

Ikasleek gutxienez bi eta gehienez hiru irakasgai ikasi beharko dituzte multzo honetatik:

Batxilergoko 1. maila	Batxilergoko 2. maila
Musika Analisia I	Musika Analisia II
Anatomia Aplikatua	Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak
Kultura Zientifikoa	Marrazketa Artistikoa II
Marrazketa Artistikoa I	Marrazketa Teknikoa II
Marrazketa Teknikoa I (betiere beste multzo batean aukeratu ez bada)	Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak
Musika Hizkuntza eta Praktika	Filosofiaren Historia
Erlijioa	Irudia eta Soinua
Atzerriko Bigarren Hizkuntza I	Psikologia
Industria Teknologia I	Erlijioa
Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia I	Atzerriko Bigarren Hizkuntza II
Bolumena	Adierazpen Grafiko-plastikoko Teknikak
	Industria Teknologia II
	Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia II
Ikasleak aurrez aukeratu ez duen modalitate bateko irakasgaien multzoetako ikasgai bat	Ikasleak aurrez aukeratu ez duen modalitate bateko irakasgaien multzoetako ikasgai bat



LOMLOEtik eratorritako araudiaren zain, Erlijioa ikasgaia bera da Batxilergoko bi ikasturteetan, eta, ondorioz, ikasle batek 1. edo 2. mailan bakarrik egin ahal izango du. Ikastetxe bakoitzean arlo horretako taldeak eratzeko, multzo horretako gainerako ikasgaietarako baldintza berberak bete beharko dira.

2.11. LANBIDE HEZIKETAKO PROIEKTU-MODULUA. GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Proiektu-moduluaren helburua da Heziketa Zikloan eskuratutako gaitasunak eta konpetentziak integratzea. Horretarako, zeharkako konpetentziak garatzen lagunduko duten metodologiak erabiliko dira, hala nola talde-lana, ekimena, erantzukizuna eta komunikazio-estrategiak.

Proiektu-modulua heziketa-zikloaren azken zatian emango da, eta indibidualki kalifikatuko da, Lantokiko prestakuntza (LP) lanbide-modulua egin ondoren, eta ebaluazioaren emaitza edozein izanda ere. Hala, enpresan egindako praktikaldian eskuratutako gaitasunak modulu honetan sartu ahal izatea da helburua. Oro har, LP aldiarekin bat etorriko da, baina gainjartzen ez diren edo bat ez datozen egunak dituzten egutegietan. Edonola ere, beste aldi batzuk ere ezarri ahal izango dira, betiere metodologia- edo antolamendu-proiektuetan justifikatzen badira. Halako kasuetan, aldi berri horiek onartu eta ikastetxearen curriculum-proiektuan jaso beharko dira.

Lan-esperientzia izateagatik LPko modulutik erabat salbuesteko kasu berezian, ikasleek proiektu-modulua egin ahal izango dute, ikastetxean 1. zein 2. mailako modulu guztiak gainditu ondoren. LP modulua egiteari uko eginez gero, proiektu-modulua ezin izango da ebaluatu LP modulua bukatu arte.

Lanbide Heziketako ikastetxeek beren curriculum-proiektuan adierazi beharko dituzte goi- mailako heziketa-zikloetan proiektu-modulua gauzatzeko, horren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko irizpide orokorrak. Klaustroari dagokio irizpide horiek onartzea.

Irizpide orokor horiek zehaztu egin beharko dira, eta sail bakoitzeko programazioetara eraman, sailaren barruan onartu ondoren. Didaktika-sail bakoitzeko buruak arduratuko dira onartutako irizpideak zuzen aplikatzen direla zaintzeaz. Ikasketaburuak ikasleen proiektuen garapena gainbegiratu du eta bertan sor daitezkeen gorabeherak ebatziko ditu.

Ikastetxeko irakasleek ikasleen jarraipena eta tutoretza egiteko eredia jaso beharko da onartutako irizpideen artean. Lanbide Heziketako ikastetxeek ikasleei ikastetxean arreta emateko eredu bat aurreikusi ahal izango dute. Eredu hori datetan bat etorriko da proiektu-moduluarekin eta LParekin.

Proiektuak bakarka edo taldeka egin ahal izango dira, heziketa-ziko bakarrerako edo gehiagorako, parte hartzen duten didaktika-sailekin adostu ondoren. Heziketa-ziklo bereko edo desberdineko ikastetxe baten baino gehiagoren artean ere zehaztu ahal izango dira. Zikloko beste modulu batzuetara ere lotu ahal izango dira, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza-metodologiaren bidezko proiektu globalagoak garatuta. Proiektuetan ikasle bakoitzak landu behar dituen alderdiak ikasle hori ikasten ari den hezkuntza-zikloarekin lotuko dira.

Proiektu-modulu profesionala zehazteko, heziketa-zikloaren esparruko lan-jardueraren ezaugarriak hartuko dira kontuan. Haren helburua izango da heziketa-zikloko konpetentziak eta



horiekin lotutako ezagutzak barne hartzea. Halaber, tituluarekin lotutako aldagai teknologikoak eta antolaketakoak hartuko ditu kontuan.

Didaktika-sailak prestatu eta onartuko ditu proiektuak zehazteko irizpideak, eta tutoreak esleituko dizkie proiektuak ikasleei. Erabaki horien akta egingo da. Akta hori ikastetxeko ikasketaburuari igorriko diote.

Proiektu-modulua antolatzeke, banakako eta taldeko tutoretza hartuko da oinarri. Tutoretza hori modulu horretan irakasteko eskumena duten eta tutoretza esleitzen zaien irakasleek egingo dute, ikastetxeko zuzendaritza taldeak ezarritako irizpideen arabera.

Heziketa-ziklo bakoitzean proiektu-modulu hori egin behar duten ikasle guztientzako egingo du tutoretza kolektiboa taldeko tutoreak. Helburu hau izango du: ikasleek modulua zuzen garatu dezaten, proiektu-ereduaren xedeei, proiektu motei eta beste informazio garrantzitsu bati buruzko xedeen inguruan orientatzea.

Banakako tutoretzan barne hartuko dira proiektuaren inguruko orientazioa, aholkularitza eta zuzendaritza. Hala dagokionean, banakako tutoreak koordinatuko ditu proiektuan lankide d(ir)en enpresa(k), proiektua lankidetza horren bidez egitea erabaki balitz. Ikastetxeek tutoretza horri arreta emateko irakaskuntza-dedikazio presentzialeko aldiak ezarriko dituzte, xede horretarako emandako ordu-kredituaren edo zuzendaritza taldeak esleitutako beste baten kargura. Aldi horiek bat etorri ahal izango dira ikasleak Lantokiko Prestakuntza egin bitartean ikastetxera joateko aurreikusitako egunekin (adibidez, martxotik ekainera), baina ezin izango dute kointziditu Lantokiko Prestakuntza egiteko ikasleek enpresara joatea ezarrita duten egunekin eta orduekin. Ikasleen tutoretza presentziala komunikazio telematikoz osatu ahal izango da, behar izanez gero.

Ikasleak baino ez dira lanen jabeak izango. Hala ere, entregatutako materialen kopia bat ikastetxeak gordeko du. Kopia hori irakasteko erabili ahal izango dute.

LP modulua egiteko ohikoak ez diren aldiak baimentzen badituzte, ikastetxeko zuzendariak proiektu-modulua egiteko eta ebaluatzeko epeak egokituko ditu.

2.12. IKASLEEN EBALUAZIOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko prozesuaren erregulazioa abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuan jasotzen da (2016-01-15eko EHAA), ebaluazioa egiteko unean indarrean zegoen arauarekin kontraesanean ez dagoen guztian.

Batxilergoko ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko prozesua eta dagozkion administrazio-dokumentuak irailaren 6ko 127/2016 Dekretuan jasotzen dira (2016-09-23ko EHAA), ebaluazioa egiteko unean indarrean zegoen arauarekin kontraesanean ez dagoen guztian.

- Heziketa-zikloetako ikasleen ebaluazioa

Xedapen hauetan ezarritakoaren arabera egingo da:

- 32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (2008/03/05eko EHAA), otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatutakoa (2016/02/10eko EHAA).



- Agindua, 1997ko uztailaren 15ekoa (1997/10/03ko EHAA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Berariazko Lanbide Heziketa egin dezaten ikasleen ebaluazio-prozesua arautzen duena, 1998ko abenduaren 3ko Aginduak aldatutakoa (1999/02/03ko EHAA) (LOGSE ZIKLOAK).

- Agindua, 2010eko otsailaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duena (2010/03/24ko EHAA).

2.12.1. Ebaluazioari buruzko arau orokorrak

Paragrafo honetan xedatutakoa subsidiarioki aplikatuko da ikastetxeko AJAk ebaluazio-bilkuretarako araudi espezifikorik ezartzen ez badu.

a) Ebaluazio-bilkurak

Derrigorrezko bilerak dira irakasle-taldearentzat, eta taldeko tutoreak koordinatzen ditu orientatzailearen laguntzarekin, hala badagokio. Bilera horietan, bilkura bakoitzaren datara arte egindako ebaluazio-jardueren emaitzak dokumentu bidez jaso behar dira, taldekideek eztabaidatu ondoren.

Ebaluazio-bilkura baliozkotzat jotzeko, honako baldintza hauek bete beharko ditu, gutxienez:

- Irakasle talde osoak nahitaez egon behar du.
- Irakasleek tutorearen egoera-orrietan bete beharko dituzte ikasgai bakoitzari buruzko oharak eta estatistikak, baita ikasketaburuak eskatutako beste edozein dokumentu ere, ebaluazio-bilkura baino 24 ordu lehenago gutxienez.
- Tutoreak ikasgai bakoitzaren emaitzei buruzko txosten bat eta ebaluazio-bileran aztertu beharreko gaien gidoi bat aurkeztu beharko ditu. Gidoi hori bileraren hasieran aurkeztu eta, hala badagokio, onartuko da.

b) Bilkuraren akta

Ebaluazio-bilkura bakoitzeko ebaluazio-akta bat idatzi beharko da, eta akta horretan, gutxienez, alderdi hauek jaso beharko dira:

- Bertaratutako irakasleen zerrenda eta haien sinadura.
- Bertaratu ez diren irakasleen zerrenda, bidezko baimena baduten berariaz adierazita.
- Ikasgai bakoitzean lortutako emaitzen eta sortu ahal izan diren arazoen analisia.
- Taldearen egoera orokorrari buruzko analisia haren errendimendu akademikoarekiko, baita haren jarrerak eta arazoak ere, eta egoera bideratzeko hezkuntza-neurriak hartzea, beharrezkoa izanez gero.
- Banakako arazoen analisia, eta hezkuntza indartzeko neurriak edo bestelako jardunak erabakitzea.

**c) Ikasleek ebaluazio-bilkuran parte hartzea**

Ikastetxeko OOGak erabakiko du ikasleen ordezkariak noiz sar daitezkeen eta zer gaitan esku har dezaketen. Argi geratu behar da ikasleen banakako ebaluazioa eta gai pertsonalak taldeko irakasleek soilik jorratu behar dituztela.

d) Dokumentazioa

Ebaluazio-bilkuren ondoren, ikasketaburutzak emaitzen datu estatistikoak bilduko ditu, OOGan aurkezteko. Era berean, kalifikazioak Hezkuntza Sailaren noten eta hutsegiteen aplikazioan sartuko dira, "Ikasturte amaierako dokumentazio akademikoa" dokumentuko jarraibideak beteta.

e) Errendimendu akademikoa objektiboki balora dadin eskubidea

Ikasle orok bere errendimendu akademikoaren balorazio objektiboa egin dadin daukan eskubidea eraginkorra izateko, beharrezkoa da alde aurretik jakitea zein ebaluazio-irizpide eta gutxieneko helburu eta eduki eskatzen diren dagokion mailako eta kurtso bakoitzeko irakasgai bakoitzean ebaluazio positiboa lortzeko. Hortaz:

- Ikastetxearen curriculum-proiektuak eta didaktika-sailen dokumentazioak (bereziki haien programazio didaktikoenak) adierazitako alderdiak jaso beharko dituzte.
- AJAk bermatu beharko du ikasleek eta haien legezko ordezkariak dokumentazio hori eskuragarri dutela.

Ikastetxeek ikasturte bakoitzaren hasieran argitara emango dituzte ikasgai bakoitzaren ebaluazioan aplikatuko diren ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak.

Ikasleek eta, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak beren errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztien kopia eskatu ahal izango dute, haiek zuzendu ondoren, eta dagozkion alegazioak aurkeztu eta haiek berriki daitezen eskatu ahal izango dute. Zuzenketa ezin izango da mugatu kalifikazio kuantitatibo edo kualitatibo bat adieraztera. Aldiz, egindako hutsegiteen edo akatsen adierazpena edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua jaso beharko ditu.

AJAK erreklamazio-prozedura ezarriko du, berrikiuspen hori egiteko epeak eta baldintzak adierazita, eta kontuan hartuko du irakasleentzat lotesleak direla, curriculum ofizialaz gainera, ICPa, programazioak eta argitara emandako ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasleek ikasturtean zehar edonoiz probak, lanak eta ariketak eskuragarri izan ditzaten, irakasleek horiek ikastetxean gorde beharko dituzte ikasturte osoan eta, hala badagokio, erreklamatzeko azken aukera ebatzi arte.

Ikasleek ikusi ondoren, ohiko eta ezohiko deialdietako azken probak dagokion sailean gordailututa geratuko dira eta bertan urtebetez gordeko dira.

Kalifikazioen aurkako erreklamazioak aurkezteko eta ebazteko, ebaluazioari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako prozedurak aplikatuko dira.



Ikasleek ikasturtean zehar edonoiz probak, lanak eta ariketak eskuragarri izan ditzaten, irakasleek horiek ikastetxean gorde beharko dituzte ikasturte osoan eta, hala badagokio, erreklamatzeko azken aukera ebatzi arte.

Lanbide Heziketako heziketa-zikloetako ikasleen kasuan, Batxilergoko ikasleentzat ezarritako prozedura aplikatuko da.

2.12.2. Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleak (EUSLEko ikasleak barne) ebaluatzeko neurriak

HLPE ikasleei dagokienez, ebaluazio-prozesuak errazteko (lanak, proiektuak azterketak, etab. egitea), ikastetxeek neurriak hartu behar dituzte, hala nola: denbora gehiago ematea haiek egiteko; enuntziatuak sinplifikatzea; testuaren formatua ikasleentzako erraza izatea, haien beharren arabera; baliabide teknikoak erabiltzea, beharrezkoak badira; azterketak idatziz egin beharrean ahoz egiteko edo ordenagailuz egiteko aukera —batik bat, dislexia edo hiperaktibitatea diagnostikatuta duten ikasleentzat—; hasieran eta/edo bukaeran testua irakurtzea; ikasleei laguntza eman ohi dieten langileak azterketan egotea; ebaluazio-irizpideak egokitzea; etab. Azken batean, irisgarritasun unibertsalerako eta aukera-berdintasunerako eskubidea bermatzeko neurriak dira.

Norbanako curriculum-egokitzapenak dituzten ikasleei dagokien dokumentazio akademikoa Hezkuntzako sailburuordearen jarraibideen eta “Ikasturte amaierako dokumentazio akademikoa” dokumentuaren arabera egingo da.

Curriculumaren aldaketa garrantzitsuak jasotzen dituzten programak —hala nola EUSLE murgiltze-programa— dituzten ikasleen kasuan, ikasle bakoitzaren jardun-plan pertsonalizatua izango da ebaluazioaren erreferentzia.

2.12.3. Salbuespenak eta baliozkotzeak

a) Euskara eta Literatura ikasgaiaren salbuespena tramitatuko da Euskal Herriko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera erregulatzen duen uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan, dekretu hori garatzen duen 1983ko abuztuaren 1eko Aginduan eta Hezkuntza Sailburuordetzak emandako urteko ebazpenetan ezarritakoaren arabera.

Gainera, Hezkuntza Ikuskaritzako Lurralde Burutzak, ikasturte hasieran, ikastetxeetako zuzendaritzei idazki bat bidaliko die. Idazki horretan, Hezkuntzako sailburuordearen urteko ebazpena betetzeko jarraitu beharreko prozeduraren izandako berrikuntzak zehaztuko dira. Ebazpen horrek Euskara eta Literatura salbuesteko baldintzei buruzko jarraibideak ematen ditu. Aipatutako idazkian, honako alderdi hauek zehaztuko dira, besteak beste:

- Familiek egindako salbuespen-eskaerak.
- Ikastetxeek eskaerak kudeatzea, eskaera tipologiaren arabera.
- Tramitazioa.
- Eskaeren epea.

Gogorazten da Euskara eta Literatura ikasgaiaren salbuespena arlo horren ebaluazioari dagokiola soilik, eta ez ikasgaiaren irakaskuntzari. Beraz, nahitaezkoa da salbuespena jaso duten ikasleak klasera joatea eta aurrez ezarritako banakako plan baten arabera arreta jasotzea, matrikulatu diren ikasturteko curriculum-mailan arian-arian sar daitezen.

Ikasle guztiek, ahal duten neurrian, ikasgai guztietako edukiak eskuragarri dituzte, behar izanez gero dagozkion curriculum-egokitzapenak eginda eskolatuta dauden mailako ikasgai guztietan.

Bestalde, ikasleek desgaitasun fisiko iraunkor edo iragankorrak badituzte lesioak, gaixotasunak, etab. direla dela-eta, medikuen ziurtagirien arabera desegokiak diren ariketa fisikoak egokitzea aztertu behar da.

b) Musikako edo Dantzako lanbide-irakaskuntzak eta DBHko irakaskuntzak aldi berean egiten dituzten ikasleen **baliozkotzeak eta curriculum-egokitzapenak** emango dira baliozkotze horiek ezartzen dituen uztailaren 13ko 194/2010 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Batxilergoan matrikulatutako ikasleek, Musikako eta Dantzako lanbide-irakaskuntzak aldi berean egiten badituzte, gaindituta dituzten Musikako eta Dantzako irakasgaien arabera ikasi behar dituzten bi ikasgai espezifikoak baliozkotu ahal izango dituzte. Horretarako, lehen mailan bi irakasgaitan matrikulatu behar dute honako hauen artean: Anatomia Aplikatua, Musika Hizkuntza eta Praktika eta Musika Analisia I. Bigarren mailan Musikaren eta Dantzaren Historian eta Musika Analisia II n matrikulatuko dira. Ikasleek Batxilergoa egiten duten ikastetxeetako zuzendaritzek ikasgai horietan matrikulatuko dituzte ikasleak, ikasgai horiek emateko talde bat egoteko beharrik gabe, eta, ondoren, baliozkotu egingo dituzte, baldin eta ikasleek ikasgai horiek gaindituta badituzte Musikako edo Dantzako lanbide-irakaskuntzetan, taula hauen arabera:

Baliozkotuko den Batxilergoko ikasgaia	Zein ikasgairekin baliozkotu daitekeen
Musika Analisia I	Harmoniako bigarren maila
Musika-analisisa II	Analisisiko lehen maila, Konposizioaren Oinarrietako lehen maila edo Konposizioko eta Moldaketetako lehen maila
Musikaren eta Dantzaren Historia	Musikaren Historiako lehen eta bigarren mailak
Musika Hizkuntza eta Praktika	Instrumentu Nagusiko edo Ahotseko hirugarren maila
Anatomia Aplikatua	Dantzari aplikatutako Anatomiako lehen eta bigarren mailak
Musikaren eta Dantzaren Historia	Dantzaren Historiako lehen eta bigarren mailak
Musika Hizkuntza eta Praktika	Musikako hirugarren maila



Baliozkotze eta curriculumaren egokitzapen horiek eskatzeko epea urriaren 15ean amaitzen da. Institutuko zuzendariak azaroaren 1a baino lehen ebatzi behar du eskaera, eta ebazpen horien kopia azaroaren 15a baino lehen bidali beharko dio Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Ikasketa Antolamenduko Zerbitzuari.

Musikako edo Dantzako lanbide-irakaskuntzetako titulua duten eta ikasgai ardatzak (edo Batxilergoko modalitate guztietarako ikasgai komunak) ikasita Batxilergoko titulua lortu nahi duten ikasleek, ikasgai horietaz gainera, Artearen Oinarriak I eta II ikasgaietan eta, hortaz, Arte Batxilergoaren modalitatean matrikulatu beharko dute.

c) Batxilergoko salbuespen partziala: Indarrean dagoen araudiaren arabera tramitatuko dira:

- 1998ko uztailaren 24ko Aginduaren 17. artikulua (1998-08-31ko EHAA).
- 2010eko uztailaren 26ko Aginduaren 11. artikulua (2010-09-09ko EHAA).

Salbuespen horietarako epeak:

- Ikastetxeko zuzendaritzak proposamena behar bezala dokumentatuta bidaliko dio Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Burutzari irailaren 29rako (lehen aipatutako artikuluetan xedatutakoaren arabera).
- Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Burutzak behar diren txostenak eskatuko dizkie eskualdeko Hezkuntzako Ikuskaritzari eta Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroari (Berritzegune), eta horiek gehienez ere bi asteko epean beteko dituzte: urriaren 16rako.
- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-ordezkaritzek Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari igorriko dizkiote horrela betetako espedienteak urriaren 30a baino lehen.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak dagozkien ebazpenak azaroaren 10a baino lehen igorriko dizkie ikastetxeei, eta ikastetxeek ikasleei emango diete horien berri azaroaren 17a baino lehen.

d) Heziketa-zikloak egiten dituzten ikasleen salbuespenak, baliozkotzeak eta korrespondentziak xedapen hauetan ezarritakoaren arabera egingo dira:

- ECD 2159/2014 Agindua, azaroaren 7koa, Espainiako hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak ezartzen dituena:

d.1) LOGSE zikloak:

- 2001eko abenduaren 20ko Agindua (2002/01/09ko BOE), uztailaren 9ko ECD 1842/2002 Aginduaren bidez aldatua (2002/07/19ko BOE).
- Lanbide Heziketako Zuzendaritzaren jarraibideak, 1998ko azaroaren 9koak, heziketa-zikloetako baliozkotze- eta korrespondentzia-sistemari buruzkoak.

**d.2) LOE zikloak:**

- 32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (2008/03/05eko EHAA), otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatua.
- Agindua, 2010eko otsailaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duena (2010/03/24ko EHAA).
- Heziketa-zikloetako curriculumak ezartzen dituzten dekretuak.

d.3) Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak:

- Otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretua, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifiko batzuk arautzen dituena, hamalau oinarrizko lanbide-titulu onartzen dituena, haien oinarrizko curriculumak finkatzen dituena eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzei dagozkien titulu akademikoak eta lanbide-tituluak emateari buruzko abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretua aldatzen duena. 19. artikulua. Baliozkotzeak eta salbuespenak.
- 86/2015 Dekretua, ekainaren 9koa, EAEn Oinarrizko Lanbide Heziketa antolatzeari eta ezartzeari buruzkoa. 20. artikulua. Baliozkotzeak eta salbuespenak.

Epeak: (14/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, 27 bis artikulua)

Lanbide-moduluak baliozkotzea eta/edo Ingeles teknika lanbide-modulutik salbuestea: Ikasleak matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariari eskaera aurkeztuko dio ikasturte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen edo, salbuespen gisa, matrikulatu eta hurrengo 10 egunetan, matrikulazioa epe horren amaieran egiten bada.

Lantokiko prestakuntza lanbide-modulutik salbuesteko eskaera egin ahal izango da dagokion azken ebaluazioaren data baino lehen ebatzi ahal izateko behar besteko aurrerapenaz.

Ikaslea zer ikastetxetan matrikulatuta dagoen eta bere espediente akademikoan zer ikastetxe ageri den, ikastetxe horretako zuzendariak ebatziko du aurreko araudietan berariaz adierazitako baliozkotzeak eta salbuespenak onartzen diren, eskaera egiten denetik hilabeteko epean, gehienez ere.

e) Beste ikaskuntza-arlo batzuk

Gainerako ikasgaiei dagokienez, Hezkuntza Sailak ez du aurreikusi beste salbuespenik. Nolanahi ere, ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak (Hezkuntza Berezia antolatzen duena) xedatzen duenari jarraituz, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle bakoitzak izan behar du bere bilakaeraren une bakoitzean behar duen hezkuntza, eskola inklusiboaren esparruan.

Nork bere ahalbideen neurrian, ikasle guztiek dute aukera ikasgai guztietako edukiak eskuratzeko, maila bakoitzeko ikasgai bakoitzeko curriculumaren egokitzapenak egin baitaitezke beharrezkoa bada.

Bestalde, ikasleek desgaitasun fisiko iraunkor edo iragankorrak badituzte lesioak, gaixotasunak, etab. direla dela-eta, medikuen ziurtagirien arabera desgokiak diren ariketa fisikoak egokitzea aztertu behar da.



2.13. DIAGNOSTIKO-EBALUAZIOA

Diagnostiko-ebaluazioak Hezkuntza Sailaren eta ikastetxe guztien artean partekatutako erantzukizuna dira, oinarritzko irakaskuntzen curriculumari buruzko Dekretuaren 54. artikulua araberako, eta hobetzeko aukera eta erronka gisa ulertu behar dira ikastetxeen eta euskal hezkuntza-sistema osoaren aldetik.

Testuinguru horretan, zuzendaritza-taldearen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen erantzukizuna da haiek egin daitezen bermatzea eta emandako informazioa behar bezala tratatzea. Informazio hori diskrezio handienarekin tratatuko da, eta ikastetxeko hezkuntza-komunitateko ezein kide ezin izango du argitaratu, ez banaka, modu kolektiboan.

Diagnostiko-ebaluazio hori nahitaez bete beharrekoa da, baina ez du ondorio akademikorik ikasleentzat. Funtz publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietan egingo da, eta helburu du konpetentzia-maila egiaztatzea eta maila hori hobetzeko neurri egokiak ezartzea. Hezkuntza Ikuskaritzari dagokio ikasleen eta irakaskuntzaren ebaluazio-prozesua nola garatzen den gainbegiratzea.

2021-2022 ikasturteko bigarren lauhilekoan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleen irteera-profilaren diagnostiko-ebaluazioa egingo da, eta EAEko ikasleen lagin batek parte hartuko du.

2021-2022 ikasturtean, hezkuntza-komunitateak IUPeen sartutako hobekuntza-helburuetan adostutako zereginak sistematikoki ezartzen jarraituko dute ikastetxeek. Horretarako, Hezkuntza Ikuskaritzaren eta eskualdeko berritzegunearen aholkularitza eta laguntza izango dute.

2.14. EGOKITZAPENAK UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIOAN (USE)

Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleek sarrera-probak egiteko egokitzapenak eskatu ahal izango dituzte. Sarrera-probetarako egokitzapen motak ikusteko, esteka honen bidez sar daiteke: [Bigarren hezkuntzako ikastetxeek eskabidean txertatzeko txostenen eredua](#).

3. IRAKASLEAK ETA HEZKUNTZAKO PERTSONALA

Irakasleen eginkizunak 236/215 Dekretuaren eta 127/2016 Dekretuaren 30. artikuluan daude jasota. Gainera, atal honetarako, kontuan hartuko da honako hauetan jasotakoa: Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legea (batez ere, funtzionarioen eskubide eta betebeharrei, falta eta zehapenei, kode deontologikoari eta abarri dagokienez) eta indarrean dauden lan-akordio eta -hitzarmenetan.



3.1. IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETA

Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legearen 36.f) artikuluan xedatzen duenez, zuzendaritza-taldearen egitekoa da irakasle taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara atxikitzeko irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran, gai hori erregulatzen duten arauen arabera.

Ikastetxeko zuzendaritzak moldakortasun- eta egokitasun-printzipioen arabera egin beharko ditu esleipen guztiak, kontuan hartuta ikastetxearen antolaketarik onena eta ikasleen beharrak, sailen eta irakasleen proposamenak entzun ondoren.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36.2.f eta 41.c artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ikasketaburutzak irakasle bakoitzari esleitu ditzake eman beharreko ikastaroak eta taldeak, zuzendaritza-taldeak ezarritako irizpideak kontuan hartuta eta irakasleei ikasgaiak esleitzeari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa errespetatuz.

Era berean, zuzendaritza-taldeari dagokio hezkuntza-kudeaketarako esleitutako zereginak eta ordu-kreditua banatzea IUPeen jasotako proiektuen ardura duten pertsonen artean.

Zuzendaritza-taldeak egin beharreko zereginak esleitu ondoren, nahitaez bete beharko dira. Dena den, zuzendaritza-taldeak behar diren aldaketak egin ahal izango ditu ikasturte hasieran aurrekusi gabeko beharrei erantzuteko, behar bezala justifikatuta eta zentroko langileen lan-eskubideak errespetatuta.

3.1.1.- Ikasgaiak eta taldeak banatzea

Irakasgaiak eta taldeak esleitzeko, kontuan hartuko dira irakaskuntza-eginkizuna eta -esleipena erregulatzen duten arauak, langileak atxikita dauden lanpostua, ekitate-irizpideak eta irakaskuntzaren kalitatea bilatzeko irizpideak, baita honako irizpide eta arau hauek ere:

a) Irizpideak:

- Ikastetxean behin betiko destinoa duten irakasleei zailtasun handiena dakarten edo jarraipen espezifiko behar duten taldeak esleitzea bultzatuko da.
- DBHn, halaber, taldean esku hartzen duten irakasleen kopurua antolaketa-neurrien bidez murrizten saiatuko da, espezialitatei buruzko Errege Dekretuan ezarritako ikasgaien esleipena bazter utzi gabe.
- Aurreko bi irizpideak bereziki kontuan hartuko dira DBHko lehen bi mailetan. Maila horietako ikasleei ahalik eta arretarik egokiena ematen zaiela bermatu behar dute didaktika-sailek. Horretarako, sail horietako kide guztiak inplikatu beharko dira, bai curriculum-plangintzarekin lotutako gaietan, bai ikastetxeko taldeentzako arreta banatzeari dagokionez, hargatik eragotzi gabe maila horietara atxikitako maisu-maistrek duten lehentasuna.
- Eguneko eta gaueko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan, bi txandak irakasle bakar bati esleitu ahal izango zaizkio, baldin eta bestelako antolaketa-aukerarik ez badago. Ikasketaburutzak bere eginkizunak betetzen dituen txandan eman beharko ditu eskolak.



b) Arauak:

- B eta/edo D ereduko taldeak dituzten ikastetxeetan, HE2 hizkuntza-eskakizuneko lanpostua duen ezein irakasleek ezin izango ditu eskolak eman A ereduko taldeetan, ezta gaztelaniaz ematen diren B ereduko irakasgaietan ere, baldin eta estalita ez badaude D ereduko taldeei eta euskaraz ematen diren B ereduko ikasgaiei dagozkien espezialitateko orduak.
- Ikastetxearen premiek hala eskatzen badute, IRALE programaren bidez edo sail honek diruz lagundutako beste ikastaro batzuen bidez akreditazioa lortu duten HE2ko irakasleei eskolak euskaraz emateko eskatu ahal izango zaie, HE1eko lanpostu bati atxikita badaude ere.
- DBHko lehen eta bigarren mailetakoko maisu-maistrek maila horietan bakarrik eman ditzakete eskolak, eta lehentasuna dute horietan irakasteko.
- Espezialitate bakoitzari dagozkion ikasgai guztien guztizko ordu kopurua zenbatuko da, eta espezialitate horietako irakasleei esleituko zaizkie. Hizkuntza Indartzeko, Curriculum Aniztasuneko eta Zereginen Ikaskuntzarako Gelako orduak lanpostu horietako irakasleei esleituko zaizkie.
- Espezialitate bateko irakasleek beren espezialitatearen berezko irakasgaiekin osatu baditzakete beren ordutegiak, hala egingo dute, eta ez zaie esleituko beste espezialitate bateko ikasgairik. Era berean, Hizkuntza Indartzeko, Curriculum Aniztasuneko eta Zereginen Ikaskuntzarako Gelako irakasleek, beren lanaldia osa badezakete beren lanpostuari dagozkion orduekin, hala egingo dute, eta ez zaie beste ikasgairik esleituko.
- Espezialitateren edo lanposturen batek ezin baditu irakasle guztien ordutegiak osatu bere espezialitatearen eta lanpostuaren arabera dagozkion ikasgai eta taldeekin, ikastetxeko ikasketaburutzak, beste espezialitate edo lanpostu batzuetako soberako orduak baliatuta, ordutegia osatzeko beharrezkoak diren ikasgaiak eta taldeak esleituko dizkie ordutegi osoa ez duten pertsonen, baldin eta eskakizunak betetzen baditu. Horretarako, dagozkion espezialitateko edo lanpostuko ikasgaiekiko curriculum-hurbiltasun handieneko ikasgaiak esleituko dira, eta, haien barruan, ahal den neurrian, espezializazio-maila txikiagoa eskatzen duten ikasgaiak. Horretarako, ordezkapenei buruzko araudiaren eranskinetan ezarritako kidetasun-taulei jarraituko zaie.

3.1.2. Irakasleen ordutegiak prestatzea

Irakasle bakoitzari dagozkion taldeak esleitu ondoren, ikasketaburutzak klaustroak ezarritako irizpide pedagogikoen arabera prestatuko ditu ordutegiak, eta irizpide horiek AJAn jaso beharko dira.

Ordutegiak prestatzeko garaian, ahal den neurrian, eta lehen aipatutako irizpideei jarraituz betiere, bereziki kontuan hartuko da eskolak txanda desberdinetan (goizez, arratsalde, gauez) eta ikastetxe eta/edo eraikin desberdinetan eman behar dituzten irakasleen egoera; tokiko batzordeetan nahiz eskualdeko prestakuntza-mintegietan parte hartu behar dutenena; gaixotasun kronikoa edo mugikortasun-arazoak dituzten senideei arreta emateko baimena duten irakasleena; etab. Hala, saiatu behar da inguruabar horiek irakasle horiei ahalik eta eragozpen txikiak sortzeko moduan prestatu beharko dira ordutegiak.

Ordutegia ezin izango da aldatu irakasleen ondorengo hobespenengatik.



3.1.3. Ikasgaien eta taldeen banaketa eta ikastetxearen ordutegia onartzea eta jendaurrean jartzea

Irakasleek nahitaez bete behar dute ikasketaburutzak prestatutako eta zuzendaritzak onartutako ikasgaien, taldeen eta ordutegiaren esleipena.

Ikastetxearen ordutegia une oro agerian, ongi ikusteko lekuan, eduki behar da beti, irakasle-gelako eta ikasketaburuaren bulegoko iragarki-tauletan eta ikastetxeko estamentu guztientzat ikusgai dagoen beste leku batean. Halaber, zuzendaritza-kargu bakoitza ikastetxean egongo den ordutegia adierazi behar da bertan.

Gainera, ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren eskura egon behar du, eta datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat etorri.

3.2.- URTEKO LANALDIA

Lanaldi eta egutegi motak edozein direla ere, irakasleen dedikazio-erregimena 1.462 ordukoa izango da. Ebazpen honetan erregulatu egiten da asteko lanaldiko jarduna, lanaldi horren banaketa curriculumarekin emateko ordutegian, ordutegi osagarria eta ikastetxean egoteko ordutegia.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 34. artikuluan adierazten denez, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 50. artikuluekin bat etorriz, irakasle funtzionarioek eskubidea izango dute urte natural bakoitzean hogeita bi egun balioduneko opor ordainduak izateko, edo proportzioan dagozkion egunetakoak, urtean zehar zerbitzu-denbora laburragoa balitz. Ondorio horietarako, larunbatak ez dira egun balioduntzat hartuko.

Oporraldi hori urte bakoitzeko abuztuan zehaztuko da. Iraileko lehen lanegunean, irakasle guztiek beren ikastetxean eta beren lanpostuan egon beharko dute.

Oporraldia eten ahal izango da gaixotasun edo istripuren bat gertatzen bada, eta interesdunak oporraldia osatzeko eskubidea izango du, inguruabar horiek desagertu eta medikuaren alta jaso ondoren. Hartu gabeko oporraldia aldi bakarrean hartuko da, ahal dela, eskolarik eman behar ez denean.

3.3.- ASTEKO LANALDIA

a) Dedikazio arrunta duten irakasleak

Irakasleek ikastetxean astean 30 orduko zuzeneko dedikazio arrunta izango dute. Astean gutxienez 23 ordu ikastetxeko ohiko egonaldikoak izango dira, eta ordu horien artean daude curriculumarekin irakasteko orduak, ikasleekiko tutoretza-orduak, hezkuntza-errefortzuko orduak, IHPan jasotako ikasleen parte-hartzea duten proiektuetan emateko jarduerak-orduak eta hezkuntza-arretako orduak (jolasgaraiko zaintza eta jagoletzak).

Gainera, kontuan hartuko dira gurasoei arreta emateko orduak, talde-tutoretzaz bestelako tutoretza-lanak egiteko orduak, didaktika-sailaren bileretan edo koordinazio



pedagogikoko beste bilera batzuetan egiten direnak, prestakuntza-jardueretara zuzendutakoak eta IHPa garatzen laguntzen duen jarduera orotan ematen direnak.

Irakasleen koordinazioa, lankidetzeta eta prestakuntza bultzatzeko, gomendatzen da asteko dedikazio- eta egonaldi-ordutegia bat etortzea irakasle guztientzat.

Ikastetxean zuzenean dedikatu beharreko **asteko gainerako 7 orduak hilero zenbatuko dira**, eta zeregin hauetara bideratuko dira: sail bakoitzaren askotariko jarduerak (programazioa, materialen diseinua, proiektuen edo programen ebaluazioa, etab.); kide anitzeko organoen bilerak; ebaluazio-batzordeak; ikastetxea planifikatzeko eta antolatzeke tresnak prestatzea; taldeko edo kurtsoko irakasleak koordinatzeko bilerak; hizkuntza-proiektuaren batzordeari, aniztasunari erantzuteko planari, bizikidetzeta-planari eta tutoretza-planari dagozkien zeregin jakin batzuk; eta bestelako jarduera eskolaz kanpokoak eta osagarriak.

Ikastetxean zuzenean dedikatu beharreko ordu horien barruan, zuzendaritzak **irakasle guztiak aldi berean egoteko aldi jakin batzuk** ezarri ahal izango ditu, irakasle guztiak batera egotea eskatzen duten koordinazio-lanak egiteko, hala nola ikastetxeko prestakuntza-planetik erator daitezkeenak. Irakasle guztien aldi bereko egonaldi horiek ikastetxeko zuzendaritzak zehaztuko ditu ikasturtearen hasieran, eta hilean edo astean behin ezarri ahal izango dira.

7 ordu horien plangintza zehatza IUPea jaso beharko da.

Gainerako orduak, ikastetxean zuzenean dedikatu behar ez diren ordutzat hartzen direnak (1.462 ordu gehienez), irakaskuntza-jarduerak prestatzera, azterketak zuzentzera, borondatezko eta banakako lanbide-hobekuntzara eta irakaskuntza-eginkizunarekin lotutako beste gai batzuetara zuzenduko da.

Ikastetxeko zuzendaritzak antolatuko du jolasgaraian edo jolasgaraietan ikasleei eman beharreko arreta, eta jolastokietan eta ikastetxeko beste gela batzuetan dauden ikasle guztien zaintza eta jagoletza aktiboa bermatzeko behar diren irakasleen kopurua esleitu dio zeregin horri. Ikasleen adinaren eta artatu beharreko espazioaren ezaugarrien arabera zehaztuko da irakasle/ikasle ratioa.

Heziketa-zikloetako moduluen sekuentziak egoki eta koherentea lortzeko, modulu horiek ematen dituzten irakasleek, ikasturteko aldi jakin batzuetan, asteko 25 eskola-ordu eduki ahal izango dituzte gehienez, betiere erreferentziatzen hartuta urtean ematea dagokien curriculum-orduen guztizko kopurua, duten dedikazio motaren arabera.



(Lanaldi arrunta duen irakaslearen asteko ordutegiaren eskema)

IRAKASLEEN JARDUNALDIAREN LABURPENA					
1.462 ordu URTEKO LANALDIA	ASTEAN 30 ORDUKO ZUZENEKO DEDIKAZIO ARRUNTA IKASTETXEAN	IKASTETXEKO OHIKO EGONALDIKO 23 ORDU ASTEAN		17/18 ORDU ASTEAN	• ESKOLAK EMATEA • HEZKUNTZA- INDARGARRIAK
			20 ORDU ASTEAN	2/3 ORDU ASTEAN	• TUTORETZA • HEZKUNTZA- ARRETA (JAGOLETZAK)
			3 ORDU ASTEAN	• -SAILAREN BILERAK • -BILERAK FAMILIEKIN, KOORDINAZIO- BILERAK... • -PRESTAKUNTZA • BESTELAKO JARDUERAK	
		7 ORDU ASTEAN JARDUERA OSAGARRIETARAKO (Ez, nahitaez, ohiko egonaldikoak)	• SAILAREN JARDUERAK • BILERAK (KLAUSTROAK, IKASGUNEAK...) • EBALUAZIO-BATZARRAK • HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOKO BATZORDEA, BERRIKUNTZA-PROIEKTUAK, IKASTETXEAREN PROIEKTUAK •		
	GAINERAKO ORDUAK, URTEKO LANALDIA OSATU ARTE	• ESKOLAK PRESTATZEA • BILERAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK PRESTATZEA • PROGRAMAZIOAK PRESTATZEA • AZTERKETAK ZUZENTZEA • LANBIDE-HOBEEKUNTZA • BESTE IRAKASKUNTZA-JARDUERA BATZUK			

Hezkuntza-indargarria

Ikastetxe bakoitzak, Aniztasunaren Arretarako Planaren esparruan, Hezkuntza Indartzeko Plana ezarri behar du. Plan hori irakasleek beraiek diseinatutako hezkuntza-neurriez (banakakoak edo kolektiboak) osatuta egongo da, eta ohiko eskola-zailtasunen aurrean ikasleen ikaskuntza indartzera bideratuta egongo da. Irakasle guztiek hartu behar dute konpromisoa zeregin horretan, eta, batez ere, konpetentzien hasierako garapen-mailan dauden ikasleengan jarri behar dute arreta. Sailak "Hezkuntza indartzeko banakako plana (HIBP) egiteko orientabideak oinarritzko hezkuntzan" dokumentua du. Dokumentu hori erreferentziatzen har daiteke beharra duten ikasleen banakako planak prestatzeko.



Indartzeko Planean jaso egingo dira bertan parte hartuko duten profesionalak, zeregin horretarako erabiliko den ordu-kreditua eta helburu hauetarako ekintza eta estrategia egokienak:

- Talde batean irakasle bat baino gehiago egotea jarduera batzuetan. Ikasleei arreta emateko.
- Mailaz igo arren aurreko ikasturteko ikasgairen bat gainditu gabe duten ikasleentzako erantzuna.
- Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen errehabilitazioak ikasgelatik eta ohiko eskola-ordutegitik kanpo.
- Etxean ikasteko beharra duten ikasleei arreta pedagogikoa ematea.

Era berean, kontuan har lezake ordu-kreditua aldatzeko aukera, ikasturtean zehar eskolatze berrien ondorioz sortzen diren premiei erantzuteko. Ikasle etorkin asko dituzten ikastetxeek neurri bereziak izango dituzte.

b) Lanaldi-murrizketa duten irakasleak

Lanaldi-murrizketa familia eta lana kontziliatzeko eskatu bada, ikastetxeetako zuzendaritzek ahal duten guztia egingo dute interesdunaren ordutegia eskatutako kontziliazioaren arabera izan dadin, betiere horrek ez badu eragin negatiborik ikasleen arretan.

- Lanaldiaren 1/2ko murrizketa

Lanaldi efektiboa 1/2 murriztuz gero, Bigarren Hezkuntzako irakasleek astean 15 orduko lanaldia izango dute, eta horietatik asteko 11 irakasteko eta curriculum emateko izango dira. Bai ordu horiek, bai ikastetxean egoteko gainerako 4 orduak —asteko lanaldia osatzen dutenak—, bai ikastetxean zuzenean dedikatzen ez diren gainerako orduak 3.3.a. atalean aipatzen diren zereginetara bideratuko dira, eta arreta berezia jarriko da prestakuntza-denboran, zuzendaritzak hala irizten badio.

- Lanaldiaren 1/3ko murriztea

Lanaldi efektiboa 1/3 murriztuz gero, Bigarren Hezkuntzako irakasleek astean 20 orduko lanaldia izango dute, eta horietatik asteko 15 irakasteko eta curriculum emateko izango dira. Bai ordu horiek, bai asteko lanaldia osatzen duten gainerako 5 orduak, bai ikastetxean zuzenean dedikatzen ez diren gainerako orduak 3.3.a. atalean aipatzen diren zereginetara bideratuko dira, eta arreta berezia jarriko da prestakuntza-denboran, zuzendaritzak hala irizten badio.

- Lanaldiaren 1/3 duten irakasleen ordutegia

Irakasle horien ordutegia asteko 10 ordukoa izango da, eta horietatik 7 irakaskuntza-dedikaziokoak izango dira. Ordutegi horrek irakasle titularrena osatu beharko du, ikasleen arreta bermatuta gera dadin.

- Osasun-arazo larriengatik lanaldi-murrizketa duten irakasleak

Osasun-arazo larriak dituzten irakasleek lanaldiaren heren bateko murrizketa badute, zuzeneko irakaskuntza-orduak astean 6 ordu murriztu ahal izango dituzte. Murrizketa horrek ez du esan nahi ikastetxean egoteko ordutegia murriztuko denik.



Murrizketa-ordu horiek zuzendu beharko dituzte zereginak egitera, liburutegiko lanetara, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak antolatzen laguntzera, hezkuntza-arretako zereginetara eta ikastetxeko zuzendaritzak eskatzen dizkien antzeko beste lan batzuetara. Jarduera horietan emandako orduak beren ordutegi pertsonalean jasoaraziko dira.

- Gaixotasun kronikoa duten senideei arreta emateko baimena duten irakasleak

2. mailara arteko senide bat zaintzeko baimena —indarrean dagoen erabaki arauemailean jasotakoa— duten irakasleek gehienez 50 ordu izango dituzte ikasturte bakoitzeko. Baimen hori ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinatuta baliatu behar da, eskatzaileak ematen duen zerbitzuaren beharrak beteta gera daitezen, eta baimen hori gauzatzeko garaian, behar den koherentzia pedagogikoa eta antolamendukoa bermatu beharko da.

Irakasleen ordutegiak prestatzean, ikasleenganako zuzeneko dedikaziokoak ez diren haien orduak banatzeko, kontuan hartuko dira baimen hori eman zaien pertsonak adierazitako beharrak. Baimen horrek ez dakar berekin aldezturik ezarritako ordutegia aldatzeko eskubiderik.

Eskatzailearen eta ikastetxeko zuzendaritzaren artean desadostasunik badago baimen hori baliatzeari dagokionez, eta interesduna ez badago ados zuzendaritzaren erabakiarekin, erreklamazioa jarri ahal izango du Hezkuntzako lurralde-ordetzariaren aurrean, eta horrek ebatziko du erreklamazioa, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena jaso ondoren.

c) Ezohiko egoerak

- Zuzendaritza-karguak dituzten irakasleek kargua betetzeko orduak har ditzakete hezkuntza-arretako orduen ordez, betiere hori posible bada eta hezkuntza-arretako ordu guztiak behar bezala betetzen badira.

- Didaktika-sail bateko irakasleek beste sail bateko ikasgaiak ematen badituzte, zuzendaritzak baimena eman ahal izango die hezkuntza-arretako orduetako bat bigarren sailaren bileretako orduekin ordezkatzeko.

- Irakasle batek oro har ezarritakoak baino eskola-ordu gehiago eman behar baditu asteen, soberakina kendu egingo zaio hezkuntza-arretako ordutegitik.

- Zuzendaritzak irakasleren baten hezkuntza-arretako orduak beste jarduera espezifiko batzuekin trukatu ahal izango ditu, betiere hori posible bada eta hezkuntza-arretako ordu guztiak behar bezala betetzen badira.

- Irakasle batek, zerbitzuaren premiak direla-eta, tutoretza bat eta beste kargu bat betetzen duenean, hezkuntza-arretako orduen ordez, bigarren karguaz arduratzeko orduak ezarriko dira, betiere hori posible bada eta hezkuntza-arretako ordu guztiak behar bezala betetzen badira. Ordainsariari dagokionez, karguetako baten osagarri espezifikoa soilik kobratuko da, eta erabaki hori dagokion irakaslearen esku geratuko da.

- Ikastetxeko hezkuntza-arretarako ordutegi bat antolatu beharko da beharrak betetzeko, ikastetxearen tamainaren eta ematen dituen hezkuntza-etapen arabera, arreta berezia jarrita jardunaldi bakoitzeko lehen eta azken saioetan. Eskakizun hori betetzeko, zuzendariak irakasleen hezkuntza-arretako orduak gehitu ahal izango ditu, behar izanez gero.

- Irakasleren batek irakaskuntza-dedikazioko orduen gutxieneko kopurua betetzen ez badu eta bere ordutegia beste ikastetxe batean osatu behar badu, inguruabar hori kontuan



hartuko da haren ordutegiak prestatzeko garaian. Ahalegina egingo da egun berean ikastetxe desberdinetan eskolak eman behar ez izateko, eta, hori ezinezkoa denean, joan-etorrien denbora islatu egingo da hezkuntza-arretako orduen eta ikastetxean egon beharreko ohiko beste ordu batzuen murrizketan.

d) Irakasleen ordutegi pertsonala

Ikastetxeko egonaldi arrunteko orduak asteko egun guztien artean banatuko dira. Egunero gutxienez hiru orduz egon beharko dute ikastetxean, astelehenetik ostiralera, lanaldi osoa duten irakasleek. Lanaldiaren 2/3, 1/2 eta 1/3 duten irakasleek, berriz, ikastetxean gutxienez bi orduz egon beharko dute gutxienez lau, hiru eta bi egunez, hurrenez hurren. DBHko eta Batxilergoko irakasleek egunean gehienez 5 eskola eman ahal izango dituzte, eta heziketa-zikloetakoek egunean gehienez 6 eskola-ordu.

Enpresako prestakuntzaren tutoretza-orduak (Lantokiko prestakuntza —LP—, Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala), ondorio guztietarako, curriculum emateko ordutzat hartuko dira. Hala, ikasketaburutzari bisita-plan bat eta ordutegi hori erabiltzeko plan bat aurkeztu beharko zaizkio behar besteko aurrerapenaz. Lantokiak ikastetxetik urrun egonez gero, komunikabide seguru eta egiaztagarriak erabilita bermatuko da jarraipena betiere. Lantokiko prestakuntza edo Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala egiteko aldia amaitzean, tutore bakoitzak memoria bat aurkeztuko du. Memoria horretan jaso egingo dira jarraipena eta ebaluazioa (LPko tutorearen kasuan), eta proiektu bat eta memoria bat, jarraipena eta ebaluazioa bilduko dituen (Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala tutorearen kasuan). Memoria horretan, tutoretza-zereginetan egindako jarduera azalduko da.

e) Gorputz Hezkuntzako, Musikako eta Plastika eta Ikus-hezkuntzako irakasleak

Ikastetxeko hezkuntza-arretako behar adina irakasle baldin badago, Gorputz Hezkuntzako, Musikako eta Plastika eta Ikus-hezkuntzako irakasleen hezkuntza-arretako orduak, inplikaturako irakasleen berariazko baimenarekin, eskolaz kanpoko ordutegian egin beharko diren eta ikasgai horiekin lotuta dauden eskolaz kanpoko jardueretako ordu bihurtu ahal izango dira.

Neurri hori aplikatu ahal izateko, bermatu beharko da ikastetxeko hezkuntza-arretako ordu guztiak behar bezala emango direla, eta ikastetxeko beste irakasle batek ere ez dituela asteen hiru ordu baino gehiago eman beharko hezkuntza-arretan.

f) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasleak

Beren eginkizunak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1998ko uztailaren 30eko Aginduan zehazten dira (abuztuaren 31ko EHAA). Gainerako irakasleek bezala egingo dute beren lanaldia, eta adierazitako eginkizun guztiak betetzen emango dute dagokien ordutegia, ikasleekin esku hartzeari lehentasuna emanda.

Profesional hauek gela arruntetan esku hartuko dute, salbuespenak salbuespen. Salbuespen horiek Hezkuntza Ikuskaritzak bermatu beharko ditu, eta ikaslearentzako hezkuntza-proposamenean behar bezala justifikatuta egingo dira. Hala ere, esku-hartze hori gela arruntaz bestelako espazio batean egitea eskatzen duten inguruabarrak daudenean, gela hori kanpotik ikusi ahal izango da.



g) Hizkuntza indartzeko irakasleak

Hizkuntza indartzeko irakasleek eginkizun hauek izango dituzte:

- Hizkuntza-indargarriaren programazioa egitea, ikasleen beharretara egokituta.
- Tutoreari laguntzea ikasle horientzako banakako esku-hartze plana egiten.
- Tutorearekin eta orientatzailearekin koordinatzea ikasleen jarraipena egiteko.
- Material didaktikoak ikuspegi egokiaz aztertzea, antolatzea eta prestatzea.
- Dagokion hezkuntza-indargarria ematea.
- Hizkuntza indartzeko irakasleek funtzio hauek partekatuko dituzte ikasle etorri berrien irakasle tutoreekin:
 - Gainerako irakasleekin koordinazio-prozesu bat ezartzea, banakako esku-hartze plana egiteko eta berori abiaraztearen jarraipena egiteko.
 - Ikasle etorri berriei harrera eta inklusioa erraztea, beren konpetentziak garatzen laguntzea eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten bultzatzea.
 - Ikasleen aurrerapenak eta ikaskuntzak ebaluatzen parte hartzea.
 - Materialaren eta edukien egokitzapenak egitea, zikloaren eta etaparen curriculumaren ikuspegitik.

Eskola-komunitateko kide diren aldetik, hizkuntza indartzeko irakasleek honako eginkizun hauek izango dituzte gainerako irakasleekin batera:

- Hizkuntzak irakasteko jarduerak planifikatzea haien tratamendu integrala kontuan hartuta.
- Hezkuntza-prozesuan kulturarteko ikuspegia integratzeko jarduerak diseinatzea.

h) Erlijioa irakasleak

Klaustroko kide dira ondorio guztietarako, eta gainerakoen eskubide eta betebeharrak dituzte, indarrean dagoen legerian eta araudian zehaztutako eta kontratu-inguruabar espezifikoen ondoriozko salbuespenekin.

Erlijioa irakasleek ikasgai horri dagozkion orduak emango dituzte, eta, behar izanez gero, ikastetxeko zuzendaritzak esleitutako beste irakaskuntza-jarduera batzuekin osatuko dute beren orduategia.

Ikastetxeak 2.7.2 puntuan adierazitakoa baino erreferentzia-ordutegi zabalagoa ezartzen badu edo atxikitako ikastetxeko zuzendaritza-taldeko kide bada, zuzendaritza-taldeak horren berri eman beharko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, etorkizunean litezkeen ordezkapenak egin ahal izateko.

3.4. ZUZENDARITZA-KARGUAK ETA BESTE BATZUK

I. Zuzendaritza-taldea

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36. artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzendariak, ikasketaburuak eta idazkariak eta, dagokionean, administratzaileak osatuko dute zuzendaritza-taldea.



Ebazpen honetan xedatutakoaren arabera zuzendaritza-karguetarako eta beste kargu batzuetarako murrizketak kalkulatu ondoren, behar adina ordu libre dauden ikastetxeetan, zuzendari laguntzaile bat (zuzendariordea), ikasketaburu laguntzaile bat eta idazkari laguntzaile bat egon daitezke.

Eskolak gauez ematen dituzten ikastetxeetan, gaueko ikasketaburua.

II. Zuzendaritzakoak ez diren beste kargu batzuk

Zuzendaritzakoak ez diren kargu hauek ere egongo dira ikastetxeetan:

- Ikastegiak dituzten ikastetxeetan, irakasle ordezkaria.
- DBH eta beste hezkuntza-etaparen bat (Lehen Hezkuntza, Batxilergoa edo heziketa-zikloak) ematen duten ikastetxeetan, DBHko koordinatzailea.
- Berariazko Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeek kargu hauek izan ditzakete, besteak beste: Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide-Heziketa Dualeko eta Lantokiko prestakuntzako koordinatzailea eta, hala badagokio, enplegurako prestakuntzaren arduraduna.
- Kalitatearen ISO 9000 ziurtagiria duten ikastetxeetan, kalitatearen arduraduna.
- Ikastetxeek koordinaziorako beste kargu batzuk izendatu ahal izango dituzte, beren AJAn ezarritako irizpide eta prozedurekin bat (prestakuntzaren koordinatzailea, berrikuntza- edo esperientzia-proiektuaren koordinatzailea, baliabide didaktikoen arduraduna...). Irakasle horien ordu-tegi-murrizketak ikastetxean eskuragarri dauden orduen arabera izango dira.

III.- Irakasle ordezkaria

DBHa eskola-esparrutik kanpo dagoen ikastegi batean ematen den ikastetxeetan, irakasle ordezkari bat egongo da, eta hark eginkizun hauek izango ditu ikastegi horretan:

- Ikastegiaren funtzionamendua zuzentzea eta koordinatzea, ikastetxeko zuzendaritzak emandako jarraibideak betez betiere.
- Ikastegiaren jarduerari eragiten dioten arauak, xedapenak, jardun-proiektuak eta -programak eta akordioak betearaztea.
- Zuzendaritzak eskuordetuta, ikastegiko langile guztien buru izatea langile horien jarduerari dagokionez, ikastetxeko zuzendariak arlo horretan dituen eskumenak errespetatuz eta, betiere, zuzendariaren jarraibideak betez.
- Ikasgelako irakasleen ordu-tegi akademikoak betetzen direla zaintzea.
- Ikastegiko instalazioak, altzariak eta material didaktikoa egoera onean kontserbatzen direla zaintzea.
- Ikastetxeko zuzendaritza ordezkatzeko ikasleekiko eta haien familiekiko edo legezko ordezkariakiko harremanetan.
- Ikastegia Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean badago, beste ikastetxe horretako zuzendaritza-taldearekin koordinatzea ikastegiaren jarduerak eta funtzionamendua.
- AJAk esleitzen dion beste edozein, eta ikastetxeko zuzendaritzak zuzenean esleitzen dizkionak.

IV.- DBHko koordinatzailea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta beste hezkuntza-etaparen bat (Lehen Hezkuntza, Batxilergoa eta/edo heziketa-zikloak) irakasten duten ikastetxeetan, zuzendaritzak etapa horretako irakasle bat izendatu ahal izango du DBHko koordinatzaile kargua betetzeko. Irakasle



horrek honako eginkizun eta ardura hauek izango ditu, ikasketaburutzak zuzenduta eta gainbegiratuta:

- DBHko kurtsoen eta irakasleen koordinazio pedagogikoa.
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen eta hari atxikitako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen arteko komunikazioa eta lankidetzak, bi hezkuntza-mailetakoko curriculum-proiektuen arteko koordinazioa bermatzeko.
- Ikastetxearen komunikazioa eta lankidetzak DBHko ikasleak sartuko diren Batxilergoko eta erdi-mailako heziketa-zikloetako ikasketetako irakasle taldeekin, ikastetxean bertan nahiz Derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntzako beste ikastetxe batzuetan.

V.- BAT taldeko koordinatzailea

BAT taldeko koordinatzaileak eginkizun hauek beteko ditu:

- BAT taldearen koordinazioko eta lan komunekeko uneak kudeatzea, ezartzea eta dinamizatzea: bilkuren deialdiak, aktak, edukia...
- Jazarpen-kasuetan esku-hartzeen jarraipena egitea eta haiek konpontzen laguntzea.
- Esku-hartzeak modu ordenatu, arin, konfidentzial eta egokian egiten direla zaintzea, bai ikasleekin, bai familiarekin eta irakasle taldearekin.
- Eskualdeko berritzeguneak antolatutako prestakuntza-mintegian eta Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntza-jardueretan parte hartzea, eta jasotako prestakuntza lantaldeko kideen artean partekatzen dela ziurtatzea.

VI.- Zuzendaritza-karguetarako eta beste kargu batzuetarako murrizketak kalkulatzeko arauak

- Ikastetxeko ikasle ofizialen guztizko kopurua. Tarte hauek aurreikusi dira:

o 350 baino gutxiago	27 orduko murrizketa
o 350 eta 750 artean	33 orduko murrizketa
o 751 eta 1.000 artean	39 orduko murrizketa
o 1.000 baino gehiago	42 orduko murrizketa
- Eskolak gaueko ordutegian ematen dituzten ikastetxeek 6 orduko murrizketa gehigarria izango dute.
- DBH eta DBHO aldi berean ematen dituzten ikastetxeek 6 orduko murrizketa gehigarria izango dute.
- Batxilergoko bi edo hiru modalitate irakasten dituzten ikastetxeek 6 edo 9 orduko murrizketa gehigarria izango dute, hurrenez hurren.
- Heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeek gehienez 3 orduko murrizketa gehigarria izango dute ziklo bakoitzeko, eta gehienez 18 orduko murrizketa kontzeptu hori dela eta.
- Eraikin batean baino gehiagotan dauden ikastetxeek, eraikin horiek eskola-esparru desberdinetan badaude, 9 orduko murrizketa gehigarria izango dute.
- Mantentze-lanen eta obren arduraduna duten ikastetxeek 3 orduko murrizketa esleituko diote figura horri.



VII.- Murrizketa-orduak aplikatzea

Zuzendaritza-karguetarako eta beste kargu batzuetarako murrizketen guztizko kopurua aurreko atal guztiei dagozkien murrizketen batura izango da.

Ikastetxeek ordu guztiak banatuko dituzte zuzendaritzaren, ikasketaburutzaren, idazkariaren eta aurreikusitako gainerako kargudunen artean, betiere honako jarraibide hauek errespetatuz:

Gutxieneko murrizketa honako hauentzat:

- Zuzendaria: 9 ordu.
- Ikasketaburua: 6 ordu.
- Idazkaria: 6 ordu.
- Irakasle ordezkaria: 6 ordu.
- DBHko koordinatzailea: 3 ordu.

Kargudun titularrari dagokion ordu-murrizketa kargudun laguntzailearena baino handiagoa izango da betiere.

Kargudun laguntzailearen osagarri espezifikoaren zenbatekoa jasotzeko, gutxienez 9 orduko murrizketa izan beharko da.

Finkatutako zenbakiak errespetatuz, zuzendaritza-taldeak erabakiko du, indarrean dagoen araudiaren arabera, kargu bakoitzerako murrizketa-orduen kopurua, ikastetxeari dagozkion ordu guztiak agortu arte.

Ikastetxeak, bere autonomia baliatuz, AJAn ezarri ahal izango du aurreko arauen arabera ondorioztatutakoa baino kargudun laguntzaile gehiago izatea. Nolanahi ere, izendapen horiek ez dute, inola ere, administrazio-ondoriorik izango, eta ez dute inolako ordainsari-osagarririk kobratzeko eskubiderik sortuko.

VIII.- Zuzendaritza-kargudunen ordutegia

Ordutegi orokorrak aurreikusi behar du ikastetxean zuzendaritza-kargudunen bat egotea ikasleen ohiko eskola-ordutegi osoan.

Hiru lurralde historikoetako ikastetxe guztietako zuzendariak aste guztietako ostegunak gorde beharko dituzte, bileraren baterako deia egiten bazaie-edo, bilera horretara joan ahal izateko.

Hileko hirugarren ostegunean berritzeguneetako zuzendariak deituko dituzte dagozkion mintegietara.

3.5.- IRAKASLEEN BERTARATZEA. Lanaldia betetzen dela kontrolatzea

“Eskola-jardueraren dokumentua (EJD) / Ordutegi-taulak” aplikazioa erabiliko da. Horretarako, EJDan fitxa berri bat ipini da: “Irakasleen absentismoa”. Fitxa horren barruan,



honako hauek adieraziko dira: huts egin duen irakaslea, absentzia zein egunetan izan den, horren iraupena eta absentziaren arrazoiak.

EJDan zabalgarri bat agertuko da absentzien arrazoi posible GUZTIEKIN, eta dagokiona aukeratuko da.

Justifikaziorik gabeko absentzien kasuan, ikastetxeko zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du EJDaren absentzien zabalgarrian, eta aplikazioak jakinarazpen bat bidaliko dio automatikoki erreferentziazko ikuskatzaileari, eta horrek Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean kasurako aurreikusitako prozedurak hasiko ditu. Halakoetan, irakasleak egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu Hezkuntzako lurralde-ordezkararen aurrean, eta horrek hartuko du azken erabakia.

Lan-baldintzak erregulatzen dituen akordioan adierazitakoak ez diren Beste arrazoi batzuk direla-eta justifikatzen badira absentziak, ikastetxeko zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du EJDko absentzien zabalgarrian, eta, gainera, inplikaturako irakasleak ondoren adierazten den estekan dagoen “III. eranskina” dokumentua bete beharko du (“Irakasleen eta hezkuntza-langile lan-kontratudunen absentziak” atalean)

<https://www.euskadi.eus/langile-irakasle-lizentziak-baimenak/web01-a3hklair/eu/h>

Ikastetxeko zuzendaritzak “III. eranskina” izenpetzeak berekin ekarriko du bertan emandako azalpena bermatzen duela, eta sinesgarritasuna eta baliozkotasuna ematen dizkiola. Eranskin hori ikastetxean artxibatuko da, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura.

Irakasleen absentzia guztiak behar bezala justifikatu beharko dira eta, ahal dela, dokumentu bidez egiaztatu beharko dira Zuzendaritzaren aurrean, horrek eskatu beharrik izan gabe, indarrean dagoen akordio arauemailean ezarritakoaren arabera.

Absentzien egiaztagiriak ikastetxean artxibatuko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Egiaztagirietan, absentziaren eguna, ordu-tartea eta arrazoiak adieraziko dira. Originalak eta argiak izan beharko dute.

Aldez aurretik jakindako eta aurreikusitako absentzien kasuan, irakasleek behar besteko aurrerapenez eta idatziz jakinarazi beharko diote ikastetxeko ikasketaburutzari absentziak eragindako taldeetako ikasleek zein jarduera egin behar dituzten, eta zein material eta jarraibide behar diren haiek ordezkatuko dituzten hezkuntza-arretako irakasleek jarduera horiek behar bezala egin ahal izan ditzaten.

Aurreko ikasturteetan bezala, ikastetxeko zuzendaritzak irakasleen absentziak erregistratu beharko ditu hurrengo hilaren 5a baino lehen, Hezkuntza Ikuskaritzarentzat eskuragarri egon daitezen.

Greba egingo balitz, ikastetxeko zuzendaritzak Ikuskaritzari gorabehera horren datuak jakinaraziko dizkio, “Eskola-jardueraren dokumentua (EJD) / Ordutegi-taulak” aplikazioaren bidez, “Irakasleen absentismoa” fitxako “Greba-datuak” atalean. Halakoetan, ikasleentzako ahalik eta arretarik egokiena antolatuko du eskura dituen giza baliabideekin.

Era berean, irakasleren batek bere ordutegian sartzeko eta irteteko betebeharrak nabarmen betetzen ez dituela ikusten badu, Zuzendaritzak ordutegi hori betetzeko eskatuko dio. Ordutegia ez betetzen jarraituz gero, Lurralde Ordezkaritzako Langilego Unitateari eta Hezkuntza Ikuskaritzari horren berri emango zaie, bidezko neurriak har ditzaten.



Irakasleen absentziak behar bezala kudeatzeko, honako puntu hauek hartuko dira kontuan:

- Irakasleen betebeharra da hutsegite-egiaztagiriak zuzendariari garaiz aurkeztea, hark noiz eskatuko zain egon gabe.
- Ikastetxetik kanpo IRALEko ikastaroak eta antzekoak egiten ari diren irakasleek ikastaro horietara ez joatearen egiaztagiriak aurkeztuko dituzte ikastaro horiek egiten ari diren lekuetan.
- Ohiko eskolaldian irakasleak ez daudenean ikastetxean ikasleei arreta emateko ezarritako prozeduraren berri eman beharko zaio OOGari.
- Eskolen ohiko irakaskuntzan gertatzen den edozein asaldura berehala jakinarazi beharko zaio Ikuskaritzari telefonoz.
- Absentzien egiaztagiriak ikastetxean artxibatuko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Egiaztagirietan, absentziaren eguna, ordu-tartea eta arrazoia adieraziko dira. Originalak eta argiak izan beharko dute.

Oraingoz, ikastetxeek lurralde-ordezkaritzetako langilego-unitateekin kudeatu ohi dituzten lizentzia eta baimen guztiak unitate horietatik emandako jarraibideen arabera kudeatzen jarraituko dira.

Ikastetxe batzuek, irakasleez gain, Saileko hezkuntza-langile lan-kontratudunak eta/edo laboralak dituzte. Pertsona horien absentziak erregistratzeko, ikastetxeek beren datuak sartu ahal izango dituzte, irakasleen absentziak erregistratzeko erabiltzen den EJDko fitxa beraren bidez.

3.6.- SAILAK

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan bi sail mota eratu ahal izango dira: didaktika-sailak eta sail ez-didaktikoak, hala nola Orientabide Saila, eta ikastetxeak antolaketa eta koordinazio pedagogikorako egokitutako jotzen dituen beste guztiak.

Koordinazio didaktikoko sailak eskatzen zaizkien ikasgai edo moduluen berezko irakaskuntzak antolatzeaz eta garatzeaz arduratzen diren organoak dira. Burutzaren zuzendaritzapean daude eta ikasgai bera ematen duten irakasleen arteko koordinazioa bermatzea dute helburu, edo, hala badagokio, antzeko ikasgaietako irakasleen artekoa. Talde horien zeregina eta egiten duten lana taldekide guztien erantzukizuna da.

a) Sailak eratzea

Ikastetxean sailak eratzeako proposamena egitean, klaustroak arau hauek bete beharko ditu nahitaez:

- Eskola-orduren bat ematen duten ikastetxeko irakasle guztiek didaktika-sailen bateko kide izan beharko dute.
- Ezein irakasle ezin izango da bi didaktika-sailetakoa izan. Bi didaktika-saili edo gehiagori dagozkien ikasgaiak ematen baditu, ordu gehien ematen dituen ikasgaiei dagokiena saillekoa baino ez da izango. Hala ere, ematen dituen beste ikasgaiei dagozkien beste sailleko bileretara joan ahal izango da, bai eta haien lan eta erabakietan parte hartu ere.

a.1) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza soilik ematen duten ikastetxeak:

DBH soilik ematen duten ikastetxeetan, klaustroak proposatuta, zuzendaritza-taldeak zehaztuko du ikastetxean zer sail egongo diren, ikastetxeko curriculum-proiektuan ezarritakoaren arabera, eta erabaki horren berri emango dio OOGari.

Ikastetxean sailak eratzeke proposamena egitean, klaustroak arau hauek bete beharko ditu nahitaez, lehen aipatutako arau komunez gainera:

- Beren burutzek ordainsari-osagarria kobratzeko eskubidea izango duten sailen gehieneko kopurua ikastetxeko irakasle kopuruaren arabera izango da, taula honen arabera:

IKASTETXEKO IRAKASLE KOPURUA	GEHIENEO SAIL KOPURUA
13 baino gutxiago	3
13 eta 16 artean	4
17 eta 20 artean	5
21 eta 24 artean	6
25 eta 28 artean	7
29 eta 32 artean	8
33 eta 36 artean	9
37 eta 40 artean	10
41 eta 45 artean	11
46 eta 50 artean	12
51 eta 55 artean	13
56 eta 60 artean	14
61 eta 65 artean	15
66 eta 70 artean	16
71 eta 80 artean	17
81 eta 90 artean	18
91 eta 100 artean	19
100 baino gehiago	20

- Ikastetxeak 13 irakasle baino gutxiago baditu, honako sail hauek eratzea proposatzen da:
- Hizkuntzen Saila, ikasgai hauetako irakasleek osatua: Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntzak.
- Zientzia Saila, ikasgai hauetako irakasleek osatua: Matematika, Fisika eta Kimika, Biologia eta Geologia, Teknologia, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia, Kultura Zientifikoa eta Lanbide Jarduerari Aplikatutako Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientzien Saila, ikasgai hauetako irakasleek osatua: Geografia eta Historia, Gorputz Hezkuntza, Plastika eta Ikus-hezkuntza, Ikus-entzunezkoak, Musika,



Arte Eszenikoak eta Dantza, Latina, Kultura Klasikoa, Filosofia, Ekonomia, Ekintzailera eta Enpresa Jardueraren Hastapena, Erlijioa eta Balio Etikoak.

- Ikastetxeko sailak (didaktikoak eta ez-didaktikoak) eratzeko proposamena zuzendaritza-taldeak hartuko du, eta Ordutegi Taulak (EJD) aplikazio informatikoan sartuko da, Hezkuntza Ikuskaritzaren jarraibideak betez. Hezkuntza Ikuskaritzak egiaztatuko du proposamenak eskatutako baldintzak betetzen dituen eta, hala bada, oniritzia emango du aipatutako aplikazio informatikoan, dagozkion ondorio ekonomiko eta administratiboak izan ditzan.
- Ikastetxeak, bere autonomiaz baliatuz, bere AJAn ezarri ahal izango du aurreko taulan zehaztutakoa baino sail edo koordinazio pedagogikoko beste organo gehiago egotea. Dena den, beste sail horietako burutzak izendatzeak ez du, inola ere, ondorio administratiborik izango, eta ez du inolako ordainsari-osagarriarik kobratzeko eskubiderik sortuko.

a.2) Batxilergoa eta/edo heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeak

Antolamendu eta koordinazio pedagogikoaren ondorioetarako, ikastetxeak beraren AJAn aurreikusita dituen bezainbeste sail ezarri ahal izango ditu. Hala ere, saileko burutzaren ordainsariari dagokienez, ikastetxeek honako didaktika-sail hauek soilik eratzeko eskubidea izango dute, betiere dagokion espezialitateko gutxienez bi irakasle espezifiko badaude:

- Batxilergoko irakaskuntzak:

1. Gaztelania eta Literatura Saila.
2. Euskara eta Literatura Saila.
3. Ingeles Saila.
4. Frantses Saila.
5. Aleman Saila.
6. Latin Saila.
7. Greko Saila.
8. Geografia eta Historia Saila.
9. Filosofia Saila.
10. Erlijio Saila.
11. Gorputz Hezkuntza Saila.
12. Matematika Saila.
13. Fisika eta Kimika Saila.
14. Biologia eta Geologia Saila.
15. Marrazketa Saila.
16. Teknologia Saila.
17. Musika Saila.
18. Ekonomia Saila.

- Lanbide Heziketako irakaskuntzak:

1. Lanerako Prestakuntza eta Orientabide Saila.
2. Lanbide-arlo bakoitzaren sail espezifikoak, familia horretako prestakuntza-moduluei eta -zikloei dagozkien espezialitateetako irakasleek osatuak, eta zeharkako beste sail batzuk. Zeharkako sail horien osaera halakoa izango da non Lanbide Heziketako sailen



guztizko kopuruak ez duen inola ere gaindituko ebazpen honen 3.6.a1) atalean agertzen den taulan zerrendatutako irakasleen/sailen gehieneko kopurua.

Saila 12 irakaslek baino gehiagok osatzen badute, lurralde-ordezkarari eskatu ahal izango zaio sail hori bitan banatzea, eta hark horren berri emango dio Hezkuntza Ikuskaritzari, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Batxilergoa eta/edo Lanbide Heziketako heziketa-zikloak irakasten dituzten ikastetxeetako sailak eratzean, honako arau hauek bete beharko dira, atal honen hasieran aipatutako arau komunez gainera:

- Batxilergoko irakasleak ematen duten ikasgaiari dagokion didaktika-sailari atxikita egongo dira. Zehazki, Latineko eta Grekoko sail bereziak dituzten ikastetxeetan, Kultura Klasikoko irakasleek horietako bati atxikitzea aukeratuko dute, baina beste sailaren bileretara joan eta haren lanetan parte hartu ahal izango dute.
- Ikastetxean espezialitate bateko bi irakasle espezifiko ez daudenean eta, hortaz, espezialitate horretarako sail berezi bat eratu ezin denean, antzeko bi espezialitate edo gehiagok osatutako sailak eratuko dira. Sail horiek osatuko dituzte espezialitate horietako gutxienez bi irakasle espezifiko.
- Aurreko arauen arabera eratzen diren sailez gainera, ikastetxeek beste bi sail ez-didaktiko eratzeke eskubidea izango dute.
- Ikastetxeko sailak (didaktikoak eta ez-didaktikoak) eratzeke proposamena zuzendaritza-taldeak hartuko du, eta Ordutegi Taulak (EJD) aplikazio informatikoan sartuko da, Hezkuntza Ikuskaritzak emandako jarraibideak betez. Hezkuntza Ikuskaritzak egiaztatuko du proposamenak eskatutako baldintzak betetzen dituen eta, hala bada, oniritzia emango du aipatutako aplikazio informatikoan, dagozkion ondorio ekonomiko eta administratiboak izan ditzan.
- Ikastetxeak, bere autonomia baliatuz, AJAn ezarri ahal izango du aurreko ataletan zehaztutakoa baino sail edo koordinazio pedagogikoko beste organo gehiago egotea. Dena den, beste sail horietako burutzak izendatzeak ez du, inola ere, ondorio administratiborik izango, eta ez du inolako ordainsari-osagarririk kobratzeko eskubiderik sortuko.

b) Sailaren bilerak

Astean ordubete gorde behar da gutxienez sailerako kide guztiak biltzeko, DBHko, Batxilergoko edo heziketa-zikloetako ikastetxeetako ordutegiaren barruan.

Hizkuntza-departamentu guztietan asteko bilera-ordua batera egingo da, hizkuntzei buruzko planteamendu integratu bat garatu eta, hala, programazio integratu bati bide emateko. Ikasketaburutzak kontuan hartu behar du hori ordutegiak prestatzen dituztenean. Departamentuko kide guztiek joan behar dute bileretara, eta bileren aktan espresuki jasoko dira, gutxienez, alor hauek: bertaratu direnak eta absentziak, gai-zerrenda eta hartutako erabakiak. Irakasleen gainerako ordutegi pertsonaleko hutsegiteen modu berean justifikatu beharko dira bileretako absentziak eta, dagokionean, ondorio berberak izango dituzte.

Ekainean, departamentuetako kideek bildu behar dute lan-plana eta haren lorpenak aztertzeke eta hurrengo ikasturterako egin beharreko zuzenketak zehazteko.



c) Didaktika-sailaren zereginak

Espezialitatea osatzen duten irakasle guztien parte-hartzearekin, espezialitatearen berezko ikasgaiak programatzea. Programazioa egin ahal izango da “Programazio didaktikoak egiteko gida” eta horren I. eranskinean jasotako txantiloia oinarri hartuta.

Konpetentziak lortzea erraztuko duten metodologiak helburu hartuta ikastetxeetan sartzen diren benetako aldaketak islatu beharko dituzte programazio didaktikoak. Ildo horretan, programazio didaktiko guztiek, aurreko ikasturtean egindako lanetik abiatuta, aurrera egiten jarraituko dute, arazo-egoerak edo erronkak barne hartuko dituzten unitate didaktikoen, zereginen edo proiektuen diseinua orokortzeko helburuarekin. (Aipatutako giden II. eranskinak horiek diseinatzen lagundu ahal izango du).

Irakasgai guztietako irakasleek hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentziarekin lotutako helburuak jaso beharko dituzte beren urteko programazio didaktikoetan, eta lehentasuna emango diote beren ikasgaiko testu akademikoen idatzizko eta ahozko ulermenari.

Horretarako, ikastetxeek dagokion berritzegunearen aholkularitza eskatu ahal izango dute. Berritzeguneek lehentasunez hartuko dute beren gain aholkularitza hori. Bestalde, Hezkuntza Ikuskaritzaren lehentasunezko jardun-helburuen artean egongo da curriculumaren garapena egungo araudira egokitzen dela egiaztatzea. Horretarako, programazio didaktikoak aztertu eta ikasgelak bisitatuko dituzte.

Hona sailaren beste zeregin batzuk:

- Bere espezialitatearekin lotutako aukerako ikasgaiak proposatzea.
- Ohiko eta ezohiko probak egitea eta kalifikazioen erreklamazioei erantzutea.
- Salbuespenen eta baliozkotzeen ondoriozko txostenak edo ziurtagiriak egitea.
- Prestakuntza- edo berrikuntza-proiektuak edo bere espezialitatearekin lotutako baliabideak lantzekoak proposatzea.
- E-maila akademikoak eta programazioen gauzatze- eta betetze-maila aztertzea eta baloratzea.

Sailak, curriculum ofizialak erreferentzia hartuta, horiek egokitu, hautatu eta zehaztu ahal izango ditu diseinatutako lan-planaren eta programazioen arabera, eta aldaketak sailaren aktetan jaso beharko dira. Egindako egokitzapenak curriculumaren gutxieneko irakaskuntzak betetzen dituztela zainduko du Ikuskaritzak.

d) Saileko burutza

Saileko kide guztien ardura da saileko zereginak eta lanak idazten parte hartzea, baita gainditu gabeko ikasgaiak dituzten ikasleentzako probak egitea eta zuzentzea, estatistikak prestatzea, etab. ere.

Saileko burua da haren funtzionamenduaren arduraduna, eta eginkizun hauek ditu:

- Sailaren jardura zuzentzea eta koordinatzea.
- Bilerak antolatu, prestatu eta zuzentzea.
- Irakasleek egindako programazio didaktikoak ikastetxearen ICPan sartzea, sailean onartutako irizpideen arabera.



- Programazioen garapenaren aldizkako jarraipena egitea ikasle taldeetan, eta programazioa betetzen dela zaintzea, edukiei eta gutxieneko eskakizun-mailei dagokienez.
- Programazio didaktikoen ebaluazioa bermatzea. Ebaluazioa dokumentu espezifiko batean jasoko da.
- Etengabeko ebaluazioan saileko irakasleen koordinazioa ziurtatzea eta ohiko eta ezohiko deialdietan proba bateratua ezartzea.
- Sailak prestatutako proben kalifikazioak gainbegiratzea.
- Ikasleek kalifikazioen inguruan egiten dituzten erreklamazioei erantzutea eta erreklamazio horien ondoriozko espedienteak zaintzea.
- Lanak kideen artean banatzea.
- Planifikatutako materialak eta jarduerak egon daitezen sustatzea. Horiek ahalbidetu behar dute, saileko irakasleren bat ez badago, dagokion hezkuntza-arretaren arduradunak absentzia horrek eragindako ikasleei arreta egokia emateko moduan egotea.
- Ikasketaburutzarekin komunikatzea, sailaren jarduerak ikastetxeko beste jarduera batzuekin koordinatzeko eta aurreikusitako lan-planaren garapenari buruz informatzeko, baita sailean antzematen duen edozein anomaliari buruz ere.
- Egiten diren bileren aktak daudela eta gordetzen direla bermatzea.
- Ikastetxeak berak AJAn zehaztutako gainerakoak.

Saileko burutzak urriaren 15a baino lehen entregatu beharko dizkio programazio didaktikoak ikastetxeko zuzendaritzari, eta horiek Hezkuntza Ikuskaritzaren esku geratuko dira. Programazio didaktikoak Ikastetxearen curriculum-proiektuan txertatuko dira, eta haien kopia bana emango zaio didaktika-saileko kide bakoitzari.

e) Saileko burutza izendatzea

Zuzendariak izendatuko du, betiere honako irizpide hauek errespetatuz:

- Zuzendaritzako beste kargurik betetzen ez duen saileko irakasle bat izan beharko da.
- Bigarren Hezkuntzako katedradunen kidegoko irakasleen artean izendatuko da, salbu eta zuzendaritzako beste kargurik ez duen saileko kide batek ere baldintza hori betetzen ez badu.
- Nolanahi ere, aurreko irizpideak errespetatuz, AJAn xedatutakoaren arabera aukeratuko da.
- AJAk saileko buruzagitza hautatzeko modua aurreikusten ez badu, zuzendaritzak izendatuko du, saileko kideek proposatuta. Sailak dagokion proposamena egiten ez badu, ikastetxeko zuzendariak bakarrik hartuko du erabakia. Izendatu ondoren, ezingo dio karguari uko egin, ikasturtea hasi baino lehen burutza guztiak beteta egon daitezen.

Titularrik ez balego 6 hilabetetik gorako aldian edo, salbuespen gisa, epe laburragoetan, saileko beste kide bati esleitu ahal izango zaizkio haren eginkizunak. Eginkizun horiek ikastetxeko zuzendaritzak esleituko ditu, dagokion lurralde-ordezkaritzako Hezkuntza Ikuskaritzak baimena eman ondoren.

f) Sailaren dokumentazioa

Didaktikako eta koordinazio pedagogikoko sail guztiek saileko bileren aktak egin beharko dituzte, eta ikastetxeko kide bakarreko eta kide anitzeko organoen eta Ikuskaritzaren eskura egongo dira.



Sailaren bilera bakoitzaren akta egingo da. Bilerara bertaratutako guztiek sinatu beharko dituzte aktak, eta saileko burutzak izendatutako irakasleak idatziko ditu.

Ikasturtea amaitzean, dokumentu espezifiko batean jasoko da urteko programazioaren ebaluazioa eta haren betetze-maila. Ebaluazio horrek honako hauek jasoko ditu, gutxienez: a) Ikasturtearen ebaluazioaren emaitzak saileko ikasgai bakoitzean; b) Material eta baliabide didaktikoen egokitzapena, eta espazioen eta denboren banaketa erabilitako metodologiaren arabera; eta c) Metodologiaren ekarpena gelako eta ikastetxeko giroa hobetzeko. (Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 25.6 artikulua eta irailaren 6ko 127/2016 Dekretuaren 24.6 artikulua).

Ikasleen probak, ariketak edo azterketak gorde egin beharko dira bai ebazpen honetan zehaztutako baldintzetan, bai EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 9. artikuluan zehaztutakoetan (EHAA, 2008-12-16koa).

3.7.- ORIENTABIDE-SAILA

a) Orientabide-saila eratzea

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan eratuko da orientabide-saila, betiere gutxienez hiru kidek osatzen badute. Orientatzailea izango da saileko burua. Beraz, horrek bere bilerak planifikatu eta zuzenduko ditu eta kideen lana koordinatuko du.

Saila kide hauek izango ditu:

- Hezkuntza-orientabideko espezialitateko irakasleak. Horietako batek saileko buru izan beharko du nahitaez.
- Curriculum-aniztasuneko taldeetako eta hezkuntza-indargarri espezifikoako proiektuetako irakasle arduradunak, baldin eta ikastetxeak proiektu horiek baditu.
- Kulturarteko dinamizatzaileak, ikastetxean halakorik balego.
- Pedagogia terapeutikoko maisu-maistra espezialistak, baldin badaude ikastetxean.
- Zereginen ikaskuntzarako gelez arduratzen diren irakasleak, baldin badaude ikastetxean.

b) Orientatzaileen eginkizunak

Orientabidea, hezkuntza-jarduera osoaren parte denez, irakasleei dagokie, beren irakaskuntza-eginkizunaren zati gisa. Horrek ez du eragozten gai honetan eginkizun espezifikoak esleitzea hezkuntza-orientabideko espezialitateko irakasleei (orientatzaileak).

Eginkizun hauek esleitzen zaizkie, besteak beste:

Aniztasunari erantzutea

- Tutorearekin, taldeko irakasle taldeekin eta orientabide-sailaren barruan, ikasleek ikasteko dituzten zailtasun-egoerak detektatzea eta aztertzea, behar izanez gero ebaluazio psikopedagogikoa egitea, antolamenduko, metodologiako, hezkuntza-indargarriko eta, hala badagokio, curriculum-egokitzapeneko neurri komenigarrienei buruz aholkatzea eta horien jarraipena egitea.
- Ikastetxeko irakasleak aholkatzea arreta espezifikoak planak eta programak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzen (curriculum-aniztasuneko gelak, zereginen



ikaskuntzarako gelak, hezkuntza-indargarri espezifikoko programak, gaitasun handiko ikasleak), eta horien jarraipena egiteko.

- Irakasle taldearekin elkarlanean aritzea ikastetxeko hezkuntza-indargarriko plana egiten. Plan horretan, irakasleek beraiek diseinatutako hezkuntza-neurriak hartuko dira, banakakoak edo kolektiboak, eskola-zailtasunen aurrean ikasleen ikaskuntza indartzeko.

Orientabidea eta tutoretza

- Etapa bakoitzerako orientabide profesionaleko programa bat prestatzea ikastetxeko ikasleentzat, ibilbideak eta etorkizun profesionala aukeratzean berdintasuna sustatzeko, eta programa garatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzea.
- Tutoretza-plana prestatzeko aholkuak ematea eta maila bakoitzeko tutoreekin aldian-aldian koordinazio-bilerak egitea, plana garatzeari eta ebaluatzeari buruz aholkatzeko, Bizikasi ekimenaren barruko proposamen didaktikoak espezifikoki lantzeko programatutako jardueretan bereziki.
- Irakasleak aholkatzea DBHko ikasturte bakoitzaren amaieran ikasleen orientabide-kontseilua prestatzeko, hezkuntza-neurriei eta prestakuntza-ibilbideko proposamenei buruzko erabakietan bereziki.
- Ikasleak eta haien familiak aholkatzea, bereziki garapen pertsonal eta akademikoarekin, hezkuntza-etapen arteko trantsizioarekin eta prestakuntza-ibilbideak aukeratzearekin zerikusia duten gaietan.

Bizikidetza

- Bizikasi ekimena dinamizatzeko taldean kide aktibo gisa parte hartzea.
- Talde dinamizatzailerekin batera, bizikidetza-arazoak prebenitzeko eta konpontzeko eginkizuna gidatzea.
- Ikastetxean sor daitezkeen jokabide-arazoei aurre egiten eta horiek konpontzen laguntzea.
- Etengabe hobetzea.
- Ikastetxeko koordinazio pedagogikorako batzordearekin lankidetzan aritzea, batez ere ikasketaburutzarekin, didaktika-sailak eta irakasle taldeak koordinatzeko proposamenak eta jardun-planak aurkeztuta.
- Zuzendaritza-taldea aholkatzea hezkuntza berritzeko eta irakatsi eta ikasteko prozesuen etengabeko hobekuntzako programa-proiektuak prestatu eta abian jartzeko.

Beste eragile batzuekiko koordinazioa

- Ikastetxetik kanpoko gizarte- eta hezkuntza-arloko eta komunitate-arloko eragileekiko eta laguntzekiko koordinazioan lankidetzan aritzea, ikasleen jarraipen egokia, integrazioa eta arrakasta akademikoa lortzeko.

Irakaskuntza

- Bere espezialitatearekin, hala badagokio, lotutako ikasgaiak irakastea.

Gainera, orientabide-planean jasoko ditu orientabide-sailak ikasturterako aurreikusitako jarduerak, eta IUPeen txertatuko ditu. Ikasturtea amaitzean, orientabide-planaren ebaluazioa sartuko du ikastetxearen memorian.



Etaparen guztietan, DBHn, Batxilergoan eta heziketa-zikloetan, ikasketaburutzak orientatzailearen lana erraztuko du ikastetxeko tutoreekin eta ikasleen orientabide-prozesuetan inplikaturako gainerako profesionalekin egiten duen lanean.

c) Hezkuntza-orientabideko irakasleen ordutegia

Ikastetxeko gainerako irakasleen antzeko ordutegia bete behar dute, hau da, astean 30 ordu. Ordu horietatik 23 ikastetxeko ohiko egonaldikoak izango dira, eta asteko 7 ordu (hilero zenbatuko dira) ezohiko egonaldikoak.

30 ordu horien banaketa ebazpen honen 3.3. atalean zehaztutakoa izango da, ikastetxeko gainerako irakasleentzat bezala, salbuespen honekin: berariaz orientabide-jardueretan emandako orduak zenbatuko dira, benetan ematen dituzten eskola-orduez gainera.

3.8.- HEZKUNTZA-ARRETA

Irakasleek bete-betean lagundu behar dute ikasleekin egiten dituzten esku-hartze guztietan, horiek irteera-profila lortzeko bidean aurrera egiten jarrai dezaten. Hezkuntza-arretako zeregin horretan, irakasleek —irakasle jagole deitzen ziren lehen— bideratzaile edo bitartekari, gidari edo laguntzaile gisa jardun behar dute, eta ikasleen oinarritzako konpetentziak lantzen jarraitu behar dute, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-eredu pedagogikoak eta hura garatzen duten dekretuek jasotzen dutenez.

a) Hezkuntza-arretako irakasleak

Ikastetxea eta, bereziki, zuzendaritza, haren ordezkari gisa, ikasleen arduraduna da eskola-ordutegian. Hortaz, une oro, DBHko ikasleen jolasgaraian barne, ikastetxean egon beharko dute hezkuntza-arretako zereginei behar bezala erantzuteko behar adina irakasle.

Jolasgaraiei dagozkien hezkuntza-arretako zereginak etapa horretako ikasleei eskolak ematen dizkieten irakasleek beteko dituzte lehentasunez. Ikastetxeko zuzendaritzak antolatuko du jolasgaraian edo jolasgaraian ikasleei eman beharreko arreta, eta jolastokietan eta ikastetxeko beste gela batzuetan dauden ikasle guztien zaintza eta jagoletza aktiboa bermatzeko behar diren irakasleen kopurua esleitzeko dio zeregin horri. Ikasleen adinaren eta artatu beharreko espazioaren ezaugarrien arabera zehaztuko da irakasle-ikasle ratioa.

Ordu guzti-guztiak behar bezala beteta badaude soilik esleitu ahal izango dio zuzendaritzak hezkuntza-arretako irakasleren bati beste zerbitzu batzuen arreta.

b) Hezkuntza-arretako irakaslearen funtsezko zereginak

- Jolasgaraian eta/edo jagoletzan ikasleak aktiboki behatzea, ikastetxeko bizikidetzaz arazoak detektatzeko eta prebenitzeko eta horiek Bizikasiko talde dinamizatzailearen koordinatzaileari jakinarazteko.
- Korridoreetan ordena eta, oro har, ikasleek ikasgelatik kanpo duten portaera zaintzea. Horrek ez du esan nahi gainerako irakasleak zeregin horretatik salbuesita daudenik.
- Bere txandan gertatzen diren gorabeherak berehala konpontzea, ikasketaburuari lehenbailehen horien berri emateaz gainera, behar duen ikastetxeko edonori laguntza medikoa emateko beharrezko kudeaketak egitea barne.
- Irakasleen puntualtasunaren eta bertaratzearen berri ematea bere txandan, hutsegiteen parte behar bezala erabilia.
- AJAn esleitzen zaizkion gainerako zereginak.

**c) Absentzien partea**

Ikasketaburutzak irakasleen absentzien eguneroko parte gordeko du. Parte Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo da beti, eta datu hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- Irakasleen absentziak eta atzerapenak.
- Ikastetxeko edozein eremutan ikusitako gorabeherak.
- Gertatutako istripuak.
- Hezkuntza-arretako irakasleen sinadurak.

3.9. MAILAKO ETA TUTORETZAKO TALDEAK

Mailako irakasle taldea da ikasleekin esku hartzeko muina. Talde horren koordinazioa ezinbestekoa da esku-hartzea koherentea izateko eta ikasleen lorpenen eta zailtasunen jarraipena partekatzeke, baita irakatsi eta ikasteko prozesua berriz bideratzeko litezkeen esku-hartzeak ere.

a) Tutoreak izendatzea

Ahaztu gabe irakasle guztiek dutela beren funtzio eta eginkizunen artean, 236/2015 Dekretuko 30. artikulua arabera, ikasleen artean sor daitezkeen arazoak eta gatazkak konpontzea, ikastetxe bakoitzean ikasle talde bakoitzak tutore bat izango du, curriculum-aniztasuneko taldeetan izan ezik, horiek bi tutore izango baitituzte. Tutorea talde horretan ikasgaiak ematen dituen irakasle bat izango da.

Ahal den neurrian, ahaleginak egingo dira DBHko ikasleek tutore bera izan dezaten ikasturte guztietan, batik bat 1. eta 2. mailan.

Lanbide Heziketako ikastetxeetan, tutoreak taldeko ikasle guztiek egiten dituzten modulu-tako irakasle izan beharko du.

Talde guztiei arreta emateko behar adina tutore ez badago, tutoretza horiek beste kargu batzuk dituzten edo beste tutoretza batzuk dituzten irakasleek hartuko dituzte beren gain. Halakoetan, irakasle horiek hezkuntza-arretako orduetatik salbuetsi ahal izango dira, betiere ordu horiek behar bezala beteta badaude.

Tutoreak ikastetxeko zuzendaritzak izendatuko ditu, ikasketaburutzak proposatuta, moldakortasun- eta egokitasun-printzipioak kontuan hartuta.

Zuzendaritzak beste eginkizun batzuk esleituko dizkie tutoretza-talde espezifikorik esleituta ez duten irakasleei, baldin eta tutorez bestelako kargurik betetzen ez badute.

Tutoreek beren ordutegian ezarritako orduak izango dituzte tutoretza-planean jasotako tutoretza-programazioa gauzatzeko, indarrean dauden curriculum-dekretuetan ezarritakoaren arabera.

b) Tutorearen eginkizunak

Tutoreak ikasleari babesa ematearekin eta lagun egitearekin zuzenean lotutako jarduera bat egiten du, bai bakarka, bai taldean, ikasleak bere proiektu pertsonala eraiki dezan.

Behar bezala gauzatutako tutoretza-ekintzak bermatzen du taldeko ikasle bakoitza bere indibidualtasunean eta aniztasunean kontuan hartuko dela. Talde bakoitzeko tutorea da lagun



egiteko, desberdintasunak hautemateko eta inklusioa eta aniztasuna sustatzeko aukera gehien dituen pertsona hezkuntza-komunitatean.

Zeregin hauek egingo ditu:

- Tutoretza-plana prestatzea, ikastetxeko orientatzailearen aholkularitza eta laguntzarekin.
- Bere taldeko irakasle taldea koordinatzea, bai programazioari eta ebaluazioari dagokionez, bai irakatsi eta ikasteko prozesuan zehar egoera indibidual eta orokorrak aztertzeari dagokionez. Tutoreek koordinatuko dute behar dituzten ikasleen plan pertsonalizatuen prestaketa eta jarraipena (hezkuntza indartzeko banakako plana, hezkuntza-indargarri espezifiko proiektua, curriculum-aniztasuna...). Tutoreek gutxienez hiru bilera egin beharko dituzte beren taldeko irakasleekin ikasturte bakoitzean, ebaluazio-bilkuretatik kanpo. Bilera horien berri eman beharko dio ikasketaburuari, eta horien deialdia egiteaz arduratuko da.
- Ikasleekin talde-tutoretza egitea, tutoretza-programazioan jasotako orientabide-ekintzak barne, baita banakako tutoretza ere, ikastetxeko orientabide-sailaren laguntzarekin, hala badagokio. Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren arabera, berdintasuna, sexu-aniztasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko proposamenak jasoko dira tutoretza-planetan, ikasleek beren bizitza-, ikasketa- eta lanbide-ibilbidea aukeratu dezaten, askatasunean eta aukera-aniztasunean oinarrituta eta genero-baldintzapenik gabe.
- Tutoretza-planaren barruan, Bizikasi ekimenean zehaztutako proposamen didaktikoak garatzea.
- Eskola-jazarpenaren kasuetan, beren gela-taldea inplikaturik egonez gero, irakasle tutoreek ikastetxeko BAT taldean parte hartuko haiek ebazteko prozesuan.
- Orientabide-aholkua idaztea, irakasle taldearen eta orientatzailearen aholkularitzarekin, DBHko etapako ikasturte bakoitzaren amaieran (abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 36. artikuluko 4. puntuan zehazten denez).
- Ikasleei eta haien gurasoei eskola-jardueren inguruko informazioa ematea, hargatik galarazi gabe irakasleengana edo ikastetxeko gobernu-organoetara jotzeko duten eskubidea. Ikastetxeak tutorea bisitatzeko asteko ordutegia jakinarazi beharko die familiei.
- Bere taldeko ikasleen familiekin eta/edo legezko tutoreekin komunikazio arina izatea, hezkuntza-zereginean laguntzeko, biei baitagokie zeregin hori.
- Ebaluazio-saioak koordinatzea eta horien emaitzak entregatzea. Era berean, ikasgaien estatistikak eta ikasketaburutzak eskatutako datu guztiak bete beharko ditu, baita ikasleen tutoretza-jardueratik eratorritako dokumentu akademikoak ere.
- Bere gela-taldeko ikasleen hutsegiteen jarraipena egitea, eta hutsegite horien berri ematea ikastetxeko ikasketaburuari eta familiei.
- Aurrekoak aplikatzeko edo garatzeko, AJAk esleitzen dizkionak.

c) Bertaratze-hutsegiteen kontrola

Irakasle guztiek kontrolatu behar dute ikasleak beren eskoletara joaten direla, eta tutoreari jakinarazi behar dizkiote izandako bertaratze-hutsegiteak, ikasleen bertaratze-hutsegiteen jarraipena egiteko ardura duten heinean.



Familiei berehala eta AJAn xedatutakoaren arabera jakinaraziko zaizkie hutsegite horiek. Erregelamendu horrek horri buruzko araudirik zehazten ez badu, familiei jakinarazteko epeak eta modua ezarri beharko ditu zuzendaritza-taldeak, hutsegite horiei buruzko informazio zehatza eta zuzena bermatzeko.

d) Bilerak familiekin

Ikastetxeak informazio-saioak antolatu beharko ditu familiekin, eta horietan gurasoak eta irakasleak, tutoreak izan edo ez, egon daitezen ahalbidetuko du.

Bilera horien izaera (irekiak, orokorrak, taldekakoak, banakakoak, etab.) eta antolaketa AJAn xedatutakora egokituko da. Erregelamendu horrek gai horiek jasotzen ez baditu, zuzendaritza-taldeak zehaztu beharko ditu, eta lehenengo bilera azaroaren 1a baino lehen egitea bermatuko du. Era berean, beste bilera batzuk egin ahal izango dira talde osoko familiekin, tutorearen ekimenez, taldeko guraso talde esanguratsu batek eskatuta edo ikastetxeko zuzendaritzaren irizpidearen arabera.

e) Batxilergoko taldeetan tutoretza antolatzea

Ikastetxe bakoitzak bere ordutegia zehaztuko du, erregelamenduz ezarritako gutxienekoak errespetatuz, eta, hala erabakitzen badu, irakaskuntza-jardueraren orduetako bat bere taldeko irakasle tutorearen zuzeneko tutoretza-lanetan eman ahal izango du, tutoretza-plana garatzeko. Aukera horren alde eginez gero, tutoretza-ordua irakaskuntza-dedikazioko ordutzat hartuko litzateke ordutegian.

Tutoretza-ordua ikasleen eskola-orduen barruan sartzen ez bada, irakasleek ikastetxera zuzenean dedikatzeko duten ordutegian egingo da lehentasunez tutoretza-plana, ikasleei banakako eta taldeko arreta hobia emateko.

Halakoetan, ezingo da tutoretza-ordurik zenbatu irakasle tutorearen irakaskuntza-dedikazioko ordutegian.

f) Lanbide Heziketako taldeetan tutoretza antolatzea

Ikastetxe bakoitzak bere ordutegia zehaztuko du, erregelamenduz ezarritako gutxienekoak errespetatuz, indarrean dauden curriculum-dekretuetan ezarritakoaren arabera.

Tutoretza-ordua ikasleen eskola-orduen barruan sartzen ez bada, tutoretza-plana irakasleek ikastetxera zuzenean dedikatzeko ordutegian egingo da, ikasleei banakako eta taldeko arreta hobia emateko.

Halakoetan, ezingo da tutoretza-ordurik zenbatu irakasle tutorearen irakaskuntza-dedikazioko ordutegian.

3.10. PRAKTIKETAKO UNIBERTSITATE-IKASLEEN TUTORETZA

Martxoaren 6ko 33/2018 DEKRETUAK (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari eta titulazioa dela-eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen practicumari buruzkoak) xedatzen du zein baldintza bete behar diren EAEn funts publikoekin finantzatuta dauden eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntza ematen duten



ikastetxeetan Haur Hezkuntzako graduak eta Lehen Hezkuntzako graduak unibertsitate-tituluen praktikumak, besteak beste, egiteko.

Era berean, dekretu horren xedea da praktiketako prestakuntza-zentroak onartzeko eta praktiketako ikasleak irakasle tutoreak egiaztatzeko baldintzak ezartzea. Hezkuntza-arloan eskumenak dituen sailak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartutako zentroetan bakarrik egin ahal izango da praktikumak.

Ikastetxeko zuzendaritzak baimena eman ahal izango die praktika horietan tutoretza-lanak egiten dituzten irakasleei, irakaskuntza-dedikazioko orduen barruan kasu bakoitzeko unibertsitateak deitutako bileretara joan daitezten. Absentzia hori alde aurretik aurreikusita dagoenez, ikasketaburutzaren ardura izango da irakasleek absentzia horrek eragindako taldeetako ikasleentzat planifikatzen eta prestatzen dituzten jardueren aplikazioa antolatzea.

Hutsegiteak justifikatzeko, deialdia eta zuzendariaren baimena aurkeztu behar dituzte irakasleek. Ezin izango da ordezkorik eskatu absentzia horiek betetzeko.

3.11. LANGILE ESPEZIFIKOAK

Atal honetan aipatzen diren hezkuntza-komunitateko kideek eskola-ingurunean, ikasgelan edo ikasgelatik kanpo zereginak egiten dituzte, eta zuzenean inplikaturik daude ikaskuntza formalaren prozesuan, kasu bakoitzeko, eta ikaskuntza ez-formalaren prozesuan, kasu gehienetan.

Ikastetxeko zuzendaritzak hurrengo ataletan aipatzen diren profesionalekin koordinazioa eta talde-lana bermatu beharko ditu, irakasleek beren eginkizunak betetzen dituzten testuinguruak aprobetxatu ditzaten.

a) Jangelako arduraduna

Zuzeneko kudeaketako eskola-jantokiko zerbitzua emateak —hau da, ikastetxearen beraren bidez emateak— funtzionalki eragiten die kide anitzeko edo pertsona bakarreko hainbat organo kudeatzaileari, besteak beste, OOGari, zuzendaritza-taldeari, jantokiko batzordeari, jantokiko arduradunari eta abarri.

Zuzendaritza-taldeak eskuordetuta, honako eginkizun hauek dagozkie —unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jantokiak arautzen dituen 2000ko martxoaren 22ko Aginduan (2000-03-28ko EHAA) jasotzen denez—:

- Otordu-zerbitzua antolatzea eta menuen jarraipena egitea, jasagarritasun-irizpideei jarraituz eta elikagaiak xahutu gabe.
- Jantoki-zerbitzura atxikitako Hezkuntza Sailaren mendeko langileriaren buru izatea eta kanpoko langileen funtzioen gaineko aginpidea izatea, enpresa hornitzaileen eta haien langileriaren arteko lan-harremanei, halakorik egongo balitz, kalterik egin gabe.
- Jantokietan egin beharreko ordainketen jarraipena egitea, bai haien ikastetxeko jantokietan, bai zerbitzua erabiltzen duten gainontzeko ikastetxeetako ena. Jantoki partekatutako badira, kudeaketa ekonomikoa bakarra izango da eta jantokia kokatuta dagoen ikastetxeko kudeaketa ekonomikoa orokorraren barruan egingo da.
- Jantokiko funtsen zuzeneko kontrol jarraitua eramatea.



- Gainbegiratzeko-zereginen arduratzea. Gainbegiratzeko-zereginak honako hauek izango dira: zerbitzua ematen den bitartean ikastetxeko instalazioetan egotea eta jantokiko disziplinaz eta funtzionamendu egokiaz arduratzea.
- OOGari proposatzea ikasleek parte hartzeko programak erabaki ditzan.
- Aldian behin sukaldeko tresneriaren inbentarioa egitea, eguneratzea eta berritzea.
- Kontratututako enpresak ematen duen zerbitzuaren ezaugarriak eta kalitateari buruzko txostena aurkeztea OOGari, eta instalazioen obrak eta hobekuntzak proposatzea.
- Elikagaien eta lokalen higieena kontrolatzea eta jantokiko hondakin guztien gaikako bilketa bermatzea.
- Funtzionamendu-orduetan jantokia zaintzea, birkokatutako langileak badira (197/1998 Dekretua, uztailaren 28koa).
- Zerbitzua behar bezala egiteko beharrezkoa den beste edozein eginkizun, baita indarrean dagoen araudiak agintzen dizkionak ere.
- Gainera, egokia litzateke jantoki-zerbitzuaren ordutegian bizikidetza-giroa hobetzen lagunduko duten ekimenak proposatzea Bizikasiko talde dinamizatzaileari.
- Jantokia kudeatzeko eta administratzeko eginkizunak bi langile motaren bidez gauzatu ahal izango dira:
- Birkokatutako langileen poltsatik datorren jantokiko arduraduna, uztailaren 28ko 197/1998 Dekretuan aurreikusitako neurriak aplikatuz (1998-09-08ko EHAA).

Salbuetsiak egon gabe euskara-liberazioa eskatzen duten pertsonen kasuan, irakasle horien lan-baldintzek barne hartuko dute astean 20 orduko egonaldia egitea ikastetxean, eguneko 4 ordutan banatuta, batez beste, eta 2019ko iraila eta 2020ko abuztua bitartean gutxienez 450 orduz benetako euskara-eskolak hartu izana egiaztatzea.

- Ikastetxearen beraren jantokiko arduraduna.

Jantoki-zerbitzuaren arduradunak lanaldi-ehuneko hau eman beharko du:

Jankideak	Jantoki-zerbitzuan emandako lanaldia	Ordu presentzialak
30 arte	Curriculum emateko lanaldiaren herena	1 ordu egunean
31 eta 250 artean	Curriculum emateko lanaldiaren erdia	1,5 ordu egunean
250 baino gehiago	Curriculum osoa emateko jardunaldia	2 ordu egunean

Lehen zerrendatutako eginkizunak gainera, jantokiko instalazioetan egon beharko du, baita bazkalurreko eta bazkalondoko jolasaldietan ere, aurreko taulan adierazitako ordu kopuruaz. Ikasleak behatzeko eta haiei zuzenean arreta emateko aldi horietan, jantokiaren arduradunak zeregin garrantzitsuak bete ditzake, bai inklusio- eta bizikidetza-helburuekin lotuta, bai eskuratzen ari diren konpetentziak garatu eta finkatzearekin lotuta.

Jantoki partekatuen kasuan (jantokiko instalazioak hartzen dituen ikastetxe bateko jankideek jantokia partekatzen dute beste maila bateko beste ikastetxe bateko jankideekin), jantokirik ez duen ikastetxeak lanaldi erdiko murrizketa izango du, aipatutako 2000ko martxoaren 22ko Aginduaren 15. artikularen e), f) eta j) puntuetan ezarritako eginkizunak betetzeko. Eginkizun horiez gain, honako hauek ere beteko ditu:

- Zerbitzua eman bitartean jantokiko instalazioetan egotea, eta jantokiaren disziplinaz eta funtzionamendu egokiaz arduratzea.
- Otorduak iraun bitartean eta aurreko eta ondorengo aldietan gainbegiratzeko.
- Bere ikastetxeko ikasleei laguntzea jantokia duen ikastetxeraino, eta alderantziz.



Jangelako zerbitzua erabiltzearekin batera, jolasgaraiak ere izaten dira bazkالاurretik eta bazkalondoa. Hezkuntza-administrazioetik kanpoko langileak arduratu ohi dira jolasgarai horiek zaintzeaz. Gertatzen den edozein gorabehera jantokiko arduradunari jakinarazi behar zaio. Era berean, komeni da langile horiek aintzat hartzea, ezagutzea eta balioestea egiten duten lanegatik eta eskola-eguneko tarte horiek dakarten potentzialtasunagatik, hezkuntza-komunitatean sustatzen diren eta IHPan, Bizikidetzaren Planaren eta IUPean islatzen diren ikaskuntzak eta jakintzak finkatzeko.

Eskola-jantokiez arduratzen diren profesionalen lana babesteko, hezkuntza-laguntzako espezialisten laguntza behar dute HPBak dituzten ikasle batzuek, bazkalorduan eta/edo bazkalurreko eta bazkalondoko jolasgaraietan. HPBko aholkularien jarraibideak betez egindako ebaluazio psikopedagogikotik eratortzen da premia hori, eta profesional horiek zehaztuko dute.

b) Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programako irakasleak

Irakasle hauen ordutegi pertsonala ikastetxeko zuzendaritzak onartuko du. Ikastetxeak ordutegi-banaketari eta egutegiari dagokienez onartuta duen sistema orokorraren barruan egingo dituzte dagozkien jarduerak.

ACEX programa IUParen irakaskuntza-jardueren programan sartuko da, eta ACEX programaren arduradunari erreferentziazko talde bat eskainiko zaio, ikastetxeko prestakuntza-programetan parte hartzeko eta ikastetxeko irakasle eta hezkuntza-laguntzako espezialista guztiekin behar den koordinazioari eusteko. Era berean, ordutegi horren barruan, proiektuan duten erantzukizunaren ondoriozko prestakuntza-beharrei erantzungo diete.

Programaren ardura duten irakasleek praktikara eraman beharko dituzte diseinatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, eta irakasle arduradunak zuzenean esku hartu beharko du borondatez parte hartzen duten ikasleekin.

Ordutegi-banaketak aldaketak izan ditzake proiektuen ezaugarri zehatzen eta ikastetxeen egoeraren arabera, eta gutxienez hauen barruan mantenduko da:

- 10 ordu asteen, ikastetxearen eskola-ordutegian.
- 20 ordu asteen, eskolaz kanpoko ordutegian. Horietatik, gutxienez 2 ordu egingo dira egunero ikasleen arratsaldeko eskola-eguna amaitzean.

c) Irakaskuntzaz kanpoko lanak (liburutegia, ikus-entzunezkoak, zuzendaritzari laguntzea, kalitatea kudeatzea, hizkuntza-normalizazioa, IKTen administrazioa eta antzeko beste lan batzuk).

Ikastetxeren batean irakasleren bat irakaskuntzaz kanpoko zereginetan bakarrik aritzen bada, asteen 30 orduko ordutegian jardungo du, osasun-arrazoiengatik zerbitzu-eginkizunetan diharduten irakasleen kasuan izan ezik, horiek asteko 23 orduko dedikazioa izango baitute.

Irakaskuntza-jardueraren zati bat zeregin horietan emanez gero, haien ordutegia honela antolatuko da: eskola-ordu bateko murrizketa bakoitzeko ordu eta erdi eman beharko dute zeregin horietan. Ondorioz, ikastetxeko ohiko egonaldirako duten asteko 23 orduetako ordu erdi gehituko zaie irakaskuntzaz kanpoko lanetan emandako ordu bakoitzeko, betiere asteko 30 orduko gehieneko mugarekin.

Zuzendaritzak zehaztuko du liburutegia ixteko eta irekitzeko ordutegia, zerbitzua ematen duten langileen lan-eskubideak kontuan hartuta eta errespetatuta, eta sustatu egingo da eskolarik ematen ez den garaian —hala nola jolasgaraietan, jantokiko aldietan edo



irakastorduak amaitu ondoren— liburutegia irekitzeko lehentasuna duten ikasleek hura benetan erabil dezaten.

Ikastetxearen antolaketa orokorrak aukera ematen badu, eta gainerako zerbitzuak behar bezala betetzen direla ziurtatu ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak zerbitzu horietara bideratu ahal izango ditu gainerako irakasleen orduetako batzuk, eta ordu horiek behar bezala konpentsatuko zaizkie hezkuntza-arretako ordutegian.

d) Irakasle eta hezitzaile lan-kontratudunak

Irakasle eta hezitzaile lan-kontratudun horiek beren hitzarmen kolektiboan ezarritakoa bete beharko dute. Hitzarmen hori Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren 2004ko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bidez erregistratu eta argitaratu zen (2004ko ekainaren 17ko EHAA). Gainera, batzorde paritario bat eratu da hitzarmen hori interpretatzeko, aztertzeko eta zaintzeko, baita tresna juridiko horrek eta bere eranskinak biltzen dituzten gaiak garatzeko eta horien jarraipena egiteko ere. Langile horien funtzionamenduari buruzko orientabide espezifikoak ere emango dira, horretarako prestatutako jarraibide edo zirkularren bidez.

Ikastetxeetako zuzendaritzek irakasleen eta hezitzaileen arteko lan koordinatua bermatu behar dute plangintzan (plana, ordutegia...), koordinazioan (bilerak) eta ikasleen jarraipenean. Hezitzaileen artean, honako hauek daude: logopedak, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, Itsuen Baliabidetegietako profesionalak, gor-itsutasuneko bitartekariak, gorren koordinatzaileak.

Ikastetxeei urtero bidaltzen zaizkien jarraibideen arabera egiten eta tramitatzen dira langile horien egutegiak.

e) Itsuen Baliabidetegietako laguntza-zerbitzua

Itsuen Baliabidetegiek ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioa lortzeko lan egiten dute, hezkuntza-komunitateko eragile guztiak aholkatuta eta haiekin esku hartuta ikasle horiei eman beharreko hezkuntza-erantzunaren diseinuan. Itsuen Baliabidetegietako teknikariak, organikoki eta funtzionalki, ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusiorako baliabide-zentroetako zuzendaritzen mende daude. Zentro horiek Hezkuntza Sailaren mendeko kanpoko laguntza-zentroak dira, martxoaren 1eko 40/2005 Dekretuaren bidez sortutakoak.

Zerbitzu honen esku-hartzea detekzioaren unetik hasten da. Detekzioa ikastetxetik bertatik etor daiteke, Berritzegunearen bidez, edo familiengandik, zerbitzu medikoak bideratuta. Azken kasu horretan, Itsuen Baliabidetegiko zuzendaritzak dagokion berritzeguneari jakinaraziko dio.

f) Zeinu-hizkuntzaren interpretea

Hezkuntza-sisteman, zeinu-hizkuntzaren interpretea profesional konpetentziaduna da ikasgelan komunikatzeko ahozko hizkuntzan eta zeinu-hizkuntzan, eta hezkuntza-jardunean ohiko irakasleak bere ikasleei komunikatzen diena itzultzen du, eta hizkuntza nagusia zeinu-hizkuntza duten ikasleentzat ulergarri izateko moduan. Hala, esku hartzen duen taldeko kide da, eta bere konpetentzia pertsonalak eta profesionalak gainerako taldeengana zabaldu daitezke, horientzat eredu eta gidari izango baitira.



Eginkizun hauek ditu:

- Gorreria duten ikasleei curriculumerako sarbidea erraztea, hezkuntza-komunitateko eragile guztiekiko komunikazioa bermatuta.
- Gorreria duten ikasleentzako hezkuntza-erantzunean ikastetxean esku hartzen duten irakasleekin eta gainerako profesionalekin lankidetzan aritzea.
- Irakasleekin koordinatzea gai-zerrendari aurrea hartzeko eta irakatsi eta ikasteko jardueretan.
- Urteko plana eta memoria prestatzea, ikastetxean, ikasgelan eta gorreria duten ikasleekin hartutako erabakiak islatuta, baita bere lanbide-konpetentziari dagozkion beste dokumentu eta txosten tekniko batzuk ere.
- HPBko aholkulariarekin eta/edo koordinatzailearekin koordinatzea gorreria duten ikasleak behar bezala eskolatzeko.
- Gidari-interpretareen berezko jarduerak egitea ikasle gor-itsutasuna duten ikasleekin.

g) Hezitzaile lan-kontratudunen lanaldia betetzen dela kontrolatzea

Hezitzaile lan-kontratudunen eginkizunek halako garrantzi etiko eta morala dute zaintzen eta artatzen dituzten ikasleen ikaskuntza- eta sozializazio-prozesuan, non horiek ez izateak eragin nabarmena baituen ikasleen eskola-dinamikan. Horregatik, gomendatzen da hezkuntza-komunitateko kideek aitor eta balioets dezatela profesional horiek egiten duten funtsezko lana, bai zaintzen eta artatzen dituzten ikasleekin, bai familiekin eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin.

Hezitzaile lan-kontratudunek ikastetxean betetzen dituzten eginkizunen arabera dagokien ordutegia bete behar dute. Horretarako, Hezkuntza Sailak dagozkion kontrol-mekanismoak ezarri ahal izango ditu.

Ordutegiaren justifikaziorik gabeko ez-betetze oro dagokion ikuskaritza-zonako buruzagitzari jakinarazi beharko dio ikastetxeko zuzendaritzak. Ordutegia ez betetzeak hartzekoan deskontua ekarri ahal izango du, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean ezarritakoaren arabera, sorraz lezakeen diziplinazko erantzukizuna bazter utzi gabe.

Era berean, greba izanez gero, ikastetxeko zuzendaritzak horren berri emango dio eskualdeko ikuskaritza-buruzagitzari, eta ikasleen ahalik eta arretarik onena antolatuko du eskuragarri dauden giza baliabideekin.

Era berean, profesional batek esleitu zaion irakaskuntza-dedikazioko ordutegian sartzeko eta irteteko betebeharrak nabarmen betetzen ez dituela ikusiz gero, zuzendariak ordutegi horretara egokitzeko eskatuko dio. Ordutegia ez betetzen jarraituz gero, hori hileko bertaratze-partean jasotzeaz gainera, Lurralde Ordezkaritzako Langileen Unitateari eta Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko zaie, dagozkion neurriak har ditzaten.

h) Hezitzaile lan-kontratudunen bertaratze-partea

Ikastetxeko zuzendaritzak hilabete bakoitzeko 5a baino lehen bidali beharko dizkio dagokion eskualdeko ikuskaritza-buruzagitzari aurreko hileko bertaratze-partea. Hezitzaile lan-kontratudunek greba egiten badute, bertaratze-partea hori bidaltzeaz gainera, grebarekin bat egin duten langileen izenen zerrenda ere igorriko da greba amaitu eta hurrengo egunean.



Ikastetxeek Hezkuntza Sailak propio diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez prestatu beharko dituzte bertaratze-partreak, Hezkuntza Ikuskaritzak jakinaraziko dizkien jarraibideei betez. Aplikazio hori bera erabiliko da greba-kasuan gorabeheraren berri emateko eta grebarekin bat egin duten langileen izenen zerrenda egiteko.

Hileko parteak ikastetxean lan egiten duten hezitzaile lan-kontratadun guztien bertaratze-partetzat hartu behar dira. Langile horiek bi ikastetxetan edo gehiagotan lan egiten badute, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzak bidaliko du dagokion bertaratze-partea.

3.12. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren (maiatzaren 3ko 2/2006) 95. artikulua kalterik gabe, eta ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren lehen xedapen osagarriaren 1. apartatuak adierazitakoari jarraikiz, katedradunen kidegoko irakasleek, bigarren hezkuntzako irakasleek eta lanbide-heziketako irakasle teknikoek beren funtzioak bete ahal izango dituzte eskaintza integratuko ikastetxe publikoetan, eta Lanbide Heziketako modalitate guztiak eman ahal izango dituzte, beren profil akademikoaren eta profesionalaren arabera, baldin eta Lanbide Heziketako tituluetan, dagozkion profesionaltasun-ziurtagirietan edo bestelako prestakuntza-espezialitate batzuetan sartutako moduluak emateko baldintzak betetzen badituzte. Beren lanpostuaren lanaldia eta ordutegia osatu beharko dituzte irakasle horiek, beste modalitateetako prestakuntza-ekintzak emanda. Era berean, nahi badute, beren dedikazioa zabaldu ahal izango dute, eta zabaltze hori interes publikokotzat hartuko da, eta dedikazioa ez da bateragarritasun-baimenaren mende egongo.

Ikastetxeko zuzendaritzak irizpide objektiboak ezarriko ditu irakasgai horiek irakasteko gaitasuna duten irakasleei irakasgaiak esleitzeko. Irizpide horien artean, hauek izango dute lehentasuna: ekoizpen-sektorean esperientzia profesionala izatea, enplegurako Lanbide Heziketako irakasgai horietan irakaskuntza-esperientzia izatea, edo eskainitakoarekin bat datorren hasierako Lanbide Heziketan irakaskuntza-esperientzia izatea. Halaber, irizpide horietan kontuan hartuko da oreka bat egotea hasierako prestakuntzako irakaskuntzaren eta enplegurako Lanbide Heziketako irakaskuntzaren artean.

4. IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAU BATZUK

4.1.- IKASTETXEETAKO ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK URTEKO PLANEAN AURREIKUSI GABEKO JARDUERETARAKO ERABILTzea

Maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuaren (2008ko maiatzaren 19ko EHAA) xedea da erregulatzea unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen eraikinak eta instalazioak nola erabili behar dituzten bai administrazio eta erakunde publikoek, bai beste edozein pertsona fisiko edo juridikok, ikastetxearen urteko programazioan aurreikusita ez dauden hezkuntza-, kirol- eta kultura-jarduerak edo bestelako jardura sozialak egiteko.

Dekretuak, besteak beste, honako alderdi hauek zehazten ditu bere artikuluetan: egin beharreko jardueren ezaugarriak, erabiliko diren instalazioak, lehentasunak, erantzukizunen araubidea, eta eskaera eta baimenen prozedura arrunt eta laburtua.



Illo horretatik, gogorarazten da ezinbestekoa dela ikastetxeak aipatutako dekretuak ezartzen duen erregulazioa betetzea.

4.2.- IKASTETXEKO IKASLEEN ESKOLA-ASEGURUA TRAMITATZEA ETA ORDAINITZEA

DBHko 3. mailatik Unibertsitateko hirugarren ziklorako arteko ikasketa ofizialetan matrikulatutako 28 urtetik beherako ikasle guztiek Gizarte Segurantzaren Eskola Aseguruan sartuta egon behar dute. 2018-2019 ikasturtetik aurrera, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoek honela tramitatu eta ordaindu beharko dute aseguru hori:

1.- Ikasleen matrikulazioa amaitu ondoren, urriaren 31 baino lehen, ikastetxeak EXCEL motako artxibo bat bidaliko dio Hezkuntza Sailari, lehenago jakinaraziko zaion helbide elektronikora. Bertan, ikastetxearen izena, 8 zifrako bere kodea eta KKK (kotizazio-kontuaren kodea) jasoko dira, baita data horretara arte matrikulatuta dauden eta Eskola Aseguruan sartu behar diren ikasle guztien datuak ere. Ikasle bakoitzeko, honako lauki hauek agertu beharko dira nahitaez artxibo horretan:

- Ikaslearen identifikazio-dokumentu mota (NAN, AIT, etab.).
- Identifikazio-dokumentuaren zenbakia (letra barne, halakorik izanez gero).
- Izena.
- Lehen abizena.
- Bigarren abizena (izanez gero).

2.- Hezkuntza Sailak modu elektronikoan sartuko ditu datu horiek guztiak Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren dagokion aplikazio informatikoan, eta ikastetxearen eskola-asegurua kuotak likidatu izanaren ordainagiria (ordainketa-gutuna) eskuratuko du bertatik, eta posta elektronikoz bidaliko dio ikastetxe bakoitzari. Ikastetxeak dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du edozein finantza-erakundetan, ordainketa-gutuna jaso eta gehienez ere bost eguneko epean.

3.- Gerora matrikulatzen diren beste ikasle batzuk Eskola Aseguruan sartzen badira, ikastetxeak aurreko prozedura errepikatu beharko du behar adina aldiz. Matrikulatutako ikasle berrien datuak biltzen dituen EXCEL fitxategia hilabete bakoitzeko azken egunetan bidali beharko da, azaroaren 30etik ekainaren 30era arte, matrikulazio berriak egin diren hilabeteetan. Halakoetan, aurreko bi ataletan deskribatutako prozedura errepikatuko da.

4.3.- DATU PERTSONALEN BABESA

Ikastetxeek ikasleen datu pertsonalak kudeatuko dituzte arau hauetan ezarritakoaren arabera: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Ikastetxe publikoek eskolatzeko-prozesuan sortzen den informazioa kudeatuko dute, eta berori Hezkuntza Sailaren aplikazioen bitartez bilduko da. Era berean, ikastetxeak behartuta daude hezkuntza-komunitate osoa prestatzera datu pertsonalak tratatzearen oinarriko printzipioen eta arriskuen inguruan. Datuen titularrei hezkuntza ulerterrazean eman beharko diete datuak babesteko daukaten politikaren eta horiek gordetzeko epearen berri.



Ikastetxeak datu horiek etengabe eguneratuta eduki behar ditu barne-prozesuen funtzionamendu egokirako. Beraz, ikasleak kontzientziatu behar ditu datuak aldatuz gero betiere horren berri eman dezaten, horiek eguneratu ahal izateko.

Ikastetxeek beren eginkizunak betetzeko tratatzen dituzten datu pertsonalak ez dira ikastetxearenak, baizik eta ikasleenak, haien senideenak, bertako langileenak edo ikastetxeak harremanetan dauden beste pertsona fisiko batzuenak. Horiek dira beren informazio pertsonalaren benetako titularrak. Ikastetxeko langileek arduraz eta pribatutasuna eta intimitatea errespetatuz tratatu behar dituzte datu pertsonalak, ikasleen interesa eta babesa lehenetsita.

Erabiltzaileek eskubidea izango dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta beste norabaitera eramateko, baita haien trataera mugatzeko edo trataeraren aurka egiteko ere.

Hezkuntzaren arloan, bereziki garrantzitsua da ikasleen osasunari buruzko datuen tratamendua. Hala, adibidez, hezkuntza-premia bereziei buruzko datuak (adibidez, minusbaliotasunen bat), edo bestelakoak (hala nola alergiak eta intolerantziak), baita ikasleen txosten psikopedagogikoetan, etab. jasotako datuak ikasleen osasunari buruzkoak datutzat jotzen dira.

Baliteke ikastetxeek —zehazki, bertako langileek— jakin behar izatea ikasleek gaixotasun edo alergia jakin batzuk badituzten. Horretarako, informazio hori ahalik eta berme handienarekin tratatzeko neurriak hartuko dituzte.

Horregatik, eta eragindako ikasleen gurasoekin edo, hala badagokio, haien legezko tutoreekin adostuta, beharrezko protokoloak ezarri behar dira informazio hori egoki tratatzeko, bai ikastetxearen ohiko funtzionamenduan (ikasgeletako egonaldia, aisialdiko ordutegia, gorputz-hezkuntza, jantokia, erizaintza, ebaluazio psikopedagogikoa, etab.), bai ezohiko egoeretan (maisu-maistren edo tutoreen ordezkapenak, urteurren-ospakizunak, irteerak, udalekuak, etab.).

4.4.- IKASTETXEETAKO JABETZA INTELEKTUALA

Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen eta gai horri buruz indarrean dauden lege-xedapenak erregularizatu, argitu eta harmonizatzen dituen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuta artikulatuko da obra zati txikien eta izaera plastiko edo fotografiko figuratiboko obra isolatuen erreprodukzioa, banaketa eta komunikazio publikoa (ikus, bereziki, 32. artikulua).

4.5.- IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Hezkuntza-komunitateko era askotako eragileek parte hartzen dute eta laguntzen dute eskolako bizitzan, eta horrek eskatzen du osasunarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten hainbat alderdi arautzea, batez ere ikasleei dagozkienak, baina baita eskolan ibiltzen diren gainerako kolektibo guztiei dagozkienak ere.



4.5.1.-Osasun-larrialdiko egoerak ikastetxeetan

Osasun-larrialdiren bat izanez gero, ikastetxeko irakasleek edo irakasle ez diren langileek berehala deitu behar dute larrialdietako 112 zerbitzura, eta bertan azalduko diete nola jokatu.

4.5.2.-Osasun-arreta eskola-orduetan

Osasun-beharrizan bereziak dituzten ikasleei arreta emateko, Gobernu Kontseiluak 2005eko azaroaren 29an erabakitako jarduera-protokoloari jarraituko zaio⁶.

4.5.3.- Ibilgailuak ikastetxera sartzea

Indarrean dagoen segurtasun-araudiari jarraituz, debekatuta dago ikasleek eta ibilgailuek aldi berean espazio berberak edo sarrera eta irteera berberak partekatzea.

Ikastetxeko zuzendaritzak sartzeko baimena emanda ere, ezingo dira sartu ikasleen sarrera eta irteera orduetan edo ikasleen jolasgaraian. Gainera, prozedura jakin bat, ordutegiak, ibilbideak eta ikastetxearen eremuan zirkulatzeko arauak zehaztuko dira, eta seinaleak ere jarriko dira. Prozedura hori idatziz erregistratuko da eta ikastetxeko arduradunek eta ibilgailuaren gidariak horren berri izango dute.

Aparteko egoera batean ibilgailu bat ikastetxera sartzen bada, ikastetxeko zuzendariak edo hark eskuordetutako pertsonak lagundu beharko diote.

4.5.4.- Obrak

Litekeena da eskola-orduetan obrak egin behar izatea ikastetxe batean.

Obrak egiteko, Segurtasun eta Osasun Azterketa bat sartuko da proiektuan eta bertan jasoko dira jarraibideak. Obra txikien kasuan, jarraitu beharreko Segurtasun Plan bat erantsiko zaio lantokiaren irekierari.

- Edonola ere, obren gunea eta irakaskuntzako gunea erabat bereizi beharko dira. Horrek eskatzen du:
 - Obra-eremua erabat hesiz inguratzea.
 - Obrako ibilgailuentzat eta obrako langileentzat sarrera independenteak jartzea.
 - Obrakoa ez den pertsona orori sarrera galarazteko kartela jartzea.
 - Ibilgailuak sartzen diren atetik oinezkoak sartzeko galarazteko kartela jartzea.
- Ikastetxeko sarreran eta obra-eremuan ikusteko moduan jartzea bi eremuak koloreen arabera argi eta garbi bereizita dituen plano bat, dagozkien sarbideak eta jarraibideak adierazita. Plano hori ikastetxeko zuzendaritzari ere emango zaio.

⁶ Eusko Jaurlaritza (2006). Eskola-orduetako osasun-arretarako protokoloa



- Obrako ibilgailuak irekita dagoen ikastetxeko eremutik sartu behar izango balira, obraren arduradunak langileak jarriko ditu etengabe sarrera-irteerak kontrolatzeko eta ikastetxeko ikasleen eta langileen segurtasuna bermatzeko.

4.5.5.-Tabakoa eta alkohol-dun edariak

Ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da indarrean dagoen araudia betearazteaz. Araudi horren arabera, debekatuta dago ikastetxeetan tabakoa eta alkohol-dun edariak saltzea eta kontsumitzea, ikasleen adina eta irakaskuntza-mota edozein izanik ere.

4.5.6.-Eskolako laborategien erabilera

Laborategietako jarduerak ikasleen adinera eta gaitasun-mailara egokituko dira, baita instalazioen baldintza teknikoetara ere. Pertsonen segurtasuna eta indarrean dauden protokoloek ezartzen dutena betetzea ziurtatu behar da.

4.6.-LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ZERBITZUA

Gogorarazten da laneko arriskuaren prebentzioari buruzko informazio guztia <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-lapz/> webgunean dagoela, Prebentzio Zerbitzua atalean, eta Prebentzio Zerbitzuko teknikariei ere kontsultatu ahal zaie.

ZERBITZU OROKORRAK	<i>LAPZ arduraduna</i>	<i>945 018 411</i>
	<i>Higiene arloa</i>	<i>945 018 451</i>
	<i>Psikosoziologia arloa</i>	<i>945 016 546</i>
	<i>Segurtasun arloa</i>	<i>945 016 545</i>

LURRALDE HISTORIKOA	ZONA	ARLO TEKNIKOA	LAN OSASUNAREN ARLOA
ARABA	<i>1 ZONA</i>	<i>945 01 84 51</i>	<i>688670550</i>
BIZKAIA	<i>1 ZONA</i>	<i>94 403 11 92</i>	<i>94 4031194</i>
	<i>2 ZONA</i>	<i>94 403 11 93</i>	
	<i>3 ZONA</i>	<i>94 403 11 93</i>	
	<i>4 ZONA</i>	<i>94 403 11 92</i>	
GIPUZKOA	<i>1 ZONA</i>	<i>943 02 31 74</i>	<i>943 023170</i>
	<i>2 ZONA</i>	<i>943 20 84 44 181 luzapena</i>	<i>943 700491</i>



4.6.1.-Segurtasuneko laguntzailea

Ikastetxearen hezkuntza-kudeaketarako murrizketa-orduen zati bat esleituko dio zuzendariak eginkizun hori bete behar duen irakasleari. Prebentzio Zerbitzuak antolatuko dituen bileretara joan ahal izateko, irakasle horren ordutegian asteartean goizeko 8etatik 11tara ez da irakaskuntza-dedikaziorik izango, ahal dela.

Zuzendaritza-taldeari gogorarazten zaio komeni dela laguntzailearen figura ikastetxean maila bateko egonkortasun bat duen langile bati esleitzea, lanari jarraitutasuna emateko.

4.6.2.-Irakasleen prestakuntza prebentzioaren arloan

Hezkuntza Sailaren prebentzioaren arloko prestakuntza emateko betebeharra betetzeko (31/1995 Legearen 19. artikulua) eta langileek lege horren 29. artikulua betetzeko, irakasleen formakuntzara zuzendutako orduetatik eta/edo ikastetxean lan egiteko orduetatik gutxienez 2 ordu gordeko dira urtean formakuntza horretarako. Formakuntza hori Prebentzio Zerbitzuak emango du ikastetxe bakoitzean, garaiz hitzartutako egunetan eta ordutegietan.

4.6.3.-Larrialdietarako simulakroak

Urteroko jarduera da, eta, ahal dela, ikasturtearen hasieran egingo da. Nahitaezko jarduera da eta IUPn jasoko da. Ikastetxean desgaitasuna duen ikasleren bat eskolatuta egonez gero, hura behar bezala ebakutzeko beharrezko neurri zehatzak adierazi behar dira. Simulakroa egin ondoren, jardueraren ebaluazioa **Segurtasuna – Larrialdiak** atalean gaitutako webguneko formularioaren bidez, eta horrela bakarrik, bidaliko da.

4.6.4.- Botikin eramangarria

486/1997 Errege Dekretuan, lantokietako gutxieneko segurtasunari eta osasunari buruzko xedapenak ezartzen dituenean, xedatutakoari jarraituz, lantoki guztiek, gutxienez, botikin eramangarri bat izango dute, eta honako elementu hauek izango ditu: desinfektatzaile eta antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, bendak, esparatrapua, apositu itsasgarriak, guraizeak, pintzak eta erabili eta botatzeko eskularruak.

Lehen laguntzako materiala aldian behin aztertuko da, eta berritu egingo da iraungi edo erabili ahal.



4.6.5.- Laneko istripuak

Osasun zaintza eta jakinarazpena Hezkuntza Saileko webgunean **Segurtasun-Lan istripuak** atalean, agertzen den eskemaren arabera egingo dira⁷.

Ikastetxeko zuzendaritzak **istripu guztien erregistroa** eramango du, **bai baja eragiten dutenena bai baja eragiten ez dutenena**.

Ikastetxeko langileei egindako erasoak lan-istriputzat hartuko dira, nahita egindakoak izan edo nahi gabe egindakoak izan, eta horiek ere erregistroan sartuko dira.

Amatasuna Babesteko Prozeduran, ikastetxean izandako istripuen nahiz gertaeren erregistroa eskatu ahal izango da.

4.6.6.-Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa

Informazioa entregatzeko eta erregistratzeko prozeduran ezarritakoari jarraituz, zuzendaritza-taldeak ikastetxeko lanpostuen arriskuei buruzko ebaluazioa eta larrialdi-plana emango dizkie ikastetxeko langileei.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 21a

Begoña Pedrosa Lobato
HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA

⁷ <https://www.euskadi.eus/langile-lapz-segurtasuna-lan-istripuak/web01-a2hsprl/eu/>